

# artekka

ctrl+supr

5G



GEDAR



**«Kontrol sozialak ez du esan nahi kolektibitate  
batek hartutako neurrien mendeko izatea.  
Ezta araua eta autoinposaketa soziala edota  
modu kontzientean zehaztutako ordena  
ere, zeina norbanakoaren askatasunaren  
oinarri objektiboa den. Kontrol sozialaren  
helburua klase menderakuntza da, eta  
hori da modu orokorrean ulertutako  
ordenatik bereizten duen edukia»**

# EDUKIA

**6**

## **EDITORIALA**

Arteka


**KONTROL SOZIALA**

**8**

## **IKUSPUNTUA**

Carmen Parejo

**EB-K HIL EGIN BEHAR DU  
EUROPA SALBATZEKO**



**14**

## **ERREPORTAJEA**

Arteka

**5G-A, ETORKIZUNA  
ZELATAN**

**24**

## **IKUSPUNTUA**

Aitor Bizkarra

**POETAREN EXISTITZEKO  
ESKUBIDEA**

**28**

## **ELKARRIZKETA**

Saioa Sanchez

**«DENA DAGO ARAUTUTA  
ETA ERRUTINA HORREK  
NORBERA EZ IRENSTEKO  
BORROKA EGIN BEHAR DA»**



**34**

## **IKUSPUNTUA**

Ane Ibarzabal

**ERABAKI ZIURGABEAK**

**38**

## **IKUSPUNTUA**

Martin Goitiandia

**URRUTIKO INTXAURRAK  
HAMALAU...**



# 42

**KOLABORAZIOA**  
Hodei Mendinueta  
**ALARMA EGOERA:**  
**NORMALTASUN**  
**BERRIA ALA**  
**EZKUTUKO**  
**ERREFORMA?**

# 56

**IKUSPUNTUA**

Adam Radomski

**DATOZEN LAN-ERREFORMAK**

# 62

**KOIUNTURA**

Beñat Aldalur

**DEKADENTZIA**

**ETA KONTROLEAN**

**OINARRITUTAKO GIZARTEA**

# 66

**IKUSPUNTUA**

Maddi Sarasua

**1960-1990 ARTEKO**

**MUSIKAGINTZA, BI**

**MUGIMENDU**



# 70

**ERREPORTAJEA**

Arteka

**PANDEMIA ETA**

**SEGURTASUN GLOBALA,**

**URBEAREN AURKAKO**

**NAZIOARTEKO AKORDIOA**

# 82

**IKUSPUNTUA**

Alain Arruti

**BURGESIAREN KONTROLPEKO**

**ESPAZIOAK: KARTZELA**

# 86

**IKUSPUNTUA**

Paul Beitia

**ARTISTA PROLETARIO GISA**

# Kontrol soziala

EDITORIALA

**B**otere-krisi oro modu bortitzean agertzen da. Bortizkeria hori, ordea, ez da gizarte-ordena baten amaiera iragartzen duen sirena izaten, hura berrezartzeko bitartekoa baizik, botere-oreka berritua lortzeko. Nagusi den ordenaren berritzearen ebidentziarik argiena da indarkeria, ordena horri berezkkoa zaiona, eta ez mehatxatzen duen kanpokotasun bat. Oreak nagusi zela zirudienean, itxura hori pitzatu egiten da eta birzentralizazio autoritarioaren adierazpen berriei bide ematen die. Estatuak modu ikusgarrian esku hartzen du ekonomian; ez bada fikziozko injekzioen bidez, dirua kapital bihurtuz, gizarte osoaren erreproduktzio sozialaren baldintzak birdefinituz izan ohi da, nahiz eta modu desorekatuan eta emaitza politiko desberdinekin izan.

Horretarako, gizartearen bizi-prozesuetan Estatuaren esku hartze handiagoa eskatzen duen klase ertain bat du emagin; kontrol handiagoa krisi bati erantzun gisa, krisi hori axolagabekeria politikoa- ren edota Estatu bilakatutako herri-borondatearen esku-hartze faltaren ondorioa den krisi gisa identifikatzen baitute. Proletalgoaren gaineko kontrola, hura arduragabea baita, legeak urratzen baititu eta kaosean murgiltzen baita normaltasun ekonomiko kapitalistak beragan ezartzen duen botere hertsatzaile oro desagertzen denean. Autoritarismo faxistatik gertu dauden eta dagoeneko normalizatu- ta dauden egoeretan azaleratzen diren ezkerrearen eskakizun politikoak. Auzokideekin duten lotura bakarra Estatuaren bitartez, bere poliziaren bitartez, duten auzokideak. Solidarioz janzten diren insolidarioak, hurkoarekiko axolagabetasun osoz aritu eta hirugarrenak insolidariotzat jo eta Estatuaren aurrean salatzen dituztenak. Burgesiak bere

ordezkari politikoen bidez ezarritako neurriak -eta ez modu kontzientean hartutako neurri kolektiboak- onartzen dituzten insolidarioak, beldurragatik; beldurra ez soilik Estatuak egikaritutako botere positiboari, baita botere negatiboari ere, botererik ez duen gizabanakoari hutsunea sortzen baitio aginte-figura horren desagertzeak, zeina ahultasun egoeretan eskatzen duen. Elkarrekiko kezka- ren adierazpen horiek guztiak, Estatuaren esku-hartzea aldarrikatzeko joerarekin lotuta agertzen direnak, gizartearen antolaketa komunistarekiko antagonikoak dira, eta ez dute zerikusirik elkartasunarekin; aitzitik, gizabanako berekoia- ren adierazpenak dira.

Zalantzarik gabe, Estatu- a besterendutako kolektibitate- a da, gorputz objektiboa hartzen duen eta gizartetik banatzen den borondate soziala. Prozesu horretan datza kontrol soziala, langile klasearen erreproduktzio-prozesuaren gaineko kontrol zehatz gisa, eta ez informazioa sistematizatzeko edo subjekturik gabeko giza-antolamendurako prozesu huts gisa. Kontrol sozialak ez du esan nahi kolektibitate batek hartutako neurrien mendeko izatea. Ezta araua eta autoinposaketa soziala edota modu kontzientean zehaztutako ordena ere, zeina norbanakoaren askatasunaren oinarri objektiboa den. Kontrol sozialaren helburua klase menderakuntza da, eta hori da modu orokorrean ulertutako ordenatik bereizten duen edukia. Izan ere, ordena da kapitalarentzat, lan-indarraren ustiapen kapitalista eta gainbalioaren eta klase boterearen eskala handiko ekoizpena arrazionalizatzeko. Horregatik, klase menderakuntzarako organoak eskura dezakeen informazioa ez da erabiltzen gizabanako askeen kolektibo baten alde, baizik eta haren aurka. Informazioa ez da boterea, baizik eta boterea informazioa

da, haren etengabeko erauztea eta gizabanakoaren gaineko monitorizazio soziala, gizabanakoa bera menderatzeko helburuarekin.

Horrela, irrigarriak dira klase ertainak askatasun faltagatik egindako kexak, askatasuna harreman intersubjektiboen estatalizazio autoritario handiagoari deitzen diotenean. Estatu kapitalistaren inposaketa-legeak betetzeak ez du zerikusirik elkartasunarekin, ez eta bere burua aitortzen eta kontzienteki arautzen duen kolektiboarekin ere, arautze hori haren existentziaren baldintza baita. Aitzitik, obeditzea, gizarte-baldintza horien pean, men egitea eta amore ematea da, beste baten -hots, klase menderatzailearen- nahimenaren aurrean makurtzea, eta nahimen hori norberarena egitea, sozialki hegemonizatuz, guztion onerako borondatea bailitzan. Hori da klase-dominazioaren tarteko katebegia, klase ertaina, ez dena ertaina soilik burgesiaren eta proletalgoaren arteko erdibidean dauden baldintza ekonomikoez interesik gabe gozatzen duelako, baizik eta bi klase antagonikoen artean bitartekaritza lanak egiten dituelako, eta lan hori konfrontazio batean egin daitekeen modu bakarrean egiten duela: nagusi den gizarte-ordenaren alde, burgesiaren alde, proletalgoa mendeko egiteko. Hori da klase ertainaren baldintza objektiboa, zeinari eusten dion eta ihes egiten uzteko prest ez dagoen. Horrela, bere burua Estatuaren aurrean makurtzen du borondatez, Estatu horren baitan bere existentzia erreproduzitzeko helburuarekin, hark baldintzatzen baitu eta hura gabe ez bailitzateke existituko.

Klase ertainak kontrol soziala eskatzen duela ikusten dugu gero eta gehiago: zeharkako soldata-politikak, Estatuaren bitartekaritza gauzatzen direnak, horiek lortu nahi dituen pertsonaren bizitza monitorizatzea ekartzen dutenak; Estatuaren esku-hartzearen bidez gauzatzen diren zuzeneko salarizazio eskakizunak, horretatik kanpo dauden esparruetan, zaintza-adarretan kasu; bizi-eremu ororen balorizazio bortitza, eta gure harreman guztien kontrol zenbakitua, horiek balioaren legearen arrazionalizazio kapitalistaren mendeko eginez; eta beste hainbat kontrol sozialerako politika filofaxista, eskubideen defentsaz, berdintasunez eta ahulenekiko kezka estaliak, gure harreman sozialak gauza bihurtu eta botere politiko eta egitura objektibo baten aurrean, zeinarentzat zenbakiak eta bitartekoak besterik ez garen, mendekoago egiten gaituen bitartean.

Hori da klase ertainak klase-esplotazioaren arrazionalizazioan betetzen duen papera, joera horrekiko kontra-oreka gisa, bere aurkakoa bihurtzen dena ezinbestean: autoritarismoaren aurrean, anarkia

***Klase ertainak kontrol soziala eskatzen duela ikusten dugu gero eta gehiago (...), kontrol sozialerako politika filofaxista, eskubideen defentsaz, berdintasunez eta ahulenekiko kezka estaliak, gure harreman sozialak gauza bihurtu eta botere politiko eta egitura objektibo baten aurrean, zeinarentzat zenbakiak eta bitartekoak besterik ez garen, mendekoago egiten gaituen bitartean***

sozial handiagoa, gure kideekiko, gure jendearekiko eta, zehatzago, gure klasearekiko axolagabekeria. Atomizazioa, demokrazia eta boterearen besterentzea burgesiaren Estatu-egituretan. Proletalgoan konpromisorik eza, elkartasunik eza eta ekintza politikoaren batasunik eza; diziplina sozialeko figura autoritarioek bortizki hezten duten proletalgoa, lanean zartailuarekin ez bada, espazio publikoan hezten dute, bazterketaren, seinalatzearen, manipulazioaren eta gezurraren zein eraso pertsonalen eta presio sozialaren bidez.

Kontrol soziala ez da informazioa sistematizatzea. Ezta erreprodukzio soziala arrazionalizatzea ere. Kontrol soziala informazio hori guztia burgesierentzat eskuragarri eta erabilgarri izateko moduan ordenatzea da, ez guztion onerako, klase horren onurarako baizik. Eta bide horretan desberdinak dira proletalgoaren aurka erabiltzen diren diziplina-mekanismoak, klase etsaiaren boterea zaintzea helburu dutenak. Aurrerapen sozial oro, informazio interesgarri oro burgesiak monopolizatzen du proletalgoaren aurka erabiltzeko. Hori da informazioa, ordena soziala eta kolektibitatea kontrol sozialaren prozesu espezifiko gisa bereizten dituen oinarri zehatza: prozesu hori guztia burgesiak zuzendutakoa izatea, klase burgesaren boterearekiko mendekotasuna izatea bizikidetzat soziala eta menderatze-prozesu osoa sistematizatzen den eremua baino ez izatea kolektibitatea. Ez dugu desordena eta kontrolik eza bilatzen. Ordena berri bat bilatzen dugu, klase eta esplotaziorik gabea. /



# EB-K HILEGIN BEHAR DU EUROPA SALBATZEKO

Testua **Carmen Parejo**  
Irudia **Zoe Martikorena**

**1**915ean, Leninek, *La Consigna de los Estados Unidos de Europa* artikuluan, argi eta garbi utzi zuen Mendebaldeko Europako potentzien batasun politiko eta ekonomikoko proiektuak sortu zirenetik gertaeren argitan egiazkoa izan den premisa bat.

Honela esaten zuen lider boltxebikeak: «Europako Estatu Batuak kapitalismoaren baitan ezinezkoak edo erreakzionarioak dira». Eta honela azaltzen zuen:

*«Izan posible dira aldi baterako akordioak kapitalisten eta potentzien artean. Zentzu berean, Europako Estatu Batuak ere posible dira, Europako kapitalisten akordio modura... Zerren gainean? European sozialismoa birrintzeko moduaren inguruan, hain zuzen, baita Japonia eta Ipar Amerikaren aurka lapurtutako koloniak batera defendatzeko ere, hauen interesak kolonien banaketa berriarekin oso kaltetuta baitaude, eta zaharraren zaharrez usteltzen hasia den Europa atzeratua, monarkikoa, baina askoz abiadura handiagoan indartu direlako azkeneko 50 urteetan. Amerikako Estatu Batuen aldean, Europa bere osotasunean geldialdi ekonomiko batean dago. Egungo oinarri ekonomikoaren gainean, hau da, kapitalismoarekin, Ipar Amerikaren garapen azkarragoa gelditzeko erreakzioaren antolakuntza izango lirateke Europako Estatu Batuak».*

Gogora dezagun 1917an Errusiar Inperio zaharrean iraultza sozialista garaile atera zela, gerora Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunaren sorrera ekarriko zuena. Era berean, Bigarren Mundu Gerraren eta Europa erdialdeko eta Italiako Errepublikako nazifasismoaren porrotaren ostean beste

iraultza sozialista batzuk loratu ziren Europa ekialdeko eta erdialdeko zenbait herrialdetan. Testuinguru horretan, gerraren hondamendiengatik txikituta eta gailentzen zen sozialismoaz inguratutik, potentzia inperialista europarrak AEBekin dependentziazko harremana izaten hasi ziren. Horrela, Alemaniako Errepublika Federalaren industrializazio masiboa Gerra Hotzeko beste arma bat bihurtu zen, eta Alemania kapitalista eta potentzia estatu-batuarraren hitzarmenezko ezkontza behartua izan zenez, Altzairuzko oihalaren Alemania Federalaren aldean hegemoniko bilakatu zen AEB. Leninek aurkeztu zuen testuingurua, Europako Estatu Batuen kontsignaren garapen ez erreakzionarioa eragozten zuena, lasaitu beharrean, larriagotu egin zen bilakaera historiko honetan. Behintzat Altzairuzko oihalaren mendebaldeko aldean.

## KLASE-BORROKA EUROPAN

1947an AEBko presidenteak, Alderdi Demokratiko Harry S. Trumanek, bere izena zeraman doktrina ezarri zuen, eta doktrina horrek nazioarteko esku-hartzeari ateak ireki zizkion, diskurtso eta ekintza antikomunistaren pean. Gerra Hotzaren hasiera izen zen hori.

Kabinete honen proposamenen artean zegoen Marshall Plana ezartzea, Mendebaldeko Europa berreraiki eta herrialdean sozialismoaren hedapena gelditzeko beste erreminta izan zedin, AEBren esportazioekiko menpekoea zen eta kontrolpean zegoen industriaren garapenaren bidez.

1948ko apirilaren 16an Ekonomia Lankidetzarako Europako Erakundea (gaztelaniazko OECE) sortu zen, Marshall Planaren laguntzak kudeatzeko helburuarekin. Hau da, Mendebaldeko Europa kapi-





V. I. U. LENIN

*«Europako Estatu  
Batuak kapitalismoaren  
baitan ezinezkoak edo  
erreakzionarioak dira»*

talistaren lankidetzak ekonomikorako lehenengo esturktura sortu zen, gaur egun «Herrialde aberatsen kluba» modura ezagutzen den Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Erakundearen (gaztelaniazko OCDE) jatorria izan zena, hala ere, txotxongilo-gobernuen bidez munduko beste mendeko ekonomia batzuk batu dira.

Borroka antikomunistaren eta espantsionismo estatubatuarraren markotik kanpo ezin uler daitekeen unitate honek 50eko hamarkadan bide eman zien Ikatz eta Altzairuaren Europako Erkidegoari. Alemaniako Errepublikak Federala, Frantzia, Belgika, Italia, Luxenburgok eta Herbehereak bakean eta gerran batuko zituen aliantza, hain zuzen. Azkenik, 1957an, Erromako Itunarekin, Europako Ekonomia

Erkidegoa (EEE, gaztelaniazko CEE) eratu zen, edo «merkatu komuna», kide ziren herrialdeen arteko aduana-eskubideen amaiera erraztuko zuena.

1973an Britainia Handia, Irlanda eta Danimarka EEEen sartu ziren. Gerora, Grezia 1981an eta Espainia eta Portugal 1986an sartu ziren, aurretik zuten diktadura erregimenak jausi eta EEEren demokrazia kapitalista eredura egokitu ostean.

1986an Europako Agiri Bakuna sinatu zen, sei urteko programa zabalaren oinarri izango zen akordioa, EBko mugetan merkantzien zirkulazio libreaki trabak kentzeko asmoa zuena, horrela sortu zen «merkatu bakarra».

Eta 1995ean Austria, Finlandia eta Suitza batu ziren. 15en Europa osatuz.





Paraleloki kapitalismo europarrak 1949ko apirilean AEBekin zuen aliantza indartu zen Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundearen bidez (NATO/OTAN), horrela, europar eta estatubatuar kapital handiek indar militarrek batu zituzten Europa sozialistaren, SESBen eta eman zitekeen ezein prozesu iraultzailearen aurkako bloke antikomunista osatu zuten.

NATOk eginiko lehenengo ekintza bateratua Sobietar Batasuna erori ostean izan zen, europar sozialismoaren azken gotorlekua suntsitzeko balio izan zuen. Kosovoko bonbardaketak, premisa faltuen pean, Jugoslaviaren suntsiketa eta AEBk urte batzuetan bere nahira eta gogora gobernatuko zuen ordena mundial polobakarraren hasiera ekarri zuen.

90eko hamarkada bereziki dramatikoa da kontinente europarrarentzat, Jugoslaviako gerraz gain ekialdeko herrialdeen suntsiketa eta zatikako salmenta ere gertatu baitzen, Errusia barne, eta oligarka mafiosoen agerpena erraztu zen eta bertako biztanleria gerra odoltsu batek egingo lukeen moduan txikitu zuen. Behin askeak izan ziren herrien aurka mendeku gosez inposatutako kapitalismoaren dekadentzia irudia droga-mendekotasunak, prostituzioak eta gizartearen lunpenizazio prozesuaren bestelako elementuen areagotzeak markatu zuen. Aldi berean, Alemaniako ekialdea txirotuko zuen «bateratze» prozesua jazo zen, esperientzia sozialistarengatik zigortuta eta herrialdeko mendealdeko aldearen mesedetan. Garaipena konkordia modura saldu zuten eta Berlingo harresiaren erorketa Alemaniako Errepublikak Demokratikoko langileen estatuaren aurkako kapitalisten garaipena baino ez zela ezkutatzeko propaganda helarazi zioten munduari.

EEEk bi itunekin ospatu zuen: Maastricht-ekoa (1992) eta Amsterdamekoa (1999). Altzairuzko oihalik gabeko mundu hartan, Europako monopolio handien gaitasun espantsionista indartzeko helburuarekin, garapen lehiakorrago bat zuten gune ekonomikoentzat, enpresa handientzat eta multinazionalentzat mesedegarriak ziren birmoldaketa eta kohesio planak abiatu ziren. Halaber, Europako Banku Zentrala martxan jarri zen eurogunea kudeatzeko.

## **27 KIDE GUZTIZ DESBERDINAK DIREN HERRIALDEEN ARTEKO MERKATU BAKARREKO PROIEKTU BATEAN**

Ebren jaiotza eta oinarriak europar kapitalismoak bere ekonomiaren eraginaren galeraren aurrean eta sozialismoak Europan izan zuen arrakastaren aurrean indar bateratua egiteko duen premia dira, Leninek 1915ean ohartarazi zuen bezala. Hala ere, ekonomiaren geldialdiari Bigarren Mundu Gerraren ondoren zuten ahultasuna gehitu zitzaion, eta horrek AEBekin aliantza bat egitera behartu zuen, egun oraindik indarrean jarraitzen duena.

EBko potentziak lapurreta kolonialaren eta imperialismoaren bidez hiriburuen hedapenaren babespean garatu ziren. Gerra Hotzaren amaieraren ondoren irekitako testuinguru berrian, gainera, barne-lapurreta prozesu berri batez baliatu ziren, eta sozialismoaren erorketaren ondoren Europako ekialdeko herrialde hondatuak anexionatu zituzten. Gaur egun, 27 bazkide daude batuta herrialde erabat desberdinen arteko merkatu bakarreko proiektuari. Zerga- eta diru-politika bakarra, industria- eta fi-



nantza-sistema sendoagoa duten herrialdeei abantaila ematen diena.

Aldi berean, monopolioen gorakadak eta deslokalizazio produktiboak lan-prekariatatea eta langabezia areagotzen dituzte, eta azken urteotan, krisi ekonomikoaren ondoren, gastu sozialaren austeritate-politikek indartu egingo dute, Europako langileriaren zati handi bat –milaka migratzaile, barnekoak zein kanpokoak, herrialde periferikoe-tako arpilatze esperimientuen eta gerren ondorioz sorturikoak– muturreko pobrezia egoeretara eta itxaropen faltara eraman baitute.

Baina, dakigunez, inperialismoak ez du aliaturik, interesak bakarrik. Horrek pitzadura sakonak irekitzen ditu Batasunean Brexit-a eragingo duena, adibidez, edo Erresuma Batuen artea 2019an finkatua. Haustura hori ulertzeko, gutxienez funtsezko bi elementu daude: lehenik, gizartearen gogaitasuna eta kohesio politikorik eza, eta, bigarrenik, krisi ekonomikoaren eta hegemoniak haustearen testuinguruan dauden kontraesanezko interinperialistak, jokoaren arauak hausten dituen mundu multipolarra gero eta modu nabarmenagoan agertzeagatik.

Alemania eta Frantziako Barne Produktu Gordinaren partaidetza (EBko jarduera ekonomikoa) %42koa da, eta bi herrialde horiek dira, Holandarekin batera, kapitalaren barne-ihesaren onura handiena jasotzen dutenak, hainbat txosten ofizialen arabera. Europa hegoaldeko herrialdeak, berriz, atzean daude, desindustrializazio-prozesuen eta espezializazio ekonomikoaren ondorioz.

Hegoaldeko herrialdeek bizirik iraun zezaketen, Mediterraneoko antzinako inperioei buruzko parke tematiko handi bat sortuz gero, azken finean, turismoaren errentetatik bizirik irauten aditu bihurtu ziren, nekazaritza devaluatua eta desindustrializazio gero eta handiagoa konpentsatzeko. Hala ere, ezin dugu inozoak izan, eta onartu behar dugu Grezian edo Espainiako Estatuan, pribatizazio anitzaren ondoren, monopolio handiak sortu dituztela, EBren testuinguruan jokatzeko jakin dutenak eta merkatu inperialistan jokatzeko dutenak. Telefónica, Unión Fenosa, Repsol edo Endesa bezalako kasuak ditugu adibide, sektore publikoaren pribatizazioen babesean sortuak. Eta finantza-sektorean, Felipe Gonzálezek orkestratutako banka publikoa bateratzeko prozesua nabarmendu dezakegu; Argentaria izenekoa, bi urte geroago pribatizazio-prozesuari ekingo ziona, 1999an BBVrekin bat eginez eta horri bere sektorean lehitzeko gaitasuna emanez. Prozesu horiek guztiak Europar Batasunak berak bere enpresaren arrakasta bermatzeko dituen eskakizunen babesean garatzen dira.

Ekialdeko herrialdeen kasuan, nabarmendu behar dugu bigarren mailako bazkide gisa bizirautea, NATOrentzat estrategikoki interesgarriak direnak Errusiaren aurkako presioan –horietako asko Aliantza Atlantikoan sartu ziren EBN sartu aurreko urrats gisa– eta eskuin muturra nabarmen handitu zen herrialde horietan, salbatzaile gisa saldu zituzten aliantza horiek eragindako atsekabearen ondorioz, aliantzak herrialde horien suntsipenean zuzenean edo zeharka inplikaturik egon ziren arren. Komunismoaren kriminalizazioaren eta jazarpenaren aurrean, ezker ahul batekin, eskuin muturreko indar horiek dira, izaera nazionalista duen diskurtso populistak baten bidez, etorkizunik gabe eta galduta dagoen langileriaren babesa jasotzen ari direnak.

Era berean, ikusi dugu Europako bi potentzia nagusiak COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko moduari dagokionean ibili direla norgehiagokan. Horrela, Frantzia Italiarekin eta Espainiako Estatuarekin lerrokatu zen, Alemania Holandatik gertuago geratu zen bitartean. Nolabait, gatazka hau arazo ideologiko baten gisara saldu ziguten, zeinean Frantziak herrien arteko elkartasuna lehenesten zuen, Alemaniak harmonia ekonomikoa defendatzen zuen bitartean. Antza denez, «idealismoaren» eta «pragmatismoaren» arteko norgehiagoka.

Egia esan, bi potentziek interes desberdinak dituzte eta izan dituzte Europar Batasunari dagokionean; hala ere, beren botere-lehiak berekin dakar, orain arte behintzat, egitura horri eustea, haren onurak jasotzen jarraitzeko.

Europako bi potentzien arteko desadostasun horren adibide gisa, analista batzuk bat datoz esatean Frantziak euroaren inguruan zuen asmo nagusia izan zela dolarraren eta Alemaniako markoaren hegemoniaren mendeotasun monetarioari amaiera ematea, eta dolarrari aurre egin ahal izango zion erresebakoa moneta globala ezartzea. Alemaniaren egoera bestelakoa zen. Alemania haren esportazioengatik nabarmentzen den herrialdea da; horrek haren monetaren gehiegizko balioespina eragiten zion, eta, beraz, bere esportazioen garestitzea eta bere merkatua txikitzea eramaten zuen. Testuinguru horretan, merkatu komun batek eta moneta komun batek bermatu diote Alemaniari esportazioak ziurtatzea, eta erkidegoko lurraldean bertan merkatu seguru bat bermatzea. Era berean, beste elementu batzuk baliatu ditu, hala nola industria garatzeko euroguneko beste herrialde batzuetan soldata baxuagoak izatea, etab.

Alemaniaren plana garaile nabarmen azaltzen bada ere, ezin dugu ahaztu Frantziako planteamen-

**EB ez da gai Europako herrien benetako arazoak konpontzeko. Besterik gabe, ez dago bere izaeran**

**Europar Batasuna klase-borrokaren eta sozialismoaren arrakastaren aurkako erreakzioaren alaba da. Inperialismoari etxetik ekin behar zaio borrokan**

duaren barruan euroa ez dela hain gaizki geratu, nahiz eta hainbat faktoreren ondorioz ez duen azken helburua lortu. Edonola ere, planteamendu bakar batek ere ez du zerikusirik herrien Europarekin, ezta elkartasunarekin ere.

Horrela, Europako krisi handiak, Brexit-a alde batera utzita, hala nola krisi ekonomikoa eta Greziako kasua edo egungo koronabirusaren krisia interes horien arabera konpontzen saiatu dira beti, eta horrek azaltzen laguntzen du zergatik ez den EB gai Europako herrien benetako arazoak konpontzeko. Besterik gabe, ez dagoelako bere izaeran.

Krisi ekonomikoa eta, batez ere, Greziako krisia negozio errentagarria izan zen asmo horientzat, eta berriz ere, koronabirusaren krisia izango da, herrialde kideen zorraren igoeraren ondorioz. Horrek, lehenik eta behin behintzat, euroguneko dependentzia indartuko du, hori izango baita «elkartea» salbatzeko modu bakarra.

**«EUROPAREN ELKARTASUNA EZ DA EXISTITZEN. TXINA DA LAGUNDU GAITZAKEEN BAKARRA»**

Aleksandar Vučić Serbiar Errepublikako presidentek martxoan salatu zuen Europak ez ziola bere herrialdeari lagundu nahi izan mundua astintzen ari den osasun-krisiaren erdian. Era berean, nabarmendu zuen Txinak bakarrik erantzun ziola berehala eskaerari, eta laguntza hori eman ziola. Italiarekin ere gertatu zen hori, Txinako laguntzaz gain, mediku brigadista kubatarren laguntza ere jaso baitzuen. Afrikako herrialdeetan ebola desagerrarazteko laguntza eman duten medikuak, edo

Siria bezala erasotutako herrialdeetara joan direnak laguntza solidarioa berriro ere eskaintzera.

Hilabete hauetan ikusi dugu, halaber, EBko ki-deek osasun-materiala elkarri lapurtzen ibili direla, eta *koronabonoak* bezalako laguntza-proposamenak helduko direla zerga-neurri gisa gauzatu ezin diren paketeekin. Berriro ere, horrek guztiak ezin gaitu harritu; izan ere, ez dago Europako Estatu Batuei buruzko propaganda egiten hamarkadak daramatzan horren izaeran, elkarri «bazkide» deituz, eta ez «anai-arreba», «aberkide» edo «kide».

Gogoratu behar dugu Greziako krisiaren aurrean, Tsiprasen Gobernuak Errusiaren eskaintza bat jaso zuela bere bazkideak egiten ari zitzaizkion xantaiari aurre egiteko. Gogora dezagun Greziako herriak EBri «ezet» esan ziola, eta gogora dezagun, halaber, Europako ezker iraultzaile hori ordezkatzera etorri zen «politika berriaren» gobernu horrek –hainbesteko beldurra ematen zuen ezen mila egitura sortu behar izan zituzten, EEE barne, hura garaitzeko– bere herria traizionatu zuela eta gaur egun Grezian eskuinak berriro gobernatzen duela.

Iritsi da garaia ezker iraultzaileak, eta batez ere Europako herrietako Mugimendu Komunistak, bere burua berrantolatzeko, bere historia gogoratzeko eta EBren proiektu inperialistaren aurkako borrokan lekukoa hartzeko.


Une honetan, mundu multipolarra zabaltzen ari da, eta inperialismoa –baita europarra ere– ahultzen ari da; orduan gogoratu behar dugu Europar Batasuna klase-borrokaren eta sozialismoaren arrakastaren aurkako erreakzioaren alaba dela. Inperialismoari etxetik ekin behar zaio borrokan. /

ERREPORTAJEA

# «5Ga, etorkizuna zelatan»

Testua  
Ilustrazioa

Arteka  
Itsasne Ezkerro






**M**ende erdia beteko da laster *La Naranja Mecánica* (Clockwork Orange) filma pantailetara iritsi zenetik. Lan distopiko horretan, medikuntza psikologikoan garatutako aplikazio teknologikoen bidez, Alex Delarge gaizkile gaztearen jokabidea aldatu nahi dute; drogetan, sexuan eta, bereziki, indarkerian murgildutako gaztea. Bestalde, Delargek musika klasikoarekin, Beethovenen lanekin batik bat, duen zaletasun metaforikoa aurkeztu digu pelikulak. Klasizismo vienarraren ordezkari zen Beethoven pianista eta konpositorea. Alabaina, patologia bipolar bat ezkutatzen zuen, eta suizidioaren ertzeraino eraman zuen gorreriak. Autoritatearekiko eta klase sozialen sistemarekiko mespretxu argia ere sentitzen zuen. Filmak metodo freudiarraren eta

aurrerapen teknologikoaren bidez -estetika inhumano gisara aurkeztua- gizabanakoen portaera aldatzeko gogo hori islatzen du.

Aurrerapen teknologikoak, azken batean, Delargeren kliskada ukatuaren irudikapenetik urrun, gizartearen harreman sozialak eta kognitiboak kontrolatzeko estrategia argia erakusten du, egunerokotasunean ezkutatua. Baita ekoizpen-sistema aldatzekoa ere, laugarren industria iraultza deritzonaren bidez. Gauzak horrela, lortuko al du sare mugikorren bosgarren belaunaldiak (5G) gure harremanen eta inguratzen gaituen guztiaren automatizazioa gauzatzea? Nork irabaziko du bere ezarpenak ireki duen lehia geopolitikoa? Eta, finean, zertarako erabiliko da?



## SARE MUGIKORRAK, BOSGARREN BELAUNDIRA ARTEKO BIDEA

**A**urrerapen handia izan zen hirugarren belaunaldiko banda mugikorraren agerpena (3G); bai seinalearen kalitateagatik, baita konexio mugikorre dagokienez nazioarteko plan bat ezartzeko irekitako abagunea-gatik ere. Izan ere, Interneterako hari-rik gabeko sarbidea ahalbidetu zuen 3Gak, ahots nahiz datu bidez. Interneterako konexio azkarragoa, banda-zabalera handiagoarekin; horrek aukera asko zabaldu zituen, bai pertsonen arteko komunikaziorako, baita harreman komertzialetarako ere, *Internet Protocol* (IP Protokoloa) oinarri hartuta.


Esan bezala, hirugarren belaunaldiko garapenak abiaduran aurrera egiteaz gain, sare mugikorra ezartzeko eta garatzeko nazioarteko akordioak ekarri zituen. 2003an, Nazio Batuen Merkataritza eta Garapenari buruzko World Summit on the Information Society (UNCTAD) goi bilera ospatu zen. Izan ere, ekonomia, ekoizpen-eredua, ekoizpen-sarearen eraldaketa eta merkataritza-transakzioak ez zeuden komunikazio-sarearen ezarpen eta di-

seinutik kanpo.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologietarako Nazio Batuen erakunde espezializatuaren (ITU) 2019ko txostenaren arabera, munduko biztanleen % 97 seinale mugikor baten barruan bizi dira orain, eta % 93k 3G sare baten estaldura dute (edo handiagoa). Munduko biztanleen % 95 inguruk telefono bidezko estaldura daukate, eta % 64 inguruk hirugarren belaunaldiko sareetarako sarbidea dute, Interneterako sarrerarekin. Ehuneko hori bereziki esanguratsua da, 2008an % 20 ingurukoa zela kontuan hartzen badugu. Europa da Interneten erabilera-balio altuena duen eremua (% 82,5), eta Afrika da ehuneko baxuena duena (% 28,2). 2019aren amaieran, mundu oso-ko etxeen % 57k Interneterako sarbidea zuten. Hala ere, aipatutako datuekin alderatuta, eskuragarritasuna eta gaitasun digitalen falta dira, oraindik ere, Internet modu eraginkorrean hartzeko eta erabiltzeko oztopo garrantzitsuenak. Datuak jaso diren 84 herrialdeetatik 40tan, biztanleen erdiek baino gutxiagok dituzte oinarritzko gaitasun informatikoak. Dena den, haririk gabeko sareen hedapen azkarrak gora egin

**Hirugarren  
belaunaldiko  
garapenak  
abiaduran aurrera  
egiteaz gain,  
sare mugikorra  
ezartzeko eta  
garatzeko  
nazioarteko  
akordioak ekarri  
zituen**





# 5G

du belaunaldi berri bakoitzaren ondoren, eta planetako txoko guztietara iristea lortu da.

## **LAUGARREN BELAUNALDIKO SAREA, APP-EN AROA**

Laugarren belaunaldiaren agerpenak (2005) 1 Gbps-ko paketeak transmititzeko ahalmena handitzea ekarri zuen. Long Term Evolution (LTE) sistema da 4G sarearen euskarria, eta ize-nak berak adierazten duen modura, 3G sarearekin alderatuta, aldaketak barne bildu zituen konfigurazioari edota ezaugarriei dagokienez. Nagusiki, teknologia berrien garapenean inbertitzen duten konpainien arteko lehia areagotu zuen. ITUren datuen arabera, ezarri eta hamarkada horretan, Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundeko (OECD) herrialdeek IKTetan egindako inbertsioa inbertsio osoaren % 11 eta BPGren % 2,3a izan ziren.

Gorakada esponentzial horren arrazoia da 4Garen etorrerak informazioa modu dinamiko eta eraginkorragoan eskuratzeko gaitasunean aurrerapen nabarmenak ekarri zituela, eta, beraz, zerbitzuak hobetzen hasi zela; ezinbestekoa izan zen hori merkatua hainbat

esparrutan gara zedin: bereziki app-etan, gaur egun merkataritzarako eta finantza-jardueren garapenerako tresna ukaezinak baitira. Era berean, IP-aren gaineko ahots gaitasuna ahalbidetu zuen (Internet protokoloa erabiliz ahotsaren seinalea Internet bidez mugidari ahalbidetzen duen baliabide multzoa da). Horri esker, Internet konexio bidez garatu daitezke deiak eta bideo deiak. Azken hori, azken hilabeteetan, ezinbesteko elementu bihurtu da gizarte-harremanetarako, irakaskuntzarako edo eta telelanerako. Izan ere, laugarren belaunaldiak aurreko belaunaldiaren aurrean kontsumo ohiturak aldatu ditu, eta, horren ondorioz, ahots bidezko komunikazioaren zentralitatea multimedia komunikazioaren truke aldatu da. ITUren datuen arabera, 2018an, munduko biztanleen % 51k zuten jada sare horretarako sarbidea.

## **5G SAREA, EDO GAUZEN INTERNETA**

Datuen bat-bateko transmisio horrek sare mugikorren bosgarren belaunaldiak duen gaitasuna ezaugarritzen du. 5Garen hedapenaren helburua deskarga abiadura handitzea da, es-

**Laugarren belaunaldiak aurreko belaunaldiaren aurrean kontsumo ohiturak aldatu ditu, eta, horren ondorioz, ahots bidezko komunikazioaren zentralitatea multimedia komunikazioaren truke aldatu da**

## Teknologia berriak aurre agerian utziko duen funtsezko gaitasunetako bat lokalizatzeko gaitasuna izango da, eta, adierazi bezala, erabiltzaileen zehaztasun geografiko zehatza lortuko du

taldura faltarik ez duen haririk gabeko mundu baten bidez. Horregatik, World Wide Wireless Web (WWWW) izena eman zaio – Munduko Haririk Gabeko Webgunea –. Energia Turismoaren eta Agenda Digitalaren Espainiako Ministerioaren 5G 2018-2020 Plan Nazionalaren txostenaren arabera, «5G sareak eta zerbitzuak sartzearen inpaktu-itxaropenak egungo komunikazio-azpiegitura mugikorren ahalmenetan txertatzen dituen berrikuntza teknologikoetan oinarritzen dira». Zehazki, txostenaren arabera, 5G sareek honakoa erraztuko du:

- Abiadura eta gaitasun oso handiko banda zabal mugikorra, 100 Mbit/s-tik gorako eta 1 Gbit/s-ko puntako mugikortasun-abiadurak erraztuko dituen; horri esker, adibidez, definizio handiko edukiak edo errealitate birtualeko esperientziak eskaini ahal izango dira.

- Komunikazio ultra fidagarriak eta latentzia txikikoak, milisegundo 1 (ms) ingurukoak, 4G sareen 20-30 ms-en aldean. Baldintza hori egokia izan daiteke eremu horretan berariazko eskakizunak dituzten aplikazioetarako; hala nola, ibilgailu konektatua edo ibilgailu autonomoa, telemedikuntzako zerbitzuak, denbora errealeko segurtasun eta kontrol-sistemak edota fabrikazio adimenduna.

- Komunikazio masibo maizkoenak (M2M). Konexio simulatu asko kudeatzeko gaitasuna handituko da, eta horrek, besteak beste, sentsoreen hedapen masiboa, *gauzen Interneta* (*Internet of Things, IoT*) eta *big data* zerbitzuen hazkundera ahalbidetuko ditu.

Aipatutako 5G Plan Nazionala Europar Batasunak 2016ko apirilean

onartu zuen Europarako 5G Ekintza Plana betetzera dator, «areagotzen ari den teknologiarene garapenean, Europako lehiakortasuna hobetzeko». Izan ere, honi ondoren helduko badiogu ere, teknologia horren garapenak eta aplikazioak erlojuaren kontrako lasterketa abiatu du Ameriketako Estatu Batuen eta Txinaren arteko gerra irekian.

Europar Batasunak 5G Ekintza Planean 5G sarea estatu kideetan hedatzeko betebeharra ezarri zuen. Hala, 2017ko uztailean, Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko Ministerioak, Europako homologoekin batera, 5G-ari buruzko Lantegiko Ministerio Adierazpena sinatu zuen. 2020an, Europar Batasuneko herrialde guztiek «estatuko hiri nagusi bat» hornitu beharko dute teknologia horrekin, eta 2025ean hedapenak «erabatekoa» izan beharko du. Txostenaren arabera, sareak behar dituen inbertsioak 910.000 milioi euro gehiago dira Europarentzat, «inbertsio hori gabe ez da lortuko merkatu digital bakarra, eta Europa AEBen eta Txinaren atzetik geratuko litzateke munduko teknologian nagusitzeko lasterketan».

Inbertsio horrek ez du eraginkortasunik inbertsio pribaturik gabe; izan ere, uhinek ez dute hain tarte handia, eta oztopoek ia erabat xurgatzen dituzte; ondorioz, errepikagailu asko behar dira eremu hedatuak estaltzeko. 5G-aren hedapenean, 26 Ghz-ko bandan, transmisio-frekuentzia handienak erabiltzea aurreikusten da, eta, aldi berean, transmisio askoz ere azkarragoak egitea ahalbidetzen dute. Hala ere, seinalearen irismena murrizta izango da eremu irekian, eta oso sentikorra oztopoen aurrean. Horregatik, sarbide-sare oso bat behar da, distantzia txikiagora. Neurri batean, geolokalizazio zehatzeko gaitasuna ematen du, errepikagailu bakoitzera konektatutako gailuen metro bat baino gutxiagoko kokapen-informazio zehatza lortuz. Hori dela eta, teknologia berriak aurre agerian utziko duen funtsezko gaitasunetako bat lokalizatzeko gaitasuna izango da, eta, adierazi bezala, erabiltzaileen zehaztasun geografiko zehatza lortuko du.

Ministerioaren txostenaren arabera, sare hori zabaltzeko herrialde gehienek aukeratutako eredu hau izango da: azpiegiturak kokatzeko eta elkarrekin erabiltzeko borondatezko akordioak egiten dituzten operadoreei aukera ematea. Horrek guztiak zuntz gehiago zabaltzea eta ehun metrotik behin errepikagailuak instalatzea ekarriko du, lurralde osoa estaltzeko. Eta administrazio publikoa behartuko du hain intentsitate handiko espektro erradioelektrikoaren kudeaketa ziurtatzera, banda-zabalera askatu beharko baitu.

Konektatutako gailuen geolokalizazio-gaitasunerako eta igortzen dituzten datuen kudeaketarako zehaztasun horrek polemikak sortu ditu dagoneko frogatutetan. *El Salto Diario* egunkariak *La red 5G, un paso hacia la sociedad telegestionada* artikuluan adierazten duenaren arabera, Facebooken jabetzako software patentea publiko egin eta, denbora gutxira, gure telefonoen mikrofonoaren bidez giro-soinua urrunetik entzuteko teknologia erabiltzen hasi zenetik, gora egin dute zenbait produkturi buruz hitz egin ondoren publizitatea jasotzen duten erabiltzaileen salaketek. Beste adibide bat da Espainiako Futbol Liga Profesionala zigortzen duen epaia: teknologia beraren bidez zelatatu zituen erabiltzaileak, telebista-emanaldi pirata bat ikusten ari ziren jakiteko.

Era berean, Los Angelesekin Prepol izeneko software informatiko berri bat eskuratu zuen duela urte batzuk. Kriminari buruzko estatistika ugari oinarri hartuta, delituak auzoz auzo eta kalez kale egiteko probabilitatea kalkulatu du. *The New Digital Age* Google-ren sortzaileetako baten liburuak honako hau dio: «Beraz, terrorismoaren aurkako neurri gisa, Gobernuak pertsona ezkutuen fitxategia eraikiko du [...] araudi partikular oso baten menpe egon ahal izango direnak, erregistro zorrotzak edo bidaia-murrizketak barne».

#### 4.0 INDUSTRIA

Sare mugikorren bosgarren belaunaldiak ekoizpen-ereduan eragin-

**Facebooken jabetzako software patentea publiko egin eta, denbora gutxira, gure telefonoen mikrofonoaren bidez giro-soinua urrunetik entzuteko teknologia erabiltzen hasi zenetik, gora egin dute zenbait produkturi buruz hitz egin ondoren publizitatea jasotzen duten erabiltzaileen salaketek**

## Ekoizpenaren eraldaketa digitala. Produkzio-katean datuak motorizatu eta eskuratuz eta robotak urrutitik kontrolatuz, produkzio-prozesua optimizatzen da, bai eta banaketa eta logistika hobetzen ere

go duen aldaketak laugarren industria-iraultza ekarriko duela baieztatu du batek baino gehiagok. Lehenengo iraultzak mekanizazioa eta energia erauzteko metodo berriak ditu ezaguturik; bigarrenak, masa-ekoizpena eta elektrizitatearen erabilera; hirugarrenak, ordenagailuen erabilera eta automatizazioa; eta laugarrenak, sistema ziberfisiko adimendunak. 4.0 industria, adimen artifizialean oinarritutako industria.

5Gak, *gauzen Interneta* ere deitua, tresna ezberdinen arteko elkarrekintza ahalbidetzen du, euren kabuz jarduten duten arren, informazioa bilduz elkarrengandik komunikatzen eta ikasten dutenak. Horretan guztian berebiziko garrantzia du bosgarren belaunaldiko sarearen transmisio-abiadura handiak. Horregatik, ondorengo bereizgarriak ditu 4.0 industriak:

- Ekoizpenaren eraldaketa digitala. Produkzio-katean datuak motorizatuz eta eskuratuz eta robotak urrutitik kontrolatuz, produkzio-prozesua optimizatzen da, bai eta banaketa eta logistika hobetzen ere.

- Azken horri lotuta, garraio adimentsua ahalbidetuko du, kanpoko ingurunea denbora errealean kontrolatuz. Horrela, trafikoa kudeatzea eta banaketarako ibilbideak hautatzea erraztuko du.


- Sarearen multimedia-aplikazioak mugikortasun-aplikazioen garapen optimizatua ahalbidetuko du; hala nola, errealitate areagotuaren edo errealitate birtualaren bidez. Aldi berean, lurralde adimendunen kontzeptua garatuko du, interkonexio-korridore digitalak ahalbidetuz.






### TXINA ETA AMERIKAKO ESTATU BATUAK, 5G-AREN LEHIA

Lasterketa bizian aurkitzen da egungo agertoki geopolitikoa: nork garatuko teknologia berriena, nork irabaziko telekomunikazio-teknika horien monopolioaren gaineko gerra, nork eskuratuko sare sozial masiboen kontrola... Duela gutxira arte, AEBen baitako enpresen edota korporazio estatubatuar eta europarren arteko lehiara mugatu da aurrez aurreko hori. Horrexegatik dira ezagunak IBM, Apple, Microsoft, Google, Facebook eta 1&1 bezalako markak. Txinak, bitartean, fabrikatzaile merkearen rola jokatu ohi zuen lehia monopolistan, eta bazirudien lanaren nazioarteko banaketa horrek merkatuaren baitako indar korrelazioan atzean uzten zuela, garai-leen piezak muntatzera kondenatuta. Domeinurako estrategia propiorik gabeko aktorea omen zena, ordea, *Aurre-rako Jauzi Handia* prestatzen baino ez zebilen telekomunikazioen arloan ere. Hala iragarri zuen 5G teknologiaren puntako garapena aurkeztu zuenean, eta ez aurrerapen kualitatibo soil gisa: 5Garen inplementazio merkeena erdietsi du dagoeneko erraldoi asiarrak, termino ekonomikoetan ere berea baita apustu lehiakorrena.

Hori zentzu ugaritan izango da kolpe bat hegemonia estatubatuarrarentzat. Lehenik eta behin, merkatu-kuota izugarriak galduko ditu bloke inperialista anglosaxoiak; gaur arte jaun eta jabe ziren enpresek teknologia propioa garatu beharrean 5G txinatarrak erosi beharko dute, euren etxetik hasita. Izan ere, Europaren kasuan, Espainiako Estatua laborategi gisa baliatzen ari dira


**5Garen inplementazio merkeena erdietsi du dagoeneko erraldoi asiarrak, termino ekonomikoetan ere berea baita apustu lehiakorrena**







**AEBetako Estatuko Idazkari Gehigarri den Robert L. Strayerrek otsailean mehatxu argia egin zien Espainiako Kanpo eta Ekonomia eta Aurrerakuntza Ministegietako ordezkariari: Telefónica, Orange eta Vodafone bezalako operadoreek Huawei-en teknologia baliatzen jarraitu ezkerro, amerikarrek haiekin inteligentzia eta segurtasuneko informazioa partekatzeari utziko diotela**



Vodafone eta Telefónica bidez 5G berrikuntzak txertatzeko. AEBetako Estatuko Idazkari Gehigarri den Robert L. Strayerrek otsailean mehatxu argia egin zien Espainiako Kanpo eta Ekonomia eta Aurrerakuntza Ministerioetako ordezkariari: Telefónica, Orange eta Vodafone bezalako operadoreek Huawei-en teknologia erabiltzen jarraituz gero, haiekin inteligentzia eta segurtasuneko informazioa partekatzeari utziko diote amerikarrek. AEBak, galera ekonomikoengatik kezkatuta egoteaz gain, beldur dira Txinak ez ote duen teknologia horri esker bere eraginpeko gunetan espioitzarako eta eraso zibernetikoak egiteko gaitasuna irabaziko. Espainiako Estatuarekin egin modura, hamaika herrialde estutu dituzte hainbat hilabetez, Huawei-ekin eta 5G teknologia eskaintzen duten beste hainbat enpresa txinatarrekin akordioak sinatu ez zitzaizten. Jokaldia ez zaie nahi bezala aterea ordea, Europar Batasunak eta Erresuma Batuak oztopoak jarri baitizkiote betoari. Horren lekuko da operadore espainiar nagusiek Huawei eta ZTE-rekin mantentzen duten harreman estua. Hala eta guztiz ere, dependentzia apurka-apurka murriztea adostu dute autoritate amerikarrek. Telefónicaren kasuan, Huawei-k bere egungo sareen muinak kontrolatzen ditu. Vodafone eta Orange operadoreen kasuan, berriz, Estatuan jarrita dituzten antenen heren batek gutxienez txinatar teknologia du.

Ondorioz, nazioartean izen ona irabazten ari da Pekin. Atzean geratu dira kalitate eskaseko enfabrikatzen bazarra osatzen zuen egunak. Puntako teknologia mahaigaineratzeko gaitasuna erakutsi du dagoeneko, mendealdeko enpresa ugari haren esanera daude eta, Huawei zigortzeko saiakerak agerian utzi dutenez, gainontzeko lehiakideek lupaz behatzen dute txinatarren pauso bakoitza. /



# POETAREN EXISTITZEKO ESKUBIDEA

Testua **Aitor Bizkarra**  
Irudia **Zoe Martikorena**

**A**gatonek gaur egun literatur sariketa izendatuko genukeen norgehiagoka bat irabazi du bezperan, eta ospatze aldera, bere etxean oturuntza egitera gonbidatu ditu bere lagun jakintsu agurgarriak. Fedro, Pausanias, Aristofanes, Eriximako eta Sokrates dira aipagarrienak. Barrenak ondo berdindu eta batera, hasi da Eriximako esanez behin eta berriro jarduten zaiola Fedro galdezka, zergatik poetek, beste hainbat jainkori ereserkiak eskaini dizkioten horiek, Eros jainkoari gorazarre-rik egiten ez ote dioten. Eriximakok, Fedrok arrazoi duela iritzirik, gainontzeko afaltiarrek konbentzitu ditu: maitasunari buruzko diskurtsoak botako dituzte banan-banan eta Eros jainkoa merezi duen neurrian ondratuko dute.

Hartu du hitza Fedrok eta, Hesiodo eta Parmenides autoritatezko argudio gisa erabiliz, esan du ez dela ezagutzen Eros baino jainko zaharragorik, hura dela antzinakoetan antzinakoena eta hori badela goreszteko aski motibo eta, hori gutxi balitz, Erosek eragindako adoreagatik egiten diren ekintza bertutetsu eta ederrek ere ez daukatela parekorik, ostantzean, begiratzeko Akiles, oin arinekoa, zeinak Patrokloren heriotzagatik mendeku hartu baitzuen, bazekien arren mendeku hartuz gero hil egingo zela.

Pausaniasek hartu du hitza ondoren, eta erantzun dio Fedrori Eros ez dela bakarra, bikoitza baino. Badagoela Eros eder eta goresgarri bat ederkiro eta bertutez maitatzera garamatzana, baina, bada, halaber, beste maitasun bat zatarra dena, gizon traukilek erabilia eta Eros trakets batek eragina. Bakarra zen Eros Fedroren hitzetan, bikoitza Pausaniasenetan, eta hara non etorri den Eriximako medikua esanez gizonengan soilik ez, existitzen den ororengan eragina duen indar unibertuala dela Eros,

hala jainkoengan nola hilkorrengan, hala medikuntzan nola musikan eta landareetan. Atzetik etorri da Aristofanes eta mito ero bat kontatu du. Ez gara sartuko.

Agatonek hartu du hitza gero eta, Fedrorekin desados, gauza interesgarri bat esan du: Eros ez da eta ezin zitekeen izan jainkoetan zaharrena. Antzina-antzina, Ateneak ehungintza eta Apolok medikuntza asmatu aurretik, Zeus gizonak eta jainkoak gobernatzeko artean trebatu zedin baino lehen, gauza lazgarri eta beldurgarri asko gertatu zen jainko-jainkosen artean (adibidez, Kronosek barrabilak moztu zizkion Uranori eta itsasora jaurti zituen eta eragin zuen aparretik jaio zen Afrodita), Beharrizana edo Beharrezkotasuna (*Anánkē*) zelako jaun eta jabe. Eros jaio zenean, orde, kosmosaren printzipio egituratzailearen desplazamendu bat gertatu zen, eta gauza ederrenganako maitasunaren printzipioaren arabera sortu ziren jakintza eta ondasunak, Beharrianarenaren arabera sortu beharrean.

Diskurtso hauen guztien ondoren iritsi da Sokratesek afaltiar guztiak aho zabalik uzteko unea. Sokratesek, ironia kutsua daukan umiltasunez, bere diskurtsoa Diotima izeneko emakume jakintsu bati ikasia dela adierazi du. Sokrates-Diotimarenak, oro har, gainontzekoen hitzaldiak hankaz gora jarri ditu, baina guk puntu bati soilik erreparatuko diogu. Eros gauza eder eta onenganako maitasuna bada, eta ezagutza, esaterako, ona eta ederra bada, zergatik ez zaio maitale deitzen ezagutzarako joera duenari? Bada, hain zuzen, maitasun mota partikular bat besteetatik bereizi eta osotasunaren izena esleitu diogulako, beste motentzat beste izen batzuk erabiltzen ditugun bitartean. Gainera, hau ez da soi-



## Dena den, artearen eta artisautzaren erro komuna oso presente zeukaten, biak ala biak baitziren gauzak ez-izatek izatera igaroarazteko ariketak: zentzu hertsian rapsoda bat ez zen altzarigile bat baino poetago

lik maitasunarekin gertatzen:

**“DIOTIMA:** Zuk badakizu «sorkuntza» (*poiēsis*) ideia anizkoitza dela, izan ere, edozein gauza ez-izatek izatera igaroarazten duen kausa oro baita sorkuntza eta, beraz, arte guztietan egindako lanak dira sorkuntza, eta horien artifizak sortzaile (*poiētai*).

**SOKRATES:** Arrazoi duzu.

**DIOTIMA:** Baina, badakizu, baita ere, ez zaiela sortzaile esaten, beste izen batzuk dauzkatela, eta sorkuntzaren multzotik parte bat bereizi dela, musikari eta bertsoari dagokiona, eta osotasunaren izenarekin izendatzen dela. Hain zuzen, soilik horri esaten zaio «poesia», eta, «poeta» sorkuntzaren zati horren habe denari.”

Honaino kontatu ditudanak Platonen *Oturuntza* (ezagunagoa jatorrizko grezieraz *To Symposion* edo gazteleraz *Banquete*) dialogotik atereak dira, eta honaxe aldatu ditut estetikari eta sorkuntzari buruzko ohar pare bat egiteko lagungarri izango direlakoan. Atentzioa ematen duen lehenbiziko aspektua zera da, Platonen kosmobisioan eta oro har garaiko Greziako kosmobisioan, dimentsio estetiko, etiko/politiko eta epistemikoa teilakatuta edo inbrikatuta ageri direla normalki, edozein diskurtso eta praktikaren osagai gisa. Egiazkoa dena ederra eta ona ere izan ohi da; Erosek, ederra dena maite izateko, bertutetsua dena ere behar du maite izan. Halandaxe, azpimarragarria da Aristotelesen tragedia grekoari egozten zion funtzio katartikoa, komunitate politikoaren hezitzaile gisa, edo, Platonen testuetan

forma dramatiko eta eduki epistemikoa zenbateraino ageri diren bat-eginda. Ikuspegi garaikidetik, ordea, kode etiko bati edo legedi zehatz bati eder iriztea, Sokratesek *Oturuntza* lerro batzuk beherago egiten duen gisan, zentzugabekeria edo in-tromisio kontzeptuala irudituko litzaiguke kasurik onenean, Duchampen txizatokiari buruz justua eta bertutearen araberakoa dela esatea lekuz kanpo legokeen era berean. Prozesu sozial material beraren efektu izanda ere, ukaezina da esfera estetikoaren, etiko/politikoaren eta epistemikoaren arteko urrun-tze behintzat formal bat gertatu dela.

Urruntze behintzat formalekin jarraitzeko, egun hain modakoa den *sortzaile* kontzeptua interpretatzeko ere argigarri gertatzen da kosmobisio klasi-koaren eta garaikidearen arteko alderaketa. Diotima eta Sokratesen arteko elkarriketak garbi erakusten du garai hartan ere ohikoa zela *sorkuntza* hitzarekin sorkuntza mota bakan batzuk soilik izendatzea, gaur egun sinekdoke deituko genukeen figura erretorikoaren bitartez, hots, zatiari osotasunaren izena emanez. Dena den, artearen eta artisautzaren erro komuna oso presente zeukaten, biak ala biak baitziren gauzak ez-izatek izatera igaroarazteko ariketak: zentzu hertsian rapsoda bat ez zen altzarigile bat baino poetago. Gaur egun, ordea, ekoizpen arruntaren eta arte ekoizpenaren erro komuna lausotuta soilik ez, ia ezabatuta ageri dela esango nuke, arte ekoizpena ekoizpen arruntaren antitesi gisa aurkezteraino. Ekoizpen eredu kapitalistan indar plastikoa edo forma emateko gaitasuna daukan subjektua, ekoizpenaren nondik-norakoak eta emaitza determinatzen dituen, hitz batean esanda, *sortzailea*, ez da inondik ere ekoizle zuzena, ekoizpen bitartekoen jabe den klasea baizik. Kontrara,

## Badirudi berriz mahai gainean dela Platonek berak *Errepublikan* mahaigaineratu zuen auzi hura: poetaren existitzeko eskubidearen auzia

arte ekoizpenean, ekoizle zuzena eta sortzailea bat eta bakarra direla irudi luke eta, gainera, ostantzeko langileek, Eros jaio aurretiko jainko-jainkosa grekoek nola, Beharrian erregimen batean ekoizten duten bitartean, artistek edertasunaren printzipio erotikoaren arabera dihardutela, objektuari beren lege propioa inposatuz.

Dena den, badirudi idealki baino ez dela arte ekoizpena edertasunaren printzipioaren arabera soilik funtzionatzen duen ekoizpen eredu bat; izan ere, gero eta ugariagoak dira mundutxo horretan Beharrianaren presioak muturra gehiegi sartzen duelako asaldu direnak, normala den moduan. «Kultur sortzaile» autoizendatuen proletarizazio prozesua ageriko egitate gordin bat da eta ez dut inondik ere inoren lepotik barre egiterik gura, baina, sektore honetako langileen existentzia eskubidea balizko funtzio sozial edo izpiritual baten izenean aldarrikatzea, *in abstracto*, partida jokatu aurretik galtzea da -eta, agian, BPGan sektore honek ordezkatzeko duen zati ñañoaren isla inbertitua-, batetik goratze izpiritualik eragiten ez duena ez litzatekeelako sorkuntza eta, bestetik, ez dagoelako oso argi goratzeak eta izpirituak zehazki zeri egiten dioten erreferentzia (nahi bada, jarri «izpiritu» ordez «barne mundu» eta «goratu» ordez «elikatu»). Badirudi, berriz mahai gainean dela Platonek berak *Errepublikan* mahaigaineratu zuen auzi hura: **poetaren existitzeko eskubidearen auzia**.

Masentzako kultur industriaren aurrean ekoizle txikiek daukaten babesgabetasuna kontuan hartzen badugu eta horri gehitzen badizkiogu azken aldiko indize ekonomiko apokaliptikoak eta Europar Batasunaren gainbehera geopolitikorako joera geroago eta nabariagoa, zaila da hurrengo metaketa

ziklorako diru laguntza sistema publiko batean eta kontsumitzaileen erosahalmenean oinarrituriko «kultur ekosistemarik» irudikatzea. Sistema ekonomiko eta sozial honek soilik bere buruari aitortzen dio existitzeko eskubidea eta, gainontzekooi, hura betikotzeko funtzionalak garen heinean baino ez. Horregatik, ekoizpenaren gaineko kontrolaren borrokan jokatzeko da hemen benetako bataila poetikoa, *poiēsis*-aren gaineko kontrolarena, eta, poetek, Benjaminek zioen moduan, ekoizpen prozesuan daukaten posizioaren arabera hautatu beharko dute bandoa, ez gizatasunari ustez egiten dioten ekarpen izpiritualaren arabera.

Artistak, proletario gisa, bere bizi baldintza inmediateen hobekuntza borrokatzen du, baina, proletarioak, artista gisa, bizi baldintzen estetizazio unibertsalaren aldeko borrokari heldu beharko lioke, komunismoaren aldeko borrokari. /

**ELKARRIZKETA**

Saioa Sanchez

# «Dena dago araututa eta errutina horrek norbera ez irensteko borroka egin behar da»

Testua  
Irudia

Arteka  
Zoe Martikorena







**Saioa Sanchez Iturregi euskal preso politikoa Nanteseko kartzelan dute gatibu. Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideen bitartez jarri gara berarekin kontaktuan, kartzelako bizitzaz eta eskubideen urraketak ezaugarritutako koiunturak bizitza horretan izan duen eraginaz galdetzeko. Elkarrizketa Patxi Ruiz gose greban zegoela egin genuen. Horregatik, galdera batzuek uneko egoerari erantzuten diote. Hala ere, eduki politikoak gaurkotasuna izaten jarraitzen du, egoera partikularra aldatu den arren, irakaspenak baititugu oinarri.**



**Nolakoa da presoaren bizitza?**  
**Zeintzuk dira eguneroko errutinak**  
**eta horietan txertatuta dauden**  
**kontrol mekanismoak?**

**P**resoaren bizitza kartzelaren araberak alda daiteke, baina oro har errutinak oso markatuta daude. Jatorduak, patio orduak, telefonoz deitzeko orduak... Dena dago araututa eta errutina horrek norbera ez irensteko borroka egin behar da. Errutina batzuk edukitzeak segurtasuna ematen dizu, kalean gertatzen den bezala, baina aha-legina egin behar da bizi proiektuak elikatzeke, halabeharrez ez bizitzeko.

Inguruan daukazunak ere zure bizitza baldintzatzen du, presoak erabakiak hartzeko oso tarte murriztak dituelako. Espetxezainen jarrera, edo zuzendariarena, edo medikuena, erabakigarria izan daiteke zure bizimoduaren, zure osasunean, zure ikasketetan eta kanpoaldearekin mantentzen duzun

harremanarekin.

Kontrol mekanismoei dagokienez, lehen esan bezala, oso tarte gutxi gelditzen zaio presoari erabakiak hartzeko. Gainontzeko guztia kartzelaren esku dago. Preso sozialekin kartzelak erabakitzen dituen hainbat gauza, gure kasuan Parisek erabakitzen ditu, hala nola nor etor daitekeen bisitan edo kontrolerako neurri bereziak ezarri eta mantenduko dizkiguten (DPS, Détenu Particulièrement Signalé). Horren araberak, adibidez, ospitalerako irteerak ere baldintzatuta egoten dira ustezko segurtasunaren izenean.

**Nola bizi da COVID-19 pandemia**  
**kartzelan? Ze neurri hartu dira**  
**eta nola eragiten diote presoaren**  
**egoerari? Ondorio desberdinak**  
**eragin al dituzte preso komunen**  
**eta preso politikoaren gain?**

Batetik gaixotasunetik babesteko

oso neurri gutxi hartu dira. Egia da Frantziako Estatuak preso prebentiboak, kondena betetzear zeudenak, preso eriak eta beste batzuk askatzea onartu duela, baina horrek ez die preso politikoei eragin.

Hala ere kartzela barruan ia ez da neurririk ezarri. Espetxezainak maskararik gabe etorri izan dira hasiera batean, eta higiene neurriak mantentzea zaila da kartzelan, kalearekin konparatuta.

Bestetik, hartu diren neurriekin eskubideak murriztu zaizkigu. Ordu gehiago igaro ditugu ziegan, aktibitateak bertan behera utzi dituzte, bisi-tarik gabe utzi gaituzte, mediku espezialisten sarrera ukatua izan da... Gure isolamendua handitu dute. Badira aste batzuk bisitak egitea onartu dutela, baina 100 kilometro baino hurbilago-koentzat. Hemen gauden lau euskal preso politikoak bizkaitarrak izanik,



***Bestetik, hartu diren neurriekin  
eskubideak murriztu zaizkigu.  
Ordu gehiago igaro ditugu ziegan,  
aktibitateak bertan behera utzi dituzte,  
bisitarik gabe utzi gaituzte, mediku  
espezialisten sarrera ukatua izan da...  
Gure isolamendua handitu dute***

**«Amnistiaren Aldeko Mugimenduak suizidiora bultzatzen duela esateak ere ez du ekarpenik egiten, Patxiren borroka eta berarekiko elkartasuna despolitizatzea izan ezik»**

800 kilometro ingurura dugu etxea, eta gainera gure senideei Euskal Herria zatitzen duen muga inposatua pasatzea galarazten diete.

**Patxi Ruizek gose greban jarraitzen du. Bere egoera pertsonalarekin lotutako eskubideen aldarrikapenak egiteaz gain, aldarrikapen politiko desberdinak egin ditu, preso politikoen hurbilketa kasu edota eskubide horiek guztiak presoek kolektibo osoari zabaltzea. Zuk ere berak salatutako eskubide urraketak pairatu dituzu? Ba al dago alderik egungo testuinguruan?**

Patxi Ruizek salatzen dituen eskubide urraketak militante presoek ezarritako politikaren ondorio da, eta Patxiren aldarrikapenak, beraz, politikoak dira. Hamarkadatan zehar Euskal Herriak egindako aldarrikapenak izateaz gain, Patxiren egoerak kartzelaren krudeltasuna agerian utzi du, eta Patxik, berari ez ezik, gainontzeko eragiten digun errealitate bat azaleratu du. Gero ezberdintasunak egon daitezke kartzelaren arabera, baina kartzeletan gertatzen denaren atzean erabaki politikoak daude.

Testuinguruari dagokionez, momentuaren arabeko interes eta aldaketak egon daitezke, baina kartzela pertsonak apurtzeko tresna da beti.

**Nola ikusten duzu Patxik hasitako borroka kartzelan zein kalean jasotako babesa? Zein paper betetzen du honetan guztian preso politikoen borroka?**

Kaletik jasotzen dugun babesa oso garrantzitsua da kartzelan gaudenontzat, batez ere Patxi bizitzen ari dena bezalako egoera gogor batean. Oso positiboki baloratzen ditut kalean Patxi-erekiko sortu diren elkartasun dinamikak, oso beharrezkoak dira.

**EPPK-k barne biltzen dituen hainbat preso ere batu dira elkartasunera. Zure ustez eraginik izan al du horrek preso politikoen kolektiboan?**

Kartzeletatik abiatutako borrokei buruz, nahiago dut positiboarekin gelditzea. Garrantzitsua da egoera gogor batean dagoenari kidetasuna helaraztea, militante batengandik beste militante batengana. Kartzeletan mugitu diren preso politiko guztien elkartasun keinuak Patxirentzat garrantzitsuak direlakoan nago.

**Bada esan duenik Patxi Ruizek psikologo bat behar duela eta Amnistiaren Aldeko Mugimenduak suizidiora bultzatu duela. Presoaren izaera politikoa ukatzeko estrategia zaharra da, Estatuaren aparatuek hamaika aldiz erabilia. Jatorria, ordea, itxuraz desberdina da. Edo ez. Zein funtzio betetzen du halakorik zabaltzen duenak? Esan genezake etsaiaren lubakian kokatzen dela?**

Hasteko esan nahi dut psikologo bat behar izango balu, berak edo gutako edonork, ez dela txarra ezta lotsatzeko modukoa. Kartzelan gaude eta tentsio handia kudeatu behar dugu. Normalean inguruan ditugunengan babesten gara, baina psikologo bat behar izateak ez du



esan nahi errealitatea ezberdintzeko eta balorazio politiko zuzenak egiteko gaitasuna galtzea.

Agian batzuek Patxiren aldarrikapen politikoen errealitatea, benetan existitzen dena, estali nahi izan dute horrelako komentarioekin. Horrelakoak esan dituztenak preso ohiak izan badira, gainera, agian beraiek dira kartzelan egotea zer den, edo isolamenduan egotea zer den ahaztu dutenak. Edozein kasutan, haien burua kalifikatzen ari dira, eta ez Patxi. Gure egoeran garrantzitsua da medikuak gugandik hurbil izatea.

Baliteke batzuek ulertu ez izana Patxiren borroka moldearen gogortasuna, bere burua heriotzara gerturatzen ari delako, baina zalantzak badituzte, gaizki esaka ibili beharrean, badaukate kezka azaltzea eta berari galdetzea.

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak suizidiora bultzatzen duela esateak ere ez du ekarpenik egiten, Patxiren borroka eta berarekiko elkartasuna despolitizatzea izan ezik. Patxik erabaki batzuk hartu ditu eta Amnistiaren Aldeko Mugimenduak egin duena errespetatzea izan da. Egoera konpontzeko Patxik talde bat izan du bere ondoan, senideek, militanteek, medikuek eta abokatuak osatuta. Beraiek dira egoera berezi horretan ahal izan duten moduan bere ondoan egon direnak aterabide bat bilatzeko. /





# ERABAKI ZIURGABEAK

Testua **Ane Ibarzabal**  
Irudia **Gaizka Azketa**

**C**OVID-19 gaitzak langile klasearengan eragin handia izan du, heriotza tasa altuez gain, gaixotasunarekin jasan behar izan dugun elkarbizitza ez baita baldintza onenetan eman. Lanpostuen galerak, ordaindu gabeko alokairuak, ordu luzez tratu txarren emaila denarekin espazio murriztuak elkarbanatu beharra... Baina bada beste sentsazio orokortu bat, kudeaketa txarraren, burgesiaren interesen eta egia ez jakitearen ondorio dena: ziurgabetasuna. Ezegonkortasun egoera honek psikologikoki langile klasea zeharo kaltetu du, erabakiak egoera onenetan hartzen ez gaudenaren sentsazioa eta datorrenari aurre egiteko baliabiderik edo adorerik izango dugun ez jakiteak langile klasea ahultzen du. Ezegonkortasun egoeretan burgesiak langile klasearengan esku-hartzeko gaitasuna areagotzen da, ziurgabetasun egoera orokortu baten aurrean, segurtasun neurriak zorrozten, bizi baldintzak okertzen eta langile klasearen baitako arerio-tasuna bultzatzen du.

Orokortu den zalan-tza egoera honek, gazteria langilearen egunerokotasuna zuzentzen du. Erabaki ahalmen ahuleko eta, are gehiago, erabakiak hartzeko elementu gutxi eskaintzen zaizkion subjektua da gazteria. Ezegonkortasun egoera hauek normalizatu dute gazteriak iltze goriari heldu behar izatearen praktika, asumitua, eta, horrela, lan baldintzen egoera penagarria gure egiteraino edo erabakiak hartzeko eta egonkortzeko baldintzarik gabe, etxebizitza eskubidea ere ez betetzea ohikoa zaigu.

Aipatu dut pare bat aldiz, edo hirutan agian, gazte-merkatu baten existentzia. Bere horretan existitzen ez den gazte-merkatu bat, berariazko administrazioerik gabekoa, artikulatu juridiko gisa idatzitako erregularizazio legerik gabekoa, ez dena Lan-

bideko web orrian klikatu dezakezun leihatila bat, ez dena sindikatutako talde bat, patronalarekin sinatutako konbeniorik ez duena, edo nik behintzat inoiz horrelakorik sinatu. Baina badituena, ordea, berau erregulatzen duten hainbat lege orokor eta burgesiari bereziki emankorrak zaizkion ezaugarri batzuk. Zerrendatuta egongo dira ezaugarriak beste testuren bateko letren artean, baina lanen iragankortasunari, soldaten debaluazioari edo lanaren doakortasunari eta mugikortasunari erreparatu nahiko nioke gaurkoan. Kontuan hartuko dut ere, tartean, enpleguari lotutako hiru ezaugarri horien ondorio den etxebizitzaren problematika, edo, argiago, etxebizitzarik ez izatearen problema ere: ez etxebizitzaren alokairua ez hipoteka, ordaindu ezinaren auzia, eta bizitzeko beharrezkoak ditugun minimoak ezin kosteatu ahal izatearena, alegia. Baldintza horiek guztiak gaztaroaren kontzepzioarekin lotura estua dute, hau da, gaztaroa trantsizio gisa ulertzearen ideiarekin.

Trantsizioari edota aldaketari intrintsekoa zaion desegonkortasunaren ideiak aurretik aipatutako elementuekiko gazte langileok dugun subjektibitatea baldintzatzen du. Desegonkortasun hau belaunaldiz belaunaldi beti ematen da, plusbalioaren erauzketa eraginkorrerako etengabe zabaldutako merkatu eta baldintza berriak direla medio, etorkizuna lauso begiztatzen da gazteentzat. Produktzio-ziklo berrietara moldatzeko subjektua gazteria denez, hau da, produktiorako elementu berriak gazteriarekin bidez txertatzen direnez, iruditeria burgesean, halaber, gazteria aldaketaren sinonimoa bilakatzen da. Baldintza horietara moldatzeko beharrak ziurgabetasun kondizio bat sortzen du. Ziurgabetasun hori da, sarritan, geure baldintza




**Erabaki ahalmen ahuleko  
eta, are gehiago, erabakiak  
hartzeko elementu gutxi  
eskaintzen zaizkion subjektua  
da gazteria**

materialen egoera asumitzeko sendagaia eta gaitza.

Etorkizunak dakarrenaren ezjakintasun horrek errealki egin nahi duguna antzemateko zailtasunak eragiten ditu, etorkizuna baloratu ahal izateko elementuen faltan, erabaki asko irmoki hartzeko ezintasuna nabaria da gugan. Ikasketen inguruko zalantzak, alokairu bidez pisutxo batera joateko aukerak edo alboko herrian bizitzea nahiago dugun erabakitzearen dudak; gazterian errotuta dagoen inguruarekiko lotura ezak erabaki okerrak zuzentzeko aukera eskaintzen ditu, beste ikasketa batzuk, beste herri bat edo beste enplegu bat aukeratzeko bidea irekitzen du. Horrela, gazteriarengan ohikoak diren zalantzen aurrean erabakiak hartzea, pairatzen dugun ziurgabetasun kondizio horrek sortutako baldintza subjektiboek errazten dute. Esan nahi dudana da, ziurgabetasunezko baldintzetan hartzen diren erabaki ezegonkorrek, oinarri ahulak izaten dituztenez, atzera buelta erraza dutela, hortaz, etorkizunean egin nahi dugunaren informazioarik gabe hartutako erabakiak itzulgarriak dira askotan. Horrek eragiten duen lasaitasun sentsazioak, lasaitu beharko ez bagintu arren, badu jatorri bat. Izan ere, iruditeria hori zentro inperialistan ekonomia-  
ren susperraldian dagoenean klase-ertainaren bizi eredia denarekin nahasten da. Hau da, zure ahalmen ekonomikoak ahalbidetzen duen bizi eredia zure baliabideen ezegonkortasunak eragiten dituen aukeren artean txarrenetan txarrena ez dena aukeratzeko posibilitatearekin nahasten da. Horrela, batzuen atzerrira joateko aukerak, beste batzuen atzerrira joateko beharraren kondizioen pare saltzeko gaitasuna lortzen du burgesiak, lana utzi eta «ametsetako lanaren» bila ibili daitekeenaren esperimentzia eta ogi apurren truke tabernako lana parti-





**Burgesiak inpunitate  
osoz erabakiak hartu ahal  
izateari eta honi erantzuteko  
subjektu artikulatu sendorik  
ez izateari buelta eman  
beharrean gaude, izan ere,  
galtzeko ezer ez dugunok,  
dena dugu irabazteko**



kularretako lanarengatik aldatzea lortzen duenarenaren esperientzia parekatzen dira.

Baina gaztaroa berariaz desegonkorra izatearen iruditeriak praktika asko inpunitate osoz gara daitezen baimentzen du. Esaterako, ordaindu gabeko praktikak, atzerrian egin beharreko ikasurteak, aldi baterako kontratuak edota ordaindu gabeko lanorduak. Izan ere, gure bizi-baldintzek eta gure baldintza materialek, –etxebizitzarik ez edukitzea, adibidez– praktika horien baitan sortzen diren enpleguak onartzeko aukera eskaintzen digute. Askotan, gure lan-merkaturako sarbide bakarra lan horiek izaten dira, horrek baitira gazte lan merkatuan esleitzen zaizkigun lanak. Ditugun baldintza desegonkorrengatik onartu ditzakegun lanak izaten dira, eta ditugun baldintza ezegonkorretan sakontzea eragiten dutenak. Datorrenarekiko ezjakintasun horrek baldintza aproposak eskaintzen baititu minimoen ukapena normalizatuta egon dadin: Zergatik soldata eduki gurasoen etxean bizi bazara? Zergatik etxebizitza bat ez badakizu lanean jarraituko duzun ala ez? Zergatik ikasle pisu bat ez badakizu gradua gustatzen zaizun ala ez? Zergatik lan kontratu bat ez badakizu honetan jarraitu nahi duzun edo ez?

Azaldutako guztiaren izateak erro bat du: subjektu debalutuak izatea. Horrek gure bizitzetan ondorio zuzen bat du, azalpenik zor ez zaion subjektu bat izatearena, hain zuzen, eta hori ekarri nahi nuen gogora. Izan ere, COVID-19 gaitzaren agerpenarekin gazteok bizi izan dugun ziurgabetasuna formaz aldatu da, seguruena inmediateagoak bihurtuko ziren zalantzak askorentzat. Ikasketez, ikasle pisuez, praktikez, kontratu gabeko lanez, monitore gisa edo tabernetan udan urte osorako ateratzen ditugun sosez... Ez dakigu ezer, eta dakiguna gutxi eta berandu jaso da. Ez garelako azalpen politikorik merezi duen subjektu bat, ez dugulako partida honetan jokatzeko fitxarik. Horregatik, burgesiak inpunitate osoz erabakiak hartu ahal izateari eta honi erantzuteko subjektu artikulatu sendorik ez izateari buelta eman beharrean gaude, izan ere, galtzeko ezer ez dugunok, dena dugu irabazteko. /




# URRUTIKO INTXAURRAK HAMALAU...

Testua **Martin Goitiandia**  
Irudia **Leioatik**

**O**so triste nago. Aukera paregabea nuen Ikuspuntu honetan COVID-19 gaitzaren harira unibertsitateko irakaskuntzan ematen ari diren neurri liluragarriei buruz hitz egiteko, baina azken egunetan gobernuek beka eta tasen inguruan hartutako neurriak ikusita horiei buruz hitz egitea beste aukerarik ez dut oraingoan. Ezingo dut azaldu ez duela inolako zentzurik unibertsitateak «gomen-dio» batzuk emateak gero inork ez badie kasurik egingo. Ezingo dut hausnartu nola nahi zuen errektoretzak Bolonia aplikatzen hasi zenetik ezartzea lortu ez duen ebaluazio jarraiaren fantasia gauetik egunera aplikatzea, ez web kamera erabileran eskuak nola garbitu dituzten, ez nola erabili den «katedra askatasuna» marroi guztia departamentu eta irakasle bakoitzaren esku uzteko. Baina, batez ere, ezingo dut salatu kurtsoa honela amaitzeko inolako baldintzarik ez zegoela denok genekienean sudurra- ren puntan jarri zaiena egin eta inprobisatu dutela unibertsitatearen ospe preziatua ez galtzeko. Tira, azken finean neurri horien ikuskizun kafkiarraz lehen pertsonan gozatzeko aukera izango du artiku- kulu hau irakurriko duen gehiengoak, beraz hobe kostuen inguruan ematen ari diren erreforma hauen inguruan aritzen banaiz, dugun informazioa urria- goa bada ere.

Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP) 6 kredituko irakasgai baten lehen matrikulak 97,50 eta 138,30 euro artean balio du. Horrez gain, lehen matrikulatik bigarrenera bakarrik kreditu bakoitzaren prezioa bikoiztu egiten da, hirugarrenean bikoiztu baino gehiago... Telekomunikazioetako ingeniari- tza adibide gisa hartuta, OCU kontsumitzaileen elkartearen arabera 2017an 3 autonomia erkidegotan soilik zen Nafarroan baino garestiagoa gradu hau ikastea. Egoera horrek tasen merkatzea






lortzeko borroka luze batera garamatza, Bolonia planaren baitan ECTS (Europar kreditu sistema) ezarri zenetik eman den tasen garestitzeak are gehiago gogortu duen borrokarekin batera. Kurtsu honetan bertan behin eta berriro errepikatu du UIBk ikasketa kostuak merkatzeko beharra, unibertsitatean ireki den borroka lerro nagusi bat izateraino. «Bekak hobetu, tasak merketu» lema pean

bi aldarrikapen sinple horiek azken bururaino eraman dira EHUn eta NUPen egindako kanpainan, martxoaren 26ean greba bat deitzeraino, nahiz eta azkenean ezin izan den egin.

Kanpaina eta orokorrean auzi honen aurrean denek botatzen dute pilota bestearen teilatura (unibertsitateko auzi guztietan bezala): unibertsitateek gobernu autonomikoari, honek gobernu zentralari,





**Ikusi beharko da Castells  
jaunak autonomia erkidegoei  
proposatutakoa nora iritsiko  
den, baina prezioak aldatzen  
badituzte, egoera asko  
okertuko denaren ziurtasuna  
dutelako izango da, eta, ez,  
langile klasearen baldintza  
materialak hobetzeko**





honek autonomiei eta EEESri (Espacio Europeo de Educación Superior) eta abar. Amalgama administratibo honetan galtzen garen bitartean, hamarkada oso bat pasa dute tasek igotzen edo berdin mantentzen. Baina instituzio kapitalista gutxi libratu dira COVID-19 gaitzaren astinaldiaz, eta unibertsitatea ez dago horien artean. Izan ere, Espainiako Gobernuak matrikularen prezio publikoa jaisteko erreforma bat jarri du martxan. Langile klasearen defentsarako gobernu gisa izendatu dute hauek, eta askotan sozialista edo komunista bezalako kalifikatiboekin definitu dute.

«Así, la disposición final séptima incluida en este real decreto-ley elimina el sistema de horquillas, que ha impactado de forma significativa sobre la estructura de precios. Este sistema ha conllevado, (...) un incremento de los mismos –precios– en términos generales (...) afectando de forma grave al acceso a la educación universitaria pública (...). De esta forma, se fomenta el acceso a la enseñanza superior pública y evita que los altos precios públicos universitarios provoquen inequidad y abandono de estudios». Hori maiatzaren 6ko BOEko pasartea da. Aipatzen den «urkila sistema» hori 2012an (PPren Gobernuak) ezarri zen, matrikularen prezio publikoa ikasketen kostuen portzentajeen tarte batean zehaztu behar zela ezarri zen. Hala, Madrilako Gobernuak unibertsitate guztietarako finkatu zuen bigarren matrikularen prezioak adibidez matrikula horren kostuaren % 30 eta % 40 artean egon beharko zela. Ni hau idazten ari naizela, oraindik ez da finkatu zein izango den matrikularen prezioa, baina dirudienez Castells ministroak 2011ko prezioa maximo bezala proposatu nahi du, orain arte egondako igoera guztia desegiteko.

Horren guztiaren kontakizuna erraz eraiki dute: aurreko gobernu gaiztoak egindako murrizketak atzera bota dituzte egoera zail honetan egonda ere. Langile klasea zortekoa da, gero, justizia proletarioaren gerlari hauek Gobernuan izanda, bai horixe. Dena den, kurioa da neurri hauek Eusko Jaurlaritzaren neurriak baino egun pare bat beranduago iritsi izana. Azken neurri horien mugak ere azaleratu dira, baina ez dira atzean geratu: irizpide akademikoak erlaxatzea, suspentitutako irakasgaien exentzioa, ordainketaren zatikatzeko handiagoa... Ai ama! Zer esan nahi du honek? EAJ ere sozialista dela? Bueno agian Ortuzar ados dago «urrela» defendatzearekin, baina nik uste bestelako azalpen bat duela horrek. Izan ere, urkila sistema honen baitan autonomia erkidego bakoitzeko Gobernuak bazuen prezioa ezartzeko ahalmena, lehen matrikula, adibidez, % 0an jar zitekeen, ezta? Ez al dute orain izan, bada, langile klasearen alde matrikularen prezioa

jaitsi nahi dituzten horiek 2011tik autonomia erkidegoetako hainbat gobernuren gaineko kontrola? Erkidego bakoitzak dekretu bidez zehaztu ditzake tasak ikasturte bakoitzean markatutako muga barruan, beraz, urrutiegi joan gabe EAEn Jaurlaritzan egondako PSE edo legegintzaldi honetan bertan Nafarroako erkidegoan dagoen PSNk jaisteko aukera izan dutela esan dezakegu.

Ez nuke joko parlamentarioan sartu nahi alderdi bat edo bestea tasak jaitsi edo igotzearen alde dagoela esanez, izan ere, beti argudiatu liteke Espainiako gobernutik hartutako erabakiak «ezkertiarra-goak» izan direla, neurri horiek Unidas Podemosek bultzatu dituela eta ez PSOEek, aurrerapauso bat dela pauso handiagoak eman baino lehen... Horrela, bederen, ezingo ginatke inoiz sorgin-gurpil horretatik atera. Nola da posible orduan politika berdinek edozein alderdi dagoen gobernuetarako balio izatea? Bada auzia ez delako alderdi baten edo bestearen borondate on edo txarragatik ematen direla aldaketak, egoerak behartzen duelako baizik. Hala, hemendik gutxira krisiak gogor jo eta administrazio publiko guztien zor publikoa handitzen denean berriro «arrazionalizatu» beharko du gastua Gobernuan dagoen alderdiak, edozein koloretakoa izanda ere. Era berean, egun bizi dugun egoerak norabide bereko erabakiak hartzera bultzatu ditu «eskubiko» alderdi bat eta «ezkerreko» bi alderdiren Gobernuak.

Ikusi beharko da Castells jaunak autonomia erkidegoei proposatutakoa nora iritsiko den (ziurrenik hau irakurtzen ari zaretenarako gehiago jakingo dugu), eta poztekoa litzake 2011ko prezioetara itzultzea. Azaleratu nahi dudana da prezioak aldatzen badituzte, egoera asko okertuko denaren ziurtasuna dutelako izango dela, eta, ez, langile klasearen baldintza materialak hobetu nahi dituztelako. Hau da, baldintza materialak era eraginkor eta egonkorrean aldatzeko modu bakarra unibertsitetearen izaera kapitalista gainditzen duen programa baten errealizazio-prozesua dela, langile klase antolatua indar korrelazioa, eta ez ulean une sortzen den kointura parlamentarioa. /



# Alarma egoera: normaltasun berria ala ezkutuko erreforma?

Testua  
Irudia

Hodei Mendiñueta  
Zoe Martikorena

Artikulu honetan, alarma egoeraren deklarazioa ikuspuntu juridiko batetik ikertu ostean atera ditugun ondorio politikoak plazaratu nahi ditugu. Ikerketa, Markel Samaniegoren laguntzarekin egin dugu.

**A**lderdi politiko guztiek basakeria politiko honen aurrean izan duten ardura handia da, beraz, langile klasearen gainean bortxaz eta presaka ezarri den salbuespen egoeran alderdi hauek bete duten ardura seinالاتu behar dugu. Alderdien onespén bateratu honen eragin erreala honakoa da: normaltasun berria deritzon egoera faktikoak, Zuzenbide Estatuaren legaltasun printzipioaren eta honi berariazkoa zaion botere banaketa formalaren ezabapena ekarri du, inongo berme juridikorik gabe. Martxoaren 14tik hartu diren erabaki guztiak juridikoki baliogabeak dira beraz: baliogabeak debekuak, isunak, erabaki politikoak, osasun arlokoak, epaitegi-takoak... Oligarkiaren botere zentralizatu bakar batek agintzen du Espainiako Estatuan. Hau gutxi balitz, administrazioaren maila ezberdinen baitan inongo mugarik gabe hedatu da arauak egiteko eskumena, inongo erreforma konstituzionalik eman gabe: arauak egin, kontrolatu eta zigorrak ezartzeko prozedurak Gobernuaren esku utzita, ez baitago instantzia judizialik gehiegikeria hau kontrola dezakeenik. Botere judizialaren etenaldi orokortuaren baitan, salbuespen egoera irregularrak ekarri dituen oinarritzko eskubideen bortxaketen salaketa auzitara eraman den kasuetan, irizpide ezberdinak aplikatu dira. Guztien artean aipatu beharrekoa da Auzitegi Konstituzionalak apirilaren 30ean manifestazio eskubidea ukatzeko erabilitako argudioak epaitegi honen funtzio legegile eta politikoa agerian jarri duela (berriro ere). COVID-19aren emergentzia baliatuz eszenifikatutako estatu itunak botere instantzia formalen konfigurazio aldaketa ekarri du: burgesiaren zuzeneko diktadura bizi dugu.

Egitate hauek frogatzera datorren ikerketa sakon baten sintesia da hemen aurkezten duguna. Karga juridiko-teknikoa astunegia ez izaten saiatu gara, baina egiten diren afirmazio guztiek dute euren helduleku juridikoa. Ordena kronologikoan egingo da edukien azalpena, alarma egoeran bortxatu diren nazioarteko zein estatu barneko araudiei erreferentzia eginez, gure ustez ekinbide irregular horiek bortxatu dituzten oinarritzko eskubideak ere jasoz eta botere instantzien konfigurazio aldaketa justifikatuz. Azkenik, ondorio politiko nabarmen bat plazaratuko dugu: botere burgesa borrokatu eta gaindituko duen langile antolakuntza independentearen beharra inoiz baino argiagoa da.

**COVID-19aren emergentzia  
baliatuz eszenifikatutako  
Estatu paktuak botere  
instantzia formalen  
konfigurazio aldaketa ekarri  
du: burgesiaren zuzeneko  
diktadura bizi dugu**

## 1. OSASUN KRISIAREN KUDEAKETA: MOE-REN, ECDC- REN ETA NAZIOARTEKO KOMUNITATE ZIENTIFIKOAREN GOMENDIOEN ETA RSI-AREN PROTOKOLOEN APLIKAZIO AHULA ESPAINIAKO ESTATUAN, SALBUESPEN EGOERAREN AURREKARI BEZALA

SESBak eta programa komunistak mundua bi polotan banatu eta kapitalaren logikari arautze proletarioa kontrajartzeko baldintzak zituenean sortutako erakundea da Munduko Osasun Erakundea. Aurreko mendeko akordio interklasista programatikoan (Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala eta NBERen sorrera) baitan sortua, programa sozialistari berariazkoa zaion osasunaren eta bizitzaren arrisken prebentzioaren printzipio unibertsalak definitzen du bere izatea. Bere konstituzioaren balio programatikoak isla zuzena dauka ongizate estatuen paradigma ezarri duten estatuen konstituzioetan (Espainiako Konstituzioko 43. artikuluan, esaterako), nahiz eta estatuek ez duten inolako zigorrrik jasotzen bere gomendioak ez jarraitzeagatik (*soft law* deritzon arautze mota da). Egun ere, eta bere historian zehar Kapitalaren agente internazionala izan dela ahaztu gabe, ezin uka dakioke bere jardunean irizpide zientifiko eta prebentiboek garrantzia berezia hartzen dutela.

Bada, MOEren baitan, 2005ean, RSI edo Nazioarteko Osasun Erregelamendua adostu zen hainbat eta hainbat estaturen artean. Erregelamendu honek, MOEren konstituzio agiriak duen balio programatikoa gainditzen du, estatuak gradu handiagoan lotzen baititu (*hard law* deritzon arautze mota finkatuz). RSIa estatu parteek ekintza gidatzen duen araudia litzateke beraz, osasuna *pertsonen ongizate eta garapen gradu maximoa* bezala ulertuz, berau bermatzeko helburua duena. Bere oinarrietan, osasun krisialdietan oinarritzko eskubiak babesteko neurriak aintzatesteko estatuei ezartzen dien betebeharra nabarmentzen da. Osasuna modu prebentiboan lantzearen emaitza logikoa

da beraz, historia modernoan klase-borrokaren puntu gorenean sinatu ziren PIDCP eta PIDESC (eta Europar Batasunean CEDH) akordioetan jasotako oinarritzko eskubide guztien bermeak etekin ekonomikoaren aurretik jartzea. Hala, irizpide tekniko-zientifikoetan oinarritutako ziren eta estatu sinatzailleen eta MOEren arteko elkarlana eta jarraikortasuna bermatuko zuten batzordeak osatu ziren RSIa jarraituz. Eta osasun krisialdietarako ekintza protokoloak ere definitu ziren. Esan dugun moduan, formalki, estatuek ez dute zertan MOEk RSIaren aplikazioan emandako gomendioak jarraitu; materialki, ordea, hori ez egitearen ondorioak begi bistakoak dira. Izan ere, COVID-19aren harira nabarmen geratu da gomendioak ez jarraitzearen kostua:



osasun eta bizitzaren esparruan (gaixotze eta heriotza kopuruak) bai, baina bereziki, nazioarteko araudi juridikoaren arabera bortxaezinak diren askatasun politikoen eremuan.

Hori gutxi balitz, Europar Batasuneko estatuen kasuan, ECDC izeneko organoak hartzen du MOEren antzeko funtzioak betetzeko ardura. Organo honek ere hainbat gomendio eman ditu koronabirusaren trataera egokirako. Bada, eta nahiz eta MOEren gomendioek aplikagarritasun zuzenik ez duten, Europar Kontseiluak otsailaren

20an Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean (DOUE) argitaratutako ebazpenean, estatuei MOEk RSIaren baitan emandako gomendioak eta ECDCk emandakoak jarraitzeko deia egin zien. Honek panorama juridikoa aldatzen du eta beraz, MOEren gomendioek RSIaren baitan indar juridikorik izan ez arren, Europar Batasuneko ebazpen honek aitzakia hori erabiltzea galarazten dio Espainiako Estatuari bere ardura politikoa estaltzeko, betebeharrak juridiko zuzen gisa agertzen baitaio agindu hau.

Estatuek nazioarteko arauetako dituzten lotura juridikoen inguruko zehaztapen hauek ezinbestekoak dira ardura politikoa norena den ulertu ahal izateko. Izan ere, Zuzenbidea edo Ordenamendu Juridikoa botere politikoaren jardun arbitrarioa ekiditeko arau multzo gisa definitzen da. Legalitatearen printzipioak, segurtasun juridikoak eta aginte organoek botere banaketa formalera azpiratzeko duten betebeharrak (Espainiako Konstituzio-ko 9. artikulua) zehazten dute botere politikoaren galga gisa zuzenbide estatuak duen funtzioa.

Sarrera honekin has gaitezke Espainiako Estatuako agintari politiko formalen (Gobernua, Kongresua eta botere judiziala) eta benetako agintari politikoaren jarduna (alderdietan ordezkaturik agertzen diren burgesia txiki, ertain eta oligarkia enpresarial eta finantzarioarena) zein izan den behar den bezala ulertzen. Gainontzean, alarma egoeraz mozorrotu den salbuespen egoera honen oinarri erreala eta bertatik eratorritzen den ardura politikoa norena den ez dago ulertzerik. Horretan tematu badira ere, ondorioa garbia da: errua ez da gurea.

### **1.1. Osasun neurrien aplikazio ahula alarma egoera deklarazio egunerako arte: bortxatutako oinarritzeko eskubideak**

Urtarrilaren 30ean Munduko Osasun Erakundeak ESPII edo Garrantzia Internazionalako Osasun Publikoaren Emergentsia egoera deklaratu zuen

COVID-19ari dagokionean. Egoerari aurre egiteko MOEk eman zituen gomendioek, RSiko edukiei jarraiki (18. artikulua), pertsonen arteko distantzia fisikoa errespetatzea, gaixotasunaren diagnostikorako testetan sakontzea eta gaixoen isolamendua eta kontaktuen jarraipena jasotzen zituzten beste batzuen artean. Espainiako Estatuako osasun-batzordeek hurrengo egunean publiko egin zuten oharrean irizpide horiek agertzen ziren.

Ezin esan daiteke ezer egin ez zutenik Espainiako Estatuako agintariak RSIa aplikatzeko. Baina gobernuko osasun agintari publikoek martxoaren 13rarte emaniko prentsaurrekoak aztertuz gero, nabarmen geratzen da herriarren egiazko informazioa jasotzeko eskubidea ez zutela bete, egoeraren larritasunaren eta beronen aurka egin zitekeenaren inguruan ondo informaturiko iritzia publiko bat ez baita egon. Hau izan da beraz Gobernuaren partetik larriki bortxatu den lehen oinarritzeko eskubidea.

Bide honetatik, egoeraren larritasuna azpimarratu eta MOEren eta ECDCren (zein nazioarteko komunitate zientifikoaren) gomendioak edota RSiko 43. artikulua dion moduan, *hauen baliokideak diren neurriak* behar

**Estatuek nazioarteko arauetako dituzten lotura juridikoen inguruko zehaztapen hauek ezinbestekoak dira ardura politikoa norena den ulertu ahal izateko. Izan ere, Zuzenbidea edo Ordenamendu Juridikoa botere politikoaren jardun arbitrarioa ekiditeko arau multzo gisa definitzen da**











zen denborarekin aplikatzetik urrun, egoerari larritasuna kendu eta informazioa ezkatutuz, konstituzioak ezartzen dituen osasunerako (43. artikulua) eta bizitzarako (15. artikulua) eskubideak larriki bortxatuak izateko baldintzak jarri zituzten. Eta noski, ikusiko dugun moduan, besteren artean, inozentzia presuntziorako, biltzeko, elkartzeko edota manifestatzeko eskubideak modu masiboan bortxatzeko.

Utzikeria honen oinarrietan sartzea lanketa espekulatiboa litzateke eta ez dugu denborarik galduko horretan: ekinbide hau baimendu duten agintari politikoen ardura zuzenean PSOE eta Unidas Podemosen gain dago. Zuzenbide internazionalaren aplikazio ezak sortu dituen ondorioen larritasunaren erantzule zuzenak dira, beraz. Ezin ahaztu zentzu berean EAJrena eta bere Jaurilaritzarena ere: galde diezailetela bestela Gasteizko edo Bilboko osasun arloko langileei, zenbaterainoko ziurtasunez egin zuten lana otsaila amaieratik apirila erdialdera arte: orduero aldatzen ziren osasun protokoloak, ospitaletako korridoreetan hiltzen ziren gaixoak, infektaturik egonda lanean jarraitzera derrigortu dituzten langileak, heriotzara kondenatuak izateraino, ezohiko ordu kopuru amaigabeak...prebentzioaren printzipioaren aplikazioak baimenduko ez litzukeen egoeretan utzi dute osasun arloko langileria eta noski, gaixoak. Hildakoen odolaz zikindurik dituzte hauek ere eskuak.

Dena dela, gogorarazi behar da osasun eta bizitza eskubideen planoan agintari politiko formalek arduragabe jokatu izana ez dela kontu berria Espainiako Estatuan. 2008ko krisialdiaren ondoriozko murrizketa politikek jada erakusten zuten langile klasearen estratu baxuenek, proletalgoak, ez zuela inongo aukerarik MOEk, eta Europar Batasuneko organoek, nazioarteko tratatuek edota Espainiako Konstituzioak berak definitzen duten osasun eskubidea (ongizate material egoera) materialki gauzatzeko. Osasun langile-riaren lan baldintzez ere berdina esatea

ez dago soberan. Gainkargatua zegoen hura, lehertu besterik ez da egin koronabirusaren krisialdiarekin.

## 2. ALARMA EGOERAREN DEKLARAZIOA: SALBUESPEN EGOERA ETA ZUZENBIDE ESTATUAREN ETETEA

Kronologiara itzuliz, martxoaren 11an MOEk pandemia gisa izendatu zuen COVID-19a. Europar Batasunean, Italia eta Espainiako egoera oso larria zen une hartarako, baita Gasteizkoa ere. Egoera honetan, hilabete eta erdiko utzikeriaren ostean, iritsiko zen Espainiako Gobernuaren erantzuna: Zuzenbide Estatuaren etete materiala eta burgesiaren diktadura teknikoa ekarri duen martxoaren 13ko 463/2020 Errege Dekretua: nazioarteko aginduen aplikazio ezak eta aurreikuspen faltak dakarren arduragabekeria politikoa- ren ondorioz, presaz eta modu baldar eta autoritarioan hartutako erabakia. Kausa «natural» bat eta guztiz saihegarria zen egoeraren «ezinbestekotasuna» aitzakiatzat hartuz, krisi ekonomikoari erantzuteko inoiz ikusi gabeko erreforma konstituzionala ekarri duen erabakia.

Ikuspuntu juridiko batetik, bizi dugun egoera faktikoa diktadura edo autoritarismo faxista gisa kalifikatzeko arrazoiak Konstituzioaren 9, 53.1, 55.1, 116.2 eta 116.6, 106, 117 artikuluetan eta 4/81 Lege Organikoko 11 eta 20. eta 28. artikuluetan topatu ditzakegu. EH Bil- du bezalako alderdi autonomistek, bozka gosez beste gauza bat aldarrikatzen badute ere, alarma egoerak dakarrena ez da estalitako kompetentzien zentralizazio bat edo 155. artikulua- ren aplikazio irregularra.

Izan ere, alarma, salbuespen eta setio egoerak arautzen dituen 4/81 Lege Organikoa, autoritate bakar bati esleitzen dio alarma egoerak kudeatzeko kompetentzia. Beraz, hor ez da egon inongo gehiegikeria edo desproporzio juridikorik, eta ikuspuntu juridiko batetik, 155az hitz egiteak ez dauka inongo fundamenturik.

Alarma egoerak Konstituzioak eta

## Hilabete eta erdiko utzikeriaren ostean, iritsiko zen Espainiako Gobernuaren erantzuna: Zuzenbide Estatuaren etete materiala eta burgesiaren diktadura teknikoa ekarri duen martxoaren 13ko 463/2020 Errege Dekretua





## Alarma egoerak Konstituzioak eta Estatuko zein nazioarteko legediak bortxatu dituela erakusteko, 463/2020 dekretuaren 7. artikulura eta hango bigarren xedapen gehigarria jo behar da: zirkulazio eskubidearen debeku orokortura (konfinamendua) eta botere judizialaren zein Auzitegi Konstituzionalaren jardunaren suspentsio orokortura

Estatuko zein nazioarteko legediak bortxatu dituela erakusteko, 463/2020 dekretuaren 7. artikulura eta hango bigarren xedapen gehigarria jo behar da: zirkulazio eskubidearen debeku orokortura (konfinamendua) eta botere judizialaren zein Auzitegi Konstituzionalaren jardunaren suspentsio orokortura. Noski, salbuespen batzuk ezarri dira, baina salbuespenean oinarritzen diren bermeak salbuespen egoeran besterik ez daude justifikatuta.

### 2.1. Zirkulazio eskubidearen debeku irregularra: 4/81 LOko 20.1 artikuluen aplikazioa 11.1 artikulua balioztatuta

463/2020 dekretuaren 7. artikulua zirkulatzeko edo mugitzeko eskubideari jarritako *mugak* jasotzen ditu. Alarma egoera batean, 4/81 LOren 11.1 artikuluari jarraiki, pertsona eta merkantzien zirkulazioa *toki eta ordu zehatzetan mugatu daiteke*. Baina alarma egoerako 7.

artikuluaren edukiari so eginda, edonor konturatu da baimendutako egoerak hain direla murrizak, ezen errealki zirkulatzeko debeku orokortu bat ezarri den. Salbuespena arau bilakatu du artikuluhonek, praktikan zirkulazioa (hau da, mugitzeko askatasuna) lan indarraren eta kapitalaren erreproduktziorako *ezinbesteko minimora* murriztuz: gainbalio ekoizpenaren eta soldataren erreproduktziorako eta kontsumorako soilik baimendu digute mugimendua. Merkantzien zirkulazioa pertsonen askatasunaren gainetik jarri da, ekonomia kapitalistaren funtzionamendu arauak eta agintari politikoen lehentasunak zein diren agerian utziz.

Juridikoki, pertsonen zirkulazioaren debekua salbuespen egoerari dagokion gaitasuna da, 4/81 LOren 20.1 artikuluan ikus dezakegun bezala. Debeku hori ezartzeko, beraz, Konstituzioko 55.1 artikulua xedatzen duen prozedurara jo behar da, oinarritzko es-

kubideen suspentsiorako prozedurara. Labur esateko eta prozeduran ez galtzearen, Kongresuari baimena eskatu behar dio Gobernuak, etengo dituen eskubideen zerrenda xehe bat emanaz, erabakiaren gauzatzea Kongresuaren onarpenak baldintzatzen duelarik. Bistakoa denez, hori ez da egin. Egin dena alarma egoeraren prozedura aplikatzea izan da, zeinak soilik *a posteriori* eskatzen duen Kongresuaren balioztatena, alarma egoeraren luzamendurako bozketaren unean. Hala, salbuespen neurri hau (zirkulazioaren debekua), modu irregularrean ezarri da.

Prozedura konstituzionalaren hauste hau larria bada, are larriagoa da hau baliatuz sortu den egoera faktikoa. Izan ere, 463/2020 dekretuaren segidan Gobernuak 465/2020 Errege Dekretua onartu zuen, baimendutako zirkulazio jardueri oraindik ere muga estuago bat jarritz: zirkulaziorako aukera mugatuen barruan, banaka ibiltzeko derrigortasu-





na zehazten baitzuen. Mugitzeko debekua modu irregularrean eta mugaraino eramanez jarri zen elkartzea oinarri duten oinarritzko eskubide guztien eteterako oinarri materiala: kalean biltzea, elkartzea edota manifestatzea debekatu digute. Ez da beharrezkoa izan inongo prozedura gehigarrikerik beraz, askatasun politikoak erabat deuseztatzeke. Bi dekretu nahikoak izan dira horretarako.

Beraz, oinarritzko eskubideen ikuspuntutik, Konstituzioko 116.6 eta 9.3 artikuluek eta 4/81 Lege Organikoak ezarritako proportzionaltasun, segurtasun juridiko eta ardura politikoaren printzipioak deuseztatu zituen goizetik gauera alarma egoera dekretuak. Osasuna zaintzearen aitzakian, berau bermatzeko momentua zenean beharrezko neurriak eta betebeharrak juridikoak hartu eta bete ez ziren bitartean. Irregularutasun hauen funtsa noski, salbuespen egoera deklarazioa egiteak, PSOE eta Unidas Podemosko agintariak urtarritetik martxora arte eginiko kudeaketa negargarriaren erantzule zuzen gisa uzten zituela da. Hau da, arduragabe moduan geratzen zirelako diktadura neurriak osasun larrialdi bati erantzuteko esplizituki aldarrikatuko balituzte. Honela, *zientziaren izenean* langilearen sektore zabalen aurrean euren burua zuritu nahi izan dute, kontrol soziale-

ko neurri zorrotzen aplikazioa justifikatuz. Hau ez litzateke posible izango *informazioa eta egia* (botere publikoen jardunaren gardentasun printzipioa) bete izan balute.

## 2.2. Errugabetasun presuntzioaren bortxaketa eskala sozialean

Ezin aipatu gabe utzi une hartan (urtarrila eta martxoa artean) MOEren, ECDCren eta nazioarteko komunitate zientifikoaren gomendioen aplikatze ahulak, errugabetasun presuntzioaren oinarritzko eskubidea eskala sozialean bortxatzea ekarri duela (eta berarekin, defentsa eskubidea). Gaixoen eta kontaktuen jarraipena egitea ahalbidetzen zuten testak elite ekonomikoaren mesedetan jarri dira (politikari eta kirolari profesionalak!), herritarren gehiengoari sistematikoki ukatuz gaixo dagoen edo ez dagoen jakiteko aukera. Modu hone-tan, gaixoak nortzuk ziren ezagutzeko aukera ukatuta, karguko frogarik gabeko gartzelaratzeko baten biktima izan gara.

Zuzenbide penal burgesaren aita-pontekoa izan zen Cesare Beccariak hau gertatuko zela jakingo balu, ez zukeen «*dei deliti e delle penne*» sekulan idatziko. Izugarritzko inplikazio politikoak ditu defentsa eskubidea modu horretan bortxatu izanak, zuzenbide penalean oinarritzkoa den *tipifikazio*

**Ezin aipatu gabe utzi une hartan (urtarrila eta martxoa artean) MOEren, ECDCren eta nazioarteko komunitate zientifikoaren gomendioen aplikatze ahulak, errugabetasun presuntzioaren oinarritzko eskubidea eskala sozialean bortxatzea ekarri duela (eta berarekin, defentsa eskubidea)**

printzipioa desagerrarazten baitu kolpe bakarrean: arau hauste bat egotzi digute, inongo legek jasotzen ez duena, modu guztiz arbitrarioan eta gaixo zein osasuntsuei trataera berdina emanaz. Zuzenbide penalak berariazkoak dituen zigorraren pertsonalitatearen eta konkrezioaren printzipioak deuseztatu dira eta baita berme guztiak jasotzen dituen prozesu baterako eskubidea eta epaitegien tutela eraginkorreak ere.

Astakeria honen onarpen soziala bermatzeko, jazarpen polizial eta informatibo basatia abiarazi da; administrazio publikoaren jardunaren jardun arbitrario larri hau kontrolatzeko gai diren epaitegi eta instantzia administratiboak eten diren bitartean. Salbuespen egoera eta Zuzenbide Estatuaren aplikazio eza nabarmena da beraz hemen ere.

### 3. GOBERNUAREN ARAUEN KONTROLAREN DESAGERPENA

Zuzenbide Estatuaren botere banaketa formala Konstituzioak arautzen duela esan behar dugu lehenik. Zehazki, Gobernuaren arautze eskumenak 97. artikuluan jasotzen dira, guri axola zaigunerako, *erregelamendu bidezko arautzea* gauzatzeko eskumena ematen duena. Honek esan nahi du *legalitatearen printzipioa* subordinatuta ageri dela Gobernuaren jarduna, *botere legegilea* parlamentuari baitagokio.

Beraz, Gobernuak ezin ditu *lege edo arau konstituzionalak* egin. Zuzenbide Estatuaren botere banaketari jarraiki, hori kontrolatzeko iragazki bikoitz bat dauka: Kongresuarena eta botere judizialarena. Konstituzioak berak jartzen dizkio galgak Gobernuari, nahiz eta Konstituzionalak 2016an alarma egoeran Gobernuak hartutako erabakiek *lege balioa* dutela defendatu. Lehendik ere ezaguna dugu organo honen izaera arau egilea edo izaera politikoa. Interpretazio honen modukoek argi erakusten dute organo honek konstituzioaren interprete gisa duen izaera gainditzen duela. Carl Schmittek 1919ko Weimarko errepublikako konstituzioa aztertu zuenean, ederki argitu zuen auzi hau.

## Konstituzioak berak jartzen dizkio galgak Gobernuari, nahiz eta Konstituzionalak 2016an alarma egoeran Gobernuak hartutako erabakiek *lege balioa* dutela defendatu

## Alarma egoerako dekretuan bertan ezabatzen da Gobernuak inposatu dituen gehiegikerien gainbegiratzea, eta horretan oinarrituta, Autoritate Zentralak eta Ministerio ezberdinek hartu dituzten neurrien kontrola ezin da gauzatu

### 3.1. Jurisdikziora jotzeko aukeraren eta Gobernuaren arauen kontrol judizialaren ezabapena

Egoera faktikora itzuliz, 463/2020 Errege Dekretuak egiten duen beste gehiegikeria juridiko nabarmena corpus juridiko honetako 2. xedapen gehigarrian dago, dinamika soziala mugitzen duten erabaki politiko ezberdinen kontrol juridikoko iragazkietan, hain zuzen. Bertan, Gobernuak bertan behe- ra uzten ditu ia osotasunean jurisdikzio guztiak, bereziki deigarria delarik bere dekretuen gainbegiratzea egiteko ardura duen *Administrazioarekiko auzien jurisdikzioarena*. Hau da, alarma egoerako dekretuan bertan ezabatzen da Gobernuak inposatu dituen gehiegikerien gainbegiratzea, eta horretan oinarrituta, Autoritate Zentralak eta Ministerio ezberdinek hartu dituzten neurrien kontrola ezin da gauzatu.

Erabaki horrek hankaz gora jartzen du konstituzioiko 9.3 artikulua eduki guztia, baita 106 eta 117. artikuluetakoa ere. Segurtasun juridikoa, legalitatea, botere exekutiboaren kontrol judiziala, justizia formalaren funtzioa... Zuzenbide Estatu liberalaren botere banaketa formala desagerrarazi du alarma egoerako dekretuak. Burgesiaren organoen arteko *oreka*, *neutraltasuna* eta *proporzionaltasuna* desagertzen dira kapitalaren agente modalitate erreala diktaduraren dela agerian utziz.

### 3.2. Jurisprudentzia kontraesankorra eta Auzitegi Konstituzionalaren epai politikoa oinarritzko eskubideen defentsa prozeduran

Aipatu beharra dago arlo administratiboan (gai honetara mugatuko gara) epaitegi eta tribunalek gobernuen erabakien gaineko *kontrol judiziala* egiteko aukera baliogabetu bada ere, oinarritzko eskubideen defentsarako prozedura irekita utzi dela. Norbaitek pentsa dezake horrekin oinarritzko eskubideen defentsa egin daitekeela eta norbanakook (are, komunistok ere) ez dugula borondaterik erakutsi geure burua defendatzeko, baina aukera izan ba-



genuela. Ordea, izan da bide hau askatasun politikoen defentsa egiteko erabili duenik (komunistak izan ez arren). Hauen emaitza baloratzeak argituko digu bidea: norbanako bati bide prozesalaren kostuak ordainarazi dizkio Auzitegi Gorenak, «etxean gartzelararuta» zegoela aldarrikatzeagatik. Curro Nicolau abokatuaren helegitea (errurik gabe zirkulatzeko eta biltzeko eskubideak kendu dizkiotela aldarrikatu duena) ez da ebatzi, 50 katedradunek sinatutako agiri bat aurkeztu badu ere. Norbanakoek ez dute inongo aukerarik izan defendatzeko, ez oinarritzko eskubideen prozeduraren bidetik, ezta bide administratibotik ere. Praktikan, honek gehiegikeria mota guztien inpunitatea bermatu du, Grande-Marlaskaren gidaritzapean Estatuko polizia indar guztien partetik zigortu diren pertsonen kopuru eskandalagarriak erakusten duten bezala.

Antolakundeek kasuan, biltzeko eta manifestatzeko eskubidearen eza-bapenaren harira, deseskalatze fasea hasi aurretik sindikatu ugarik eskatu dute eskubide hauen erabilpena egitea, administrazio ezberdinen betoaren aurrean, oinarritzko eskubideen defentsa bide prozesalean babesa eskatuta. Zentzu horretan, autonomia erkidegoetako Auzitegi Nagusietan (Nafarroan, Aragoi, Madrilén eta Galizan) egin den interpretazioa eta ebazpena kontraesankorra izan da. Manifestazio batzuk baimendu dituzte eta beste batzuk atzera bota.

Kasu honetan, honakoa izan da gai honetan azken hitza duen Auzitegi Konstituzionalak emaniko erantzuna: ebatzi du biltzeko eta bizitzeko eskubidearen arteko ponderazioan, osasun krisialdi batean, bizitzeko eskubidea aintzatetsi behar dela, arazoaren muienera jo eta oinarritzko eskubideak eteteko alarma egoerak ez duela balio ebatzi beharrean. Konparaketa moduan jar dezakegu hemendik 2.000 kilometro ingurura dagoen Alemaniako Konstituzio Auzitegiak manifestazioak baimendu izana, manifestazioa bermatu behar den oinarritzko eskubide bat de-

lako. Lisboan, Maiatzaren 1ean manifestazio jendetsua egin zen distantzia sozialeko neurriak aplikatuta... Auzitegi Konstituzionalak, beraz, nazioarteko eta europar araudi lotesleen (goian aipatu ditugunak eta beste zenbait, Nizako deklarazioa bezalakoak) edukia baztertzen du, baita Konstituzioko 9. artikulua ere. Arau hauek, alde bate-tik, osasun krisialdi batean hartutako edozein neurri oinarritzko eskubideek modulatzeko dutela inposatzen dute (eta inoiz ez alderantziz) eta bestetik, forma auzien bidez oinarritzko eskubideen edukia ezabatzea Zuzenbidearen eta Zuzenbide Estatuaren bortxaketa nabarmena dela. Auzitegi Konstituzionalak alarma egoeraren deklarazioaren aurretiko kontaketa historikoa baztertuz egitateei aplikatzen dien *tabula rasa*, kasua ebazteko erabili beharreko argudio juridikoak baldintzatzen ditu. Honek organo honek betetzen duen funtzio errealearen beste ebidentzia bat eskaintzen digu: burgesiaren indarrei une bakoitzean interesatzen zaien justifikazio politikoa ixteko mekanismoa izatea.

Zentzu honetan, askoz ere zehatzagoa izan da Aragoiko Auzitegi Nagusia-

**Auzitegi Konstituzionalak alarma egoeraren deklarazioaren aurretiko kontaketa historikoa baztertuz egitateei aplikatzen dien *tabula rasa*, kasua ebazteko erabili beharreko argudio juridikoak baldintzatzen ditu**



ren ebazpena, zeinak baimendu egin zuen auto karabana bat egin ahal izatea, ponderazioaren funtsa segurtasun protokoloen egokitasunean jarrita. Are adierazgarriagoa izan zen magistratuatariko batek emandako boto partikularra: adierazi zuen alarma egoera ezkutuko salbuespen egoera dela eta oinarritzko eskubideek gainontzeko eskubideak modulatzeko dituztela (eta ez alderantziz). Noski, ebazpen honen sona ez da lehenengoarena bezainbestekoa izan. Egiatzko informazioa jasotzeko eskubidea bermatua daukagula-ko izango da...

Laburbilduz, bide judizialak itxita, Espainiako oligarkiak Espainiako Gobernua baliatu du bere mandatuen kontrol juridikzionala ezabatzeko. Prozedura Administratiboko legediak, 47. artikuluan, Gobernuak bere erregelamendu bidezko arautze gaitasuna gainditzeko eginbideak baliogabe gisa kalifikatzen ditu. Baina noski, ekinbide honen legalitatea kontrolatzeko organorik ez badago, Zuzenbide Estatu materialki desintegratu duen erabaki batek ez du kontrol formalik ezta materialik ere.

#### **4. KONGRESUAREN LUZAMENDUAK: BOTERE BURGESAREN ALDERDI BAKARRA AGERIAN**

Esan dugun moduan, Parlamentua da prozedurazko eta edukizko arau-hauste hauek Gobernuak egiten ez dituela bermatu behar duen beste organoa. Kasu honetan, Konstituzio-ko 116.2 artikulua zehazten du bere betebeharra. Bere zilegitasun formala *herritarren borondatearen* isla izatean dago, hauteskundeetan hautatutako hautagaiek duten herritarren babesean. Hala, bai normaltasun egoeran baita salbuespen egoeretan ere, kontrol politikorako organoa da. Labur esanda, Gobernuak ezin du alarma, salbuespen edo setio egoera bat mantendu/deklaratu (kasuaren arabera), Kongresuaren baimenik ez badu.

Alarma egoeraren deklarazioaren ostean, martxoaren 25ean batu zen

Kongresua osoko bilkuran, lehen aldiz alarma egoeraren luzapena baimendu edo ez erabakitzeko. Bozketaren emaitza honakoa izan zen: 321 aldeko boto, 28 abstentzio eta 0 aurkako boto. Ez ditugu berriro errepikatuko 463/2020 eta 465/2020 Errege Dekretuek eragin dituzten irregulartasunak. Ez diegu helduko ondoren etorri diren luzapenei (nahiz eta ezbaian dagoen ea posible den edo ez luzapen bat baino gehiago egitea). Nahikoa da ebidentzia hau mahaigaineratzea: krisi egoeretan agerian gelditzen da burgesiak alderdi politiko bakarra duela.


Alderdien pluraltasuna, burgesiaren



baitako fakzio ezberdinek beren interesen arabera antolatzeke duten eskubidearen adierazgarri erreala besterik ez da (joko honetatik kanpo dago, noski, proletarگوaren antolakuntza politiko independentea, Patxi Ruizen kasuan modu argian ikusi den bezala). Kasu honetan, klase gisa partekatzen duten interes nagusiaren ondorioz, alderdi politiko guztiek babestu dute modu bateratuan eta inongo aurkakotasunik gabe Zuzenbide Estatuaren berme guztien deuseztapena eta langileriaren as-







**Ezkerrak diktadura oparitu dio eskuinari. Ezkerrak burgesiaren diktadura teknikoak ezarri badu botere erregimen gisa, VOXek jada berdina egiteko zilegitasun osoa du baina ezkerrak ez du izango berak sortu duen munstroa borrokatzeko zilegitasunik**

katasun politikoen desagerpena. Bost berrespen izan ditu alarma egoerak, artikulua hau idazten amaitu den egunera arte.

Oportunismo politikoa muturre-raino eraman dute Espainiako agintariek. Espainiako sozialdemokraziak, osasunaren eta bizitzaren inguruan prebentzioa eta ardura erakustetik urrun, ustelkeria eta arduragabekeria ankerrena bistarazi ditu, eta agerian utzi du berriro ere faxismoaren eta sozialdemokraziaren artean dagoen le-rra fina. Duintasun politiko handiena izan zuen garaietan, erreformismoaren paradigma zen zuzenbide burgesaren berdintasun formala berdintasun ma-terial bilakatzeko neurri progresiboen aplikazioa bilatzea. Edo nahi bada, ber-dintasun materiala kapitalaren arauen baitan topatzearen aldeko borroka. Ba-da, egungo erreformismoak bere lorpen gisa saltzen duen ongizate estatua-zen zuzenbidea bera inongo eskrupulurik gabe ezabatzen duela ikus dezakegu hemen, bere esentzia nabarmen geldit-zen delarik: langile klasearen aurrean oligarkia finantzario eta enpresariala-ren ordena soziala mantentzeko indar errepresiboa izatea.

#### **4.1. VOXen egia eta sozialdemokraziaren oparia**

Marka da, gero, VOX alderdia izatea zentzu juridiko batean egia plazaratzen ari den fakzio bakarra. Esan dugu lehen ere, ordea: sozialdemokrazia eta faxis-moa, klase arteko aliantzaren forma ezberdinen manifestazio gisara, hari oso mehar batek banatzen ditu. Alarma egoera honetan, egia esatea *ezkerraren* tasun izan beharrean *eskuinaren* ezau-garri bilakatu da; eskuinak ezker-erretik aurreratu duela esan dezakegu. Espainiar eta *euskal* sozialdemokraziak baimendu du langileriaren sektore ba-xu, ertain eta altuen erreferentzia VOX alderdiak hartzeko baldintzak sortzea. Faxistek oinarritzko eskubideen urra-keta aldarrikatzen dute, baina euren izaera antikomunista indartzeko. Fun-tsean, VOXena propaganda besterik ez da, langileriaren interes unibertsalak

biltzen dituen programa komunista *agertoki politikotik desagerrarazteko*. Mezu hau erraz ulertzen da eta arris-ku larria dakar. Baina zentzu komunak hain erraz ulertzen ez duena eta are larriagoa dena honakoa da ordea: *ez-kerrak* diktadura oparitu dio *eskuinari*. Ezkerrak burgesiaren diktadura tekni-koa ezarri badu botere erregimen gisa, VOXek jada berdina egiteko zilegitasun osoa du baina ezkerrak ez du izango berak sortu duen munstroa borroka-tzeko zilegitasunik.

#### **4.2. Diktaduraren hedapena EAEn EAJren eskutik**

Gezurrezko eta fikziozko *klase* po-litika egitearen ondorioak ederki apro-betxatzen ditu burgesiak. Diktadura teknikoaren garapen organizatiboak jada isla zuzena izan du osotasun so-zialaren esfera ezberdinetan. Bereziki adierazgarria suertatzen zaigu hemen kudeaketa partekatuaren edo ko-go-bernantzaren afera, zeinaren bidez EAJk eta PSOEk inongo euskarri juri-dikorik ez duen konstituzioaren erre-forma bat ere gauzatu duten: autono-mia estatutuen eta estatu organoen arteko eskumen banaketa hankaz gora jarri da deseskalatze fasean.

Eta hori gutxi balitz, EAJk Ertzain-tzari esleitu dio arauak interpretatu eta euren edukia zehazteko eskumena. EAEn, biltzeko eskubidea indar poli-zialen irizpideak jarraituz ukatu da, eta horrekin autoritarismoaren muga gore-nera iritsi gara. Erabaki horiek dituzten dimentsio politiko sakonak eta izan du-ten onarpen sozialak kezkatu beharko gintuzke. Basakeria honen aurrean EH Bilduk zuhurtziara egin dituen deiek enegarrenez azaleratu dute lehendik ere agerikoa zen EH Bilduren kolabo-razionismoa eta aldaketa politikorako indar gisa duen operantzia eza.

#### **5. ALDERDI POLITIKOAK SALBUESPEN EGOERAREN ARDURADUN NAGUSI**

Osasun krisialdiarekin egin den ku-deaketa negargarriaren kostu sanita-rio eta politikoetan erantzule zuzenak

## Osasun krisialdiarekin egin den kudeaketa negargarriaren kostu sanitario eta politikoetan erantzule zuzenak izan dira burgesiaren alderdi politiko guztiak, salbuespenik gabe

izan dira burgesiaren alderdi politiko guztiak, salbuespenik gabe. Euren betebeharrak politikoa perfektu bezala bete dute: burgesiaren ordena soziala bermatzeko beharrezkoa den eta inongo berme juridikorik ez duen «normaltasun berria» ezartzea. Langileriaren obedientzia eta menperakuntza bermatzea. Laborategi soziala normalizatzea. Itun sozial berria behin bermatu denean soilik hasi dira euren bozka kopuruak nola gizendu pentsatzen, gezurraren lepotik euren besaulkiak ugaritzeko eta sabelak gizentzeko joko elektoralista penagarri itzuliz.

Egia, osasuna eta askatasun politikoak defendatzeko ez dute zirkinik ere egin; are gehiago, euren #etxeangelditu kanpainekin, alarma egoeraren eta normaltasun berriaren garaian gertaturiko odol-jario, gehiegikeria eta bortxakeria guztien aurrean masen desmobilitazioa, *txibateo* kolaborazionista eta obedientzia sustatu dituzte. *Euskal* sozialdemokrazia ez da espainiarra baino gehiago izan kudeaketa horretan; are, ezta euskal oligarkiarena baino gehiago ere.

Izan ere, EAJk hauteskundeetan nolabaiteko aukera eskainiko du herritarrek alarma egoerari eta desekalatze bidez egin den kudeaketa hauteskontzietan *epaitu* dezaten, nahiz ariketa *sasi-demokratiko* honen helburua bere burua indartzea besterik ez izan. Ikusteke dago, ordea, desekalatze prozesuan hartutako erabaki kaxkarrek eraginik izango ote duten jeltzaleengan.

Bere aldetik, Otegiren talka plan famatuak *ariketa interklasista eta antide-mokratiko* gorena suposatzen du: bulego itxi batean *estatu agenteen* arteko beste paktu burokrata bat eskaintzen digu gure bizitzak salbatzeko. Langileriaren eta herri sektoreen gainean sozialdemokraziak duen ulerkera instrumentalista igarri daiteke Otegiren hitzetan: *zuek lasai, guk konponduko ditugu zuen arazoak, zuek ez zarete eta ezer egiteko gai*. Bizi dugun egoeran posizio hau defendatzen duena ez da ez proletarizazio prozesuan ez eta alderdi

komunistaren eraikuntzan pentsatzen ari. Ez da errealitate sozialaren aldaketek dakartzaten ondorio errealek ulertereko gai. Utopiaz hitz egiten dugula esango digute gero.

### 6. LANGILE ANTOLAKUNTZA INDEPENDENTEA BERME BAKAR GISA

Langileria burgesiaren menpeko jostailua da ez badu bere burua programa komunistaren baitan antolatzen. Dinamika instituzional burgesa erabat zanpatzailea dela ikusi dugu, sektore kolpatuen osasuna, bizitza eta askatasun politikoa etekin ekonomikoaren dinamikari zirkinik ere egin gabe azpiratzeko aparatu sorta besterik ez baita. Normaltasun berriak kontrol sozial eta politiko zuzenerako oinarriak jarri ditu, autoritarismoaren mugak etxeko leiho eta sukaldeetara sartuz. Osasunaren babesaren aitzakiapean, estatu polizial eta militarizatu baten oinarriak jarri dira, boterearen erabilerak inongo kontrolik ez duen arau ordenamendu berri batekoak. Salbuespena da orain araua. Exekututzailea da epailea.

Hala, osasun baldintzek eta ekonomikoek okerrera egingo dutela ulertuz, osasunaren eta bizitzaren prebentzioa modu integralean bermatzea ezinezkoa izango da interes hori lehen lerroan jarriko duen indar iraultzailerik gabe. Zentzu horretan, arduradun politikoak seinalatzeko nahikoa elementu eskaintzen dituen arren, ez dago irtenbiderik zuzenbide burgesaren, botere burgesaren aparatua nazionalen zein nazionaletan edota etengabe kanporatzen gaituen berdintasun formalaren esparruan: ezin dira kapital metaketaren prozesutik bereizi. Hain agerikoa da Zuzenbideak sistema autonomo gisa duen funtzionaltasun eza, ezen agintariak ere euren legedien bortxaketa sistematikoa gauzatzeko inongo lotsarik ere ez duten. Horren adibide garbia da alarma egoeraren deklarazioarekin gertatu dena: Zuzenbide Estatuaren desintegrazio materiala eman da Espainiako Estatuan, baliogabetasun juridiko egoera batean aurkitzen garelarik





alarma egoera deklaratu zen egunetik bertatik. Burgesiaren diktadura tekniko-ko egitate bat da.

Aurreko mendeko akordio programatiko interklasista handienek eta ongizate estatuaren eraikuntzan murgildu ziren estatu kapitalistek ez zuten horretarako inongo borondate subjektiborik. Nazioarteko oligarkiak gizarte kapitalistaren zimenduak kolokan zeuden unean besterik ez zituen bere egin eta mimetizatu Estatu Komunisten aldarriak, eta hauen bizi baldintzak. Une hauetan, zuzenbide burgesa tinta hutsa da eta antolakuntza komunista indartsurik ez da. Horregatik, ezinbestekoa da berdintasun materiala eta errealitate sozial hau bermatuko duen arautze modua posible egingo duen agente politikoaren berrantolaketa: masa alderdi komunistarena.

Prozesu honetan, Euskal Herrian, Gazte Koordinadora Sozialistak lehen egunetik agertu duen determinazioa eta inteligentzia politikoa aipagarriak dira. Kokiltzetik urrun, beren baliabide eta muga guztien jakitun, proletalgoaren interesei erantzuteko hainbat lan leerro plazaratu dituzte, inongo lotsarik gabe. Izan ere, iniziatiba politikoa eta erreferentzialitatea ez da dirua bildu eta banatzeko gaitasunaren arabera neurtzen, antolakuntzaren kualitatean eta gaitasun militantearen terminoetan baizik; bada garaia norabiderik gabe dauden sozialdemokratek krisialdi eko-

**Alarma egoera onartu den unetik aurrera hartu diren neurri guztiak legez kanpokoak dira. Neurri hauen izaera estrukturala (erreforma izaera) identifikatzeak soilik lagundu gaitzake gizarte eredu honen logika zapaltzaileari aurka egiteko geure interesen defentsa antolatua beste biderik ez dugula ohartzen**

nomiko-politiko-sanitario honetan ere hanka sartu dutela aitortzeko eta gidaritzatza politikoa programa komunistaren defendatzaileei aitortzeko. Bide beretik jarraitzen badute, euskal langileria faxismoaren oldarraldira eta amildegi politikora eramango dute.

Krisialdi ekonomikoaz dihardute inongo lotsarik gabe *gure* politikariek. Batasunera dei egiten digute, konfiantzara, konpromisora eta zuhurtziara. Baina herri sektoreen gehiengo zabalak jada igartzen du krisialdi ekonomikoa eta berak dakarren berrantolaketa politikoaren kontzientzia eta honek modu nabarmenean du isla bat-bateko elkartasun keinuetan eta are antolatuetan. Errefusa ditzagun *burgesiaren patriketara saltzen gaituztenak*; antolatu gaitezen eta har ditzagun kaleak. Babestu ditzagun gureak. Ilegalak ez gara gu, beraiek baizik: alarma egoera onartu den unetik aurrera hartu diren neurri guztiak legez kanpokoak dira. Neurri hauen izaera estrukturala (erreforma izaera) identifikatzeak soilik lagundu gaitzake gizarte eredu honen logika zapaltzaileari aurka egiteko geure interesen defentsa antolatua beste biderik ez dugula ohartzen. Datozen hilabeteak berebizikoak izango dira zentzu honetan, edozein unetan giltzaperatu ahal-ko gaituztelako. Langile politika independentea antola dezagun eta osasuna, egia eta askatasun politikoak borroka ditzagun. /



# DATOZEN LAN-ERREFORMAK

Testua **Adam Radomski**  
Irudia **Lander Moreno**

**Duela gutxi, 2012ko lan-erreformaren ustezko indargabetzearen berri izan genuen prentsan, sinatzaileak PSOE, Podemos-IU eta EH Bildu ziren. Hala ere, ordu gutxiren buruan ikusi zen kontua titularrak agindutakoa baino gutxiagoan geratu zela, zalantzarik gabe hasieran hitz handiagoak ziruditen. Alabaina badira ezkutatuta diruditen gauza batzuk, hain zuzen ere gure muturren aurrean ditugulako, eta merezi dute aipatzea.**

## ERREPASO LABUR BAT LAN-ERREFORMEI

**L**ehenik eta behin ulertu behar dugu Moncloako Itunen (1977) ondoren etorri ziren gobernuak hasi zirela lan-erreformak sortzen. Labur esanda, erreforma horiek adostasun nazional moduko bat ekarri zuten, frankismoko sektore irekienak eta parlamentuan ordezkartza zuten indar politikoak, patronala, CCOO eta UGT (hasieran aurka agertu zen arren) barne hartzen zituen. Testuingurua funtsezkoa da zergatia ulertzeko: alde batetik, krisi ekonomikoa zegoen, eta bestetik, otzantzea lortu ez zuten langile-mugimendu potentzialki iraultzailea. Bigarren horrek eragotzi egiten zuen hiperinflazio posible bati eta, ondorioz, kapitala metatzeko zailtasunei aurre egiteko beharrezko egokitzapenak egitea. Itunen ondorioen artean aipa dezakegu langile-mugimendua instituzionalizatu izana, zeinak haren baketzea ekarri zuen, eta ondorioz langileen kaleratze librea (gehieneko plantillaren % 5) eta orain oso ezaguna zaigun zerbait: aldi baterako kontratazioa. Orain ikusiko dugunez, gerora eragin handia izan du horrek.

Urteak pasa dira ordutik eta lan-erreforma ugari egon dira une hartatik hona. Sindikatuen parte-hartzea -edo ez- izango litzateke aldagaietako bat; izan ere, kasuren batean negoziazioetatik kanpo utzi zituzten edo ez zituzten akordioak babestu.



Esaterako, 1994an, Gonzalezek CCOO eta UGT sindikatuak kanpoan utzi zituen, eta haiek greba orokorrera deitu zuten Gobernuaren aurka, erreforma gogorrenetako bati erantzuna emateko, hain justu, kontratazioa malgutzeari (mugikortasun geografikoa, praktika-kontratua...). Gainera, gazteak lan-merkatuan sartzeko lehentasunarekin, aldi baterako lanerako enpresak sortu ziren. Baina 1997an jada berriro eseri ziren mahaian, Gobernuarekin eta patronalarekin batera, eta kontratazio finkoagatik eta kaleratzeengatik kalte-ordaina merkatu zuten.

Beste erreforma garrantzitsu bat 2008koa izan zen, hain justu, beste krisi bat iritsi zen garaian, atzeratu egin bazen ere negoziazioen ondorioz. Enpresa askoren porrot arriskuaren aurrean, kaleratzea merkatu egin zen (ondorioak ordaintzen aurrenak garelako), eta FOGASari kalte-ordainaren zati bat ordainarazi zioten. Pentsioen erreforma ere sartu zen, erretiroa 67 urtera atzeratu zen eta, oro har, lanaldi partzialeko enplegua sustatzen zen «krisitik ateratzeko» neurri gisa. 2011n lehentasuna eman zitzaion enpresa-hitzarmenari, probintzia-hitzarmenaren gainetik.

## 2012KO ERREFORMA ZITALA

Eta azkenean, indargabetu nahi omen den erreformara iritsi gara. Testuinguruan jartzeko: garai horretan, Espainiako Estatua krisi ekonomiko latzean zegoen, eta finantza-erreskatea eskatuko zuen; oraingoan, «elkarrikeria soziala» eskatu beharrean, PPK lege-dekretua erabili zuen, eta hori, jakina, ez zitzaion gustatzen sindikatuak, aurreko erreformetan parte hartu zuten «itun sozialetatik» kanpo kokatzen baitzituen. Baina zertarako kontatu behar zuen burgesiak sindikatuarekin, azken horien mobilizatzeko gaitasuna askoz txikiagoa bazen? Datu pare bat: 1978an, Moncloako Itunak egin eta gutxira, ondoren etorriko zen desmobilizazio masiboaren aurretik, soldatepeko langileen % 54,37 afiliatuta zeuden. Aldiz, 2011rako % 15 inguruko zifrak ditugu. Orain, «itun sozialetatik» kanpo utzi dituztenez, Moncloako Itunak aipatzen dituzte; ordea, sindikatuen urrezko garaiak igaro dira.

Erreformak, oro har, soldaten debaluazioa ekarri zuen krisiari aurre egiteko modu gisa, kaleratze are merkeagoa (33 egun lan egindako urte bakoitzeko), eta besteak beste, baita ekintzaileentzako kontratua ere (kontratu finkoa, baina urtebetez doan kalera-



**Austeritate politikak ez dira ezerezetik ateratzen, «itun sozialak» urte askoan zehar joan ziren osatzen, CCOO, UGT eta, noski, PSOEn parte-hartzearekin**



tzeko aukera). Enplegu erregulazioko espedienteak (EEE) eta aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteak (ABEEE) erraztu ziren, enpresa-hitzarmenari lehentasuna eman zitzaion sektoreko hitzarmenaren gainetik, eta absentismoa zigortu zen.

Egiari zor, aitortu behar da gauden egoera ez dela PPren kontua. Izan ere, austeritate politikak ez dira ezerezetik sortzen; «itun sozialak» urte askoan zehar joan ziren osatzen, CCOO, UGT eta, noski, PSOEren parte-hartzearekin. Nola geunden eta nola gauden erakusteko: 1976an kaleratzeak justifikatuta egon behar zuen, eta ez bazen hala, langilea berriz hartu behar zen lanean. Kaleratzeengatik kalte-ordaina 10 urte artekoa izan zitekeen. Gaur egun, gehienez 2 urte ditugu, eta kaleratze bidegabea kasurik onenean. Pentsioei dagokienez, kotizatutako 10 urtetik (1985) 37 urtera (eta igotzen ari da) igaro gara 2020an.

### ERREFORMA BAT INDARGABETU?

Izan ere, zer lan-erreforma indargabetu dira orain arte? Konstituzioaren aurkakotzat jo direnak bakarrik, 2002koa adibidez (Aznarren «dekretutzarra»). Kontrara, indargabetu beharrean, aldaketak izan ziren erreformaren hainbat alderditan, baina bitartean egoera orokorrak okerrera egiten zuen langile klasearentzat. Sindikatuak dagokienez, greba orokorrak erreformekin alderatzen baditugu, ikus daiteke lehenak bigarreni erantzuteko deitzen direla, eta ondoriozta dezakegu CCOOren eta UGTren ekintza, denborak aurrera egin ahala, gero eta ahulagoa izan dela haien aurrean. Are gehiago, Lan Ministroak urtarilean adierazi zuen teknikoki ezin dela lan-erreforma indargabetu, eta indargabetu izatera, erreformari aldaketak egiten joan beharko luketela. Egun bat ere ez zen pasa indargabetzearekin atzera egin zutenerako, eta horrez gain, lehen azaldutakoak arrazoiak ematen ditu eskuinaren eta ezkeraren arteko dikotomiaz haragoko gakoak bilatzeko, horrek boluntarismora eta iragarpen mekanikoak egitera eraman ohi baikaitu.

Ofentsiba iraunkor batez ari gara, eta horregatik, «hobekuntzak» (lanbide arteko gutxieneko soldataren igoera, adibidez) gainerako neurriekin batera ulertzen baditugu, amarruren bat badagoela ikusiko dugu. Nora goazen ulertzeko, datu esanguratsua da PSOEren programak «Motxila austriarra» barne hartzen duela, hau da, banakako kapitalizazio-funts bat, erakunde pribatuek kudeatutako pentsio-funts bat, hilerok dirua jartzen joango garena, gure sol-datatik deskontatuta, kaleratzeengatik gure kalte-ordainak ordaintzeko, edo, bestela, erretiroaren osagarri gisa, kaleratzeekin gastatzen ez bada. Beste era batera esanda, kaleratzea ia doakoa da,



**PSOEren programak  
«Motxila austriarra»  
barne hartzen du. Hau da,  
banakako kapitalizazio-  
funts bat, erakunde  
pribatuek kudeatutako  
pentsio-funts bat**





## Ustezko indargabetzeak berez ez du ezer suposatzen, burgesiak egin nahi duena askoz kaltegarriagoa denean

oso komenigarria atzeraldi eta enplegu-suntsiketa masibo garaietan, eta pentsio-sistema errentagarri bihurtzeko ahalegina. Erretiroei dagokienez, gogorra dezagun kotizatu beharreko urteak igotzen ari direla, eta beraz, erretiroa lortzea gero eta zailagoa izango dela, lan gutxiago egongo baita. Are gordinagoa da egoera gizartetik kanpo kanporatutako proletarioentzat: beltzean kobratuz lan egiten dutenak edo zuzenean beti langabezian daudenak.



### ONDORIOA

Zinismo hutsa da PSOEk lan-erreforma indargabetzeaz hitz egitea, gainerako erreforma guztietatik independentea balitz bezala, are gehiago aurreko erreforma berea denean. Ustezko indargabetzeak berez ez du ezer suposatzen, burgesiak egin nahi duena askoz kaltegarriagoa denean. Baina politika kontuetatik harago, Ongizate Estatua desagitea da gai nagusia. Laburbilduz, lan-erreformek erasotutako gizarte-prestazioak ez dira produktiboak balioari dagokionez, gastu garbia baizik. Hori dela eta, krisi garai honetan, desegin egin behar dira, edo errentagarri bihurtu, «Motxila austriarra» duten pentsioak bezala. Are gehiago orain, irabazi-tasak Ongizate Estatua posible egiten zuen atalasearen azpitik egoteko joera duenean. Beraz, Ongizate Estatua likidatzea ez da «kolore» kontua; kapitalismoaren egiturazko beharrei erantzuten die, desagerpen hori alderdi batek ala besteak kudeatu. PSOE proletargoari eraso egiteko bide sozialdemokrata da, baina azken finean, ez dio eraso izateari uzten. Gainera, Estatuaren finantzaketaren zatirik handiena hartzekodun pribatuekin duen zorretik dator, zeinak defizit helburuak inposatzen baitituzte, eta horrek herrialdeak *de facto* murrizketak ezartzera behartzen ditu. Horregatik, COVIDaren krisiak gizendutako zorrarekin, gizarte-prestazioen -eta, oro har, gure bizi-baldintzen- aurkako eraso gogor bat aurreikus dezakegu; bitartean, datozen miseria puskak garai-pen gisa aurkezten zaizkigu. Azkenik, Ongizate Estatuaren krisia administratiboki arrazionalizatzen saiatzeak gizarte-laguntza kapitalaren beharren mende jartzea dakar, eta horregatik, irtenbiderik gabeko arazoa da. Kapitalismoa gizatasunez kudea daitekeela pentsa dezakegu, baina kapitalismoa da beti, bere legeekin, gu menpean eduki gaituena. /

KOIUNTURA  
Beñat Aldalur

# Dekadentzia eta kontrolean oinarritutako gizartea

**E**gia esateko, COVID-19aren krisialdiak nahiko ezustean harriatu gaitu, eta ohartu garenerako, geure burua aldaketa historikoen aurrean dugu. Oraingo, COVID-19ak eragindako aldaketen artean begienbistakoena kaleen kontrolaren hazkunde nabarmena izan da. Horrez gain, aurrekaririk gabeko beherakada ekonomikoa dugu muturren aurrean, eta krisialdi honen sentikortasuna udazkenetik aurrera hautemango dugu seguruenik. Testu labur honetan, egungo egoeraren ezaugarri nagusiak zerrendatzen eta garrantziaren arabera ordenatzen ahaleginduko naiz, krisialdiaren hainbat aspektu aipatuz.

#### **EKONOMIAN:**

Bi ezaugarri nagusi ditu aurrean dugun krisialdi ekonomikoak: irabazi ekonomikoen tasaren geldialdi globala, alde batetik, eta ekoizpen ereduaren modernizazioa bestetik, inteligentzia artifizialean eta robotikan oinarritutako iraultza tekniko berri baten orokortzearekin.

Azken hamarkadetak datu ekonomikoen beheranzko joerak finantziarizazioaren bidez estali dituzte mundu mailako instituzio ekonomiko garrantzitsuenek. Ekonomiaren zorpetze masibo batez hitz egin dezakegu II. Mundu Gerraz geroztik, baina egoera larriagoa bilakatu zen 1980. hamarkadaren ondotik. 2008ko krisialdiari ekonomiaren zorpetze are handiago batekin erantzun zitzaion, eta azken hau krisitik ateratzeko irtenbide eraginkor bat baino, krisialdi ekonomikoaren gibelera besterik ez da izan. Finantza instituzioek- diru funts internazionalak eta inbertsio- funts botere handia metatu dute azken hamarkadetan, zorrrez gainezka dagoen industria ekonomiak eta estatuek finantzen maileguko garatu duten menpekotasunaren ondorioz. Gaur egun, inbertsio enpresa gutxi batzuek mundu mailako ekonomia norabidetzen dute. Berrogeialdiak ekonomian suposatzen duen geldialdiak azken hamarkadako burbuilaren ezantza eragin du, eta leherketa honen ondo-

rioak ikusteke daude oraindik. Krisialdi testuinguruetan, ekonomiari kaudimena emateko etekinik sortzen ez duten sektoreen deuseztatena bultzatzen da, enpresa handien porrota, enpresa ertain eta txikien hondamena, zerbitzu sozialen murrizketak eta lan kaleratze masiboak eraginez, beste hainbat ondorioen artean.

Guzti horren muina gizarte industrial tradizionalaren krisialdia da. Oinarrian, lan- indar humanoa ekoizpen prozesutik kanporatzeko joera duten teknologia berrien agerpena daukagu. Ekoizpen bitartekoen etengabeko berriztatzea funtsezkoa da kapitalisten arteko lehian egituratzen den ekonomia batentzat. Ikuspuntu marxista oinarritzko batetik, horrela azalduko genuke egungo krisialdia: Giza lan indarraren esplotazioaren bidez metatzen du aberastasuna burgesiak. Kapitalisten arteko lehiaren eraginez, teknologia berriak sortzen dira etengabe, eta azken hauek ekoizpen prozesuetan txertatzearen ondorioz, giza lan indarra ez funtsezko bilakatzen dute. Antzina industria-makinek neurri apalagoan egin bezala, gaur egun robotikan eta inteligentzia artifizialean oinarritutako ekoizpenak lan indar humanoa ordezkatzeko joera dute. Ondorioz, azken hamarkadetan geroz eta krisialdi eramangaitzagoak garatzen dira, eta kontrara, ekoizpen ahalmena inoiz baino handiagoa da; ekoizpen eredu kapitalistaren krisialdi historiko batean murgilduta gaudela ondorioztatu dezakegu.

Intelligentzia artifizialean eta robotikan oinarritutako teknologien agerpen globalarekin lan eredu berriak mahai-gaineratuko dira hurrengo hamarkadetan; honen eraginez sakoneko aldaketak gertatuko dira orain arte ezagutu dugun lan- ereduaren baitan. Fabriken pisu kuantitatiboaren gainbehera, telelanaren eta aldi baterako lanaldien biderkatzea, langabezia estrukturala eta beste zenbait fenomenok ezaugarrituko dute lan diziplina berria, batez ere mende baldeko gizartean.

Burgesiaren gobernantza globala bideragarria egiteko botere politikoa

**2008ko krisialdiari ekonomiaren zorpetze are handiago batekin erantzun zitzaion, eta azken hau krisitik ateratzeko irtenbide eraginkor bat baino, krisialdi ekonomikoaren gibelera besterik ez da izan**

## Burgesiaren gobernantza globala bideragarria egiteko botere politikoa bere interesen arabera berrordenatzen ahaleginduko dira elite ekonomikoak, ekoizpen ereduan emandako berrikuntzekin koherentea izan dadin

bere interesen arabera berrordenatzen ahaleginduko dira elite ekonomikoak, ekoizpen ereduan emandako berrikuntzekin koherentea izan dadin. Honez gain, eguneroko bizimoduan ere sako-neko aldaketak eragingo ditu ekoizpen eredu kapitalistaren zaharberritzeak.

### POLITIKAN:

Politikari dagokionez, egungo tes-tuingurua demokraziaren krisialdiak ezaugarritzen du. Hauek dira gerta-kari horren elementu orokorrak: alde batetik, demokraziaren ustezko izaera anizkoitzaren ezabapena, botere- gune politiko garrantzitsuenek estatuz gaindiko lurraldetasuna eta izaera anti-demokratikoa baitaukate. Bestetik, eta aurrekoarekin harremanean, jen-dartearen erabakitzeko autonomia mi-nimoetara mugatzea, masa- psikologia dominatzeko tekniken perfektziona-menduen bitartez.

Jokaleku parlamentario- burgesean politika egiteko baldintza dirua da, eta pisuzko aldaketa politikoak ahal-bideratzeko finantziario handia behar da. Guztiz zorpetuta dauden estatue-tan- Espainia kasu- finantziarioaren zati handiena estatuez gaindiko insti-tuzioetatik eskuratzen da; banku zen-traletatik eta diru funts internaziona-letatik, batez ere. Testuaren lehenengo puntuan aipaturiko inbertsio- funtsen eta finantza instituzioen antolaketa ez

da demokratikoa, eta banku zentralak eta diru funtsak aplikatzen dituzten neurriek kaudimen ekonomikoaren irizpideari jarraitzen diote. Krisi tes-tuinguru batean, zorra kitatzeko modu eraginkorra politika sozialetan mu-rrizketak egitea izango litzateke. Tes-tuinguru horretan, estatu mailako al-derdiek estatuz gaindiko instituzioen interesetatik aldentzen diren politikak aplikatzeko aukera geroz eta urriagoa dute. Horrela, pluralismo politikoa be-re buruaren karikatura bilakatzen da. Alderdi anizkoitzetan oinarritutako de-mokraziaren desagerpen teknikoa ere gertatu daitekeela uste dut, alderdi ba-karreko sistema neo-faxisten goraka-daren eraginez. Eskuin muturra mun-du osoan zehar izaten ari den gorakada aipaturikoaren adibidea da.

Kapitalismoaren historian zehar masa psikologiak dominatzeko tekni-ken diseinua ez da gaur egungo kontua bakarrik. Alde batetik, gure bizitzeta-ko auzi garrantzitsuenen inguruan ez daukagu erabakimenik. Demokrazia parlamentario- burgesa antzerki hu-tsa da, huskerien inguruan bakarrik baitu eragina gure iritzia. Eta beste-tik, gizartea erabat homogeneizatuta dago, herritarren gaitasun intelektual eta praktikoak minimoetara mugatzen baititu burgesiak, lan- dizi-plina kapita-lista eta jendarte eredu burgesa onartu eta barneratzeko funtzioa baitute hez-

kuntza sistemak, masa komunikabi-deek eta aisialdi zein kultura eredu do-minatzaileak. Honenbestez, “ustezko” balore demokratikoen aitzakiapean, burgesiak bere botere erregimena zile-gitzen du. “Shockaren doktrine”, terro-rismoari eta beldurrean oinarritutako politikei, harrapatu gaituen pandemia gehitu behar diogu. Gainera, ideolo-gia erreakzionario guzti horiek neurri geroz eta autoritarioagoak baimen-tzen dituzte. Guzti horren oinarrian, jendartearen despolitizazio orokortua dago. Herritarren gehiengoaren arabe-ra, politikaren esanahia politikari pro-fesionalen jardunaren inguruan iritzia ematearekin parekatu da, eta eginbe-har kolektiboak politikari profesionalei de-legatzeak jendarte arduragabe bat sortu du, ustelkeriaren eta burokraziaren au-rrean babesgabea.

### KONTROLAREN GIZARTEA ETA ASKATASUN POLITIKOEN EZABAPENA:

Ikuspuntu marxista batetik, tekno-logiaren berezkotasun *anker* bati baino, honen erabilera sozialari erreparatu beharko genioke. Gaur egun, berrikun-tza teknologikoaren monopolioa bur-gesiaren eskuetan dago. Teknologia berriek ahalbideratuta, burgesia lan-gileriaren gaineko kontrola zorrozten ari da etengabe. Herritarren gaineko kontrol masiboari, askatasun politi-



## Askatasun politikoen aldeko borroka aktibatzea zeregin urgentea da ikuspegi komunista batetik. Askatasun politikoen alde egitea militatzeko baldintzak borrokatzea da

koen ebakipena erantsi behar diogu. Bi elementu hauek dialektika berdinen parte direla uste dugu: krisialdi testuinguruetan, masa zabalak bizimoduaren murrizketak inposatzen ditu burgesiak, eta horren eraginez subertsio sozialerako eta delinkuentziarako joerak biderkatzen dira azpiratuen artean. Ekonomia eta eguneroko bizitzan jazotako aldaketetara egokitzen du burgesiak legedia. Honenbestez, proletarizazio prozesua eta askatasun politikoetan murrizketak burgesiaren norabidetze autoritarioaren elementu osagarriak dira. *Gramscik* zioen bezala, estatuen partetik herritarren gehiengoarekin *pax sozialerako* minimoak hitzartzeko baliabide ekonomikorik existitzen ez denean, kontsentsu bidezko gobernuaren zuzeneko dominazio teknikak ordezkatzeko dute.

Herritarren gaineko kontrola hantzen ari da burgesia, askotariko teknologiek ahalbideratuta: kamerak kaleetan, lantegietan zein hezkuntza zentroetan, ordenagailuak, robotak, 5Gdun gailuak eta abar luze bat. Zuzeneko lotura existitzen da askatasun politikoen eta gure bizitzek daukaten independentzia- intimitate- graduaren artean. Beste modu batera esanda, herritarren bizitzaren gainean gauzatzen den intimitatearen urraketa oro, askatasun politikoen aurkako eraso zuzena da. Gainera, herritarren ingurua pilotatutako informazioa estrategia

anti-subertsibo eta kontrairaultzailetarako erabiltzen dela jakinda. Ez dut testuaren arreta ea neurri horiek herritarren gehiengoaren baimenarekin edo babesik gabe exekutatzen dituzten eztabaidara eraman nahi. Ez eta informazioaren jagoleak enpresa publikoak ala pribatuak diren ezagutzearekin ere: hemen funtsezkoa dena da guztiak burgesiaren interesen arabera direla.

Orain arte ezagutu dugun bizimoduaren moldarazi digute goizetik gaue-ra: Espainiako Gobernuak eta tokiko administrazioek ordutegien kontrola, biltzeko askatasunaren murrizketa eta debekuak eta abar luze bat inposatu dituzte. Aipaturiko neurriak txirotasun maila altuak dituen eta norbanakoen bakanak edota telelanean egituratzen den gizarte baterako aurrekari modura ulertu behar ditugu. Honenbestez, gure bizimoduak buruz gora jarriko dituen legedi aldaketak aurreikusi behar ditugu datozen urteetarako.

### KOMUNISTEN EGINBEHARRAK

Idatzi labur honi amaiera emateko eta testuan zehar aipaturiko errealtateari kontrajarrita, hiru elementu estrategikoko azpimarratu nahi ditut: Gizartearen zentzu komunistan antolatzearen beharra, askatasun politikoen aldeko borroka aktibatzearen urgentzia eta klase-borrokaren oinarritutako estrategiaren premia, aurreko bi puntuak barnebiltzen dituen kontzeptu orokor bezala ulertuta.

Egungo perspektiban, gizartearen antolamendu komunista batek gutxienez hiru elementu integratu behar dituela uste dut. Lehenik, komunismoak alternatiba proposatzea eta erakargarria izan behar duela uste dut. Inoiz baino baliabide material gehiago existitzen dira ongizate unibertsa bermatuta egon dadin, baina horretarako gizartearen ordenamendu kapitalista irauli beharra dago. Irmoki esanda, kapitalismoa irrazionala bilakatu da ekoizpen indarraren egungo garapena ordezkatzeko. Bigarrenik, izaera askatzailea eduki behar du komunismoak. Zapalkuntza modalitate ezberdinei

aterabide parekide eta justuak emateko gai izan behar du, eta askatasun kolektiboen zerrenda handitzeko gaitasuna eta borondatea erakutsi behar du alderdi komunistak. Azkenik, eta aurreko bi puntuarekin harremanean, jendarte arduratsu bat egituratu behar du komunismoak. Uste dut burokraziaren eta ustelkeriaren aurkako antidotorik onena egin behar kolektiboekiko artatsua den jendarte bat eraikitzea dela. Bide horretan, lan intelektualaren eta eskulanaren arteko banaketari amaiera jarri behar diogu, eta inteligentzia kolektiboan inbertitzea beharrezkoa da; zientzian, ikerketan, hezkuntzan edota eztabaida kolektiboan.

Askatasun politikoen aldeko borroka aktibatzea zeregin urgentea da ikuspegi komunista batetik. Askatasun politikoen alde egitea militatzeko baldintzak borrokatzea da. Dena dela, gure jardunak eta aldarrikapenak burgesiaren legedia eta erritmoak gainditu behar dituzte; boterea burgesiaren eskuetan dagoen bitartean eskubide kolektiboak ezegonkorra izango baitira.

Azkenik, aurrez aipaturiko elementuak klase-borrokaren oinarritzen den estrategia politiko batean barnebiltzearen beharra azpimarratu nahi dut. Izan ere, bestelako politikagintza eredu bat mahai-gaineratzea beharrezkoa da, egoera honen errudunak seinatzeko gai izango dena eta teoriatik eratorrita langile klaseko kideen arazoei aterabide praktikoa eskainiko dizkiguna. Klase-borrokak perspektiba historikoa txertatzen dio politikari; egungo eskaintza politikoa ezaugarritzen duten berehalakotasunaren eta estrategia faltaren aurrean perspektibaz aritzeko gai izan behar du langile klasearen alderdiak. Jokoa dagoena, gure egungo beharrez gain, gure ondorengoei utziko diegun errealtatea baita. /



# 1960-1990 ARTEKO MUSIKAGINTZA, BI MUGIMENDU

Testua    **Maddi Sarasua**

**Aitzineko artikuluan, zeharka aipatu nituen Euskal Kantagintza berria eta Euskal Rock mugimenduez, baina gaurkoan horietan jardun nahiko nuke luzeago. Izan ere, mugimendu interesgarriak dira zenbait ikasgai eta hausnarketa puntu ateratzeko.**

## 1. 1960-1980: EUSKAL KANTAGINTZA BERRIA

**E**uskal Kantagintza Berria, frankismoaren azken hamarkadetan kokatzen da, euskal nazionalismoaren eta euskal kultur adierazpideen berpizkundearen baitan, ETaren eta ikastolen sorreraren giroan, euskal literaturgintza eta euskara modernizatzeko urratsekin batera. Euskal Herriaren eta euskal kulturaren galeraren sentipenak sorturiko erreakzioak, autobaieztapen mugimendu orokorrako baten eskutik eraman zuen kantagintza-ren arloa ere. Ez Dok Amairu talde esanguratsuenaren barnean, gutienez hiru ulkerak ezberdintzen ditu Josu Amezagak: euskal kulturaren berreskurapen gisa ulertzen zutenena, nazio berreskurapen politikoa bezala hartzen zutenena (ETaren kultur frontea) eta kantagintza euskal estetikaren alderdi garrantzitsutzat jotzen zutenena (Oteiza).

Ez Dok Amairuk kultura tradizionalaren osagai batzuk (desagertzeaz zegoen txalaparta, dantza eta kopla zaharrak) musika molde berriekin batera altxatu zituen oholtzara. Baina, kantu tradizionalaz gainera, Yupanqui eta Brecht-en poema euskartuak, edo Vietnamgo gerlaz zein Estatu Batuetako beltzen borrokaz diharduten abestiak ere kantatu zituzten. Xabier Letek honela formulatzen du:


«Kantariak, espresio tresna desalienatzaile bezala hautaturiko euskara hizkuntza aldetik, berdin

euskal gizarte askatu batetarako borrokaren baldintzekin identifikatzen ziren aldetik, nazionalitate arazoan funtsatzen zuten beren betekizuna. Baina, era berean, internazionalagoa zatekeen humanismo sozial batekin ere solidarizatzen ziren (...) Zerbait gehiago ere bazen: zapalduen aldeko mezu bat, hain zuzen. Nahi den bezain sentimentalki eta primarioki formulaturiko herri eta klase zapalduen aldeko solidaritatea».

Kantagintzaaren hedapena, egitura hegemonikoetatik at, euskal azpiegitura propioak eratzeaz zor zaio, disketxeen eta herri irrati batzuen sorrerari, baina, batik bat, aitzineko artikuluan aipatu genituen kantaldiei. Kantaldiez esanguratsua da urte batzuetan euskarazko kantagintza kasik ez existitzetik, herrietako jai eta ekitaldietan ezinbesteko osagai bihurtu zela. Horietan, Amezagak azpimarratu bezala, gerta zitekeen «Baga Biga Higa» bezalako kanta eta hitzezko ikuskizun batean entzulegoaren gehiengoa erdalduna izatea.

Kantaldi horiek, euskal gizarteak bizi zituen uneko arazoak agertzeko gune bihurtu ziren, elkar truke horretan, euskal kultura eta euskara herri izateko berreskuratu beharreko ezaugarri soilak baino, eguneroko arazoei aurre egiteko hizkuntza eta kultura bilakaraziz. Diktaduraren menpeko garaia zen hura, eta horrek baldintzatzen zituen euskal langile klasearen bizipenak, baita, aldi berean, Euskal Kantagintza Berriaren izaera ere. Julian Lekuonak honela idatzi zuen 1966an *Zeruko Argian*:

«Ezin gindezke orain uso txuriaren historia triste kantatzen hasi, hori baiño tristeagoak badaudelako. Uso txuria gure Euskal Herrietako tximinietako keak aspaldi beztu zuen (...) Ezin giñezke gauza politak bakarrik kantatzen ibili. Herriak gizarte batean bizitzera esnatu behar du. Eta kan-



tuak indar handia duela iruditzen zait euskaldunen artean jendea pizteko».

Errepresioak eta ezarritako sistema politikoaren aurkako borrokaren indartzeak konpromiso politiko gero eta nabarmenagoa hartzera bultzatu zituen kantariak.

## 2. 1980-1992: EUSKAL ROCK MUSIKA

Iraola eta Xalbardinek azaldu gisan, erreforma izan zen Euskal Kantagintza berriaren agorpena ulertzeko faktore garrantzitsua. Ordu arte sistemaren aurka agerturiko sektore batzuk sistema politiko berrian integratu ziren eta berrosaturiko hegemoniak euskal kantagintzaren eraldakuntza eta gainbehera eragin zuen. Ez Dok Amairuren zatiketaren azpian agertzen ziren bi joera azaleratu ziren berriz ere: kantagintza koiuntura politikoari zuzen erantzuten ahalegintzen zena bata, eta kantagintza eremu autonomoagoa bihurtzea aldarrikatzen zutenena bestea.

Hegemonia berri horrek, bistan da, ez zituen gizartearen sektore guztiak bere baitan hartzen. Diktadurapean, euskaltasuna bere osotasunean sistematik baztertuta bazen, sistema berrian, hein batean, onartuta zegoen, baina euskal klase menperatzaile berriei onarpen horrek beren hegemonia eraikitze balio zien heinean bakarrik. Aldiz, gizarteko sektore batzuk horretatik kanpo gelditu ziren, adibidez, gazteria.

Sistema berriaz ziren esperantzak nahiko azkar zapuztuko ziren. Horrez gain, gatazka politikoaren ondorioz, errepresio latza jasanen zuen gazteriak. Bestalde, sistema ekonomikoak ere ez zuen lortuko gazteria bere hegemoniaren azpian hartzerik: gazteen langabezia % 40 eta % 50 artan kokatu zen. Sistema politikoaren irekidurak bultzaturiko kon-

tsumismoa eta norbanakoaren autonomia kultur balore berriak, kontraesanean sartu ziren kontsumitu ezinik eta ezin familiatik atera aurkitzen ziren hainbat gazteren errealitatearekin.

Lan prekarioek eta langabeziak, sistema berriaren desilusioak eta errepresioak gazteriarengan daktaren etsipena eta etorkizun ezaren sentimenduan hartzen du lur «no future» leloak. 1976an, Londresen, krisialdi ekonomikoaren eta desmobilizazio politikoaren testuinguruan sortu zen punk mugimenduak ukazioa izango du bere oinarrian: norbera ukatzen duen errealitatearen ukazioa. Punk estetika gizartearekiko desafioa da: kateak, bota militarrik, txakur lepokoak, belarrietako kateorrazak, eta estetika «normalak» errefusatzeko duen guztia. Punk mugimendua antisozial bezala definitu zen, deus eskaintzen ez dion gizartearen aurkakoa; ez du teorizazio oinarriarik, bat bateko bizipenetatik sortzen da, gizartea eraldatzeko proiektu batetik baino.

80ko hamarkadaren hastapenetik goiti ehunka talde osatuko dira Euskal Herrian, Hertzainak taldeko Josuk azaldu zuen moduan: «Punkiek erakutsi dute ez dela musikari handi bat izan behar zu bezala bizi den jendearen aurrean adierazteko». Kultur elitismo ororen aurkako deia zen. Disketxeak eta fanzineak sortu ziren, baita irrati libreak eta kontra informazio sareak ere. Baina oroz gainetik, musika talde horien azpiegiturako funtsezko zutabea gaztetxeak izan ziren.

Gatazka politikoak gizarteko sektore ezberdinen muturretartzea edo polarizazioa ekartzen du, eta arrazoi ezberdinengatik indarrean dagoen sistemaren aurka daudenek hainbat unetan topo egiten dute. Horrela ulertzen da «Rock Radikal Vasco»-ren sorrera eta garapena, bai eta mugimendu horren eta ezker abertzalearen arteko elkar trukea ere. Erre-

**HERTZAINAK**

*«Euskalduna erriberan beti  
izan da aldarrikatzailea,  
batzuk erreformarekin  
konformatu dira eta  
orduan euskalduntasunak  
jada ez du balio»*





**Bi mugimendu hauek  
botere sistema  
hegemonikoak  
zapalduko sektoreetatik  
sortu ziren eta kultur  
adierazpide indartsuak  
osatu zituzten bakoitzak  
bere garaian, eta  
masa mugimenduak  
mugitzaileen eragin  
kulturala suposatu zuten**

presioak leku zentrala izan zuen, eta tortura, presoak, hildakoak, polizia, estatua, edo borroka armatua ohizko gaiak izan ziren musika talde horien kantuetan.

Euskararen gaiarekin bukatzeko, adierazgarriak dira aipu hauek:

«Euskalduna Erriberan beti izan da aldarrikatzailea, batzuk erreformarekin konformatu dira eta orduan euskalduntasunak jada ez du balio».


«Guk euskaraz kantatzea erabaki genuen inor ez zelako euskaraz kantatzen ari eta rockak, definizioz, boterearekiko molestoa izan behar baitzuen».

«Euskadin, punka izan behar bazen, euskaraz izan behar zen».

Ikusi dugunez, euskal musikagintza errealitatea ezin da ulertu prozesu politiko eta sozialei so egin gabe. Bi mugimendu horiek botere sistema hegemonikoak zapalduko sektoreetatik sortu ziren eta kultur adierazpide indartsuak osatu zituzten bakoitzak bere garaian, eta masa mugimenduak mugitzaileen eragin kulturala suposatu zuten. Agerian gelditu da, zapalduaren bizipenetatik jalgitzen den adierazpide kultural errebelde batek harrezakeen dimentsioa, baina bereziki, norabide politiko iraultzaile bat daukan mugimendu baten baitan horrek harrezakeen indarra, baita azpiegitura eta adierazpen bide propioak eratzearen garrantzia ere. Azkenik, iraganari begira jabetzen gara, euskara kontra hegemonikoaren, zapalduaren eta iraultzaileen ezaugarri izan den heinean hurbildu izan direla hainbat langile sektore euskarara eta mugimendu borrokalariari osotasuna emateaz gain, horrek eman izan diola zentzua eta indarra euskarari. /

ERREPORTAJEA

# Pandemia eta segurtasun globala, urbearen aurkako nazioarteko akordioa



COVID-19ak eragin duen salbuespen egoerak, ezinbestean, «segurtasun nazionala» aitzaki duten esku-hartze polizialak aztertzeke analisiaren beharra zabaldu du. Hain zuzen ere, izurrite eta osasun larrialdian burgesia internazionalak langile klasearen aurka erabili duen ekinbideak, indartu baino ez du egin indar polizialen ekintza humanitarioek ezkutatzen duten estrategiaren hipotesia, nahita eragindako izurritea izan denaren susmoak indarra hartzearekin batera. Izan ere, esku-hartze horrek agerian utzi du azken hamarkadan garatu den defentsa kontzeptuaren helburua: lankidetzaz zibiko-militarra eta gastuak murrizteko estatuen ekintza koordinatua. Erreportaje honek NATOko kide diren estatuak eta Europar Batasunak halako agertokietan esku hartzeko adostutako estrategietan jarri du begirada. Idatziak NATOren 2009ko konferentziazik sendotu diren auziaren gaineko akordioak aztertzen ditu, bertan hasi baitzen marrazten eragindako osasun pandemiari aurre egiteko «defentsa kontzeptu berria». Era berean, Lisboako

Testua  
Irudia

Arteka  
Zoe Martikorena

konferentzian (2010) adostutako estrategia horren garapenaren zatiak eta *Smart Defence* kontzeptuaren azalpena jaso dira. Europar Batasuneko defentsa buruek «Ganteko ekimenean» (2010) izen bereko hirian garatu zuten *Pooling and Sharing* ekinbidea ere jaso da. Amaitzeko, hori guztia munduko biztanleriak hurrengo hamarkadetan biziko duen urbanizazio-prozesuaren aurreikuspenetan kokatu da, alegia, *Fourth Generation Warfare* teoriaren baitan: «intentsitate txikiko hiri-gerra». Horretarako, *A chi sente il ticchettio* (2009) liburuan, beste hainbat testurekin batera, argitaratu zen *Eserciti nelle strade* (Armadak kaleetan) dokumentua erabili da.



## SALBUESPEN ETA SETIO NEURRIAK, BEGIRADA BAT PANDEMIETAKO ESKU-HARTZEARI

Hona hemen, XVIII. mendearen amaierako erregelamendu baten arabera, hiri batean izurria deklaratzeko zenean hartu beharreko neurriak. Lehenik eta behin, banaketa espazial zorrotz bat: hiriaren eta lur eremuaren itxiera, noski, debekatua dago heriotza zigorpean eremutik irtetea, animalia alderai guztiak sakrifikatuko dira; hiria atal desberdinetan banatuko da, eta horietan intendente baten boterea ezarriko. Kale bakoitza intendente baten agintaritzapean geratuko da, eta hark zainduko du; uzten badu, heriotzarekin zigortuko dute. Izendatutako egunean, bakoitzari bere etxean itxeko aginduko zaio, eta ezingo du bertatik irten, heriotza zigorpean. Medikuek berak ixten du, kanpotik, etxe bakoitzeko atea, eta giltza berarekin eramaten du, ondoren sekzio-ko intendenteari emateko; hala, hark gordeko du berrogeialdia amaitu arte. [...]. Kaleetan ezingo da inor gehiago ibili, intendenteak, medikuak eta guardiako soldaduak baino; baita «beleak» deritzenak ere: «balio gutxiko jendea- infektatutako etxeen artean gorputzak garraiatzen dabilzanak. Bost axola dio azken horien heriotzak: «hildakoak lurperatzen dituzte, etxe eta kaleak garbitzen, ofizio doilor eta zital asko egiten dituzte». Ebakitako, mugiezin eta harri bihurtutako espazioa. Bakoitza dagokion tokiari itsatsita dago. Eta mugitzen bada, horretan doakio bizi-tza, kutsatzea edo zigorra.

Ikuskapenak etengabe funtzionatzen du. Begirada, nonahi, mugimenduan dago: «milizia-gorputz handi bat da, ofizial onek eta jende onek gidatuta», guardia-gorputzak ateetan, udalean eta sekzio guztietan, herriaren obedientzia handiagoa izan dadin eta magistratuen autoritate absolutua izan dadin, «baita desordena, lapurreta eta arpilatze guztiak zaintzeko ere». Ateetan, zaintza-postuak; kale bakoitzaren muturrean, zaindariak. Egunero, intendenteak bere ardurapean duen sekzioa zeharkatuko du, sindikoek beren eginkizuna betetzen

duten edo bizilagunek kexak dituzten jakiteko; «haien ekintzak zaintzen dituzte». Egunero, halaber, intendentea bere ardurapeko kaletik pasatuko da; etxe bakoitzaren aurrean geratuko; bizilagun guztiak leihotara aterako dira (patioaren aldean bizi direnek leiho bat dute esleituta); bakoitzari bere izenez deituko zaio: guztien egoeraren berri emateko, banan-banan, «eta, horretan, auzotarrak behartuta egongo dira egia esatera heriotza zigorpean»; baten bat leihoan agertzen ez bada, medikuak arrazoia galdetuko du; «horrela, etxe horretan hildakorik edo gaixorik ezkutatzen ote duten jakiteko». Bakoitza bere kaiolan sartuta, bakoitza bere leihora hurbiltzen da, izendatua izatean erantzuten du eta deitzen zaionean bere burua erakusten du, bizidunen eta hildakoen aldizkari handia da.

Zaintza hori erregistro iraunkorreko sisteman oinarritzen da: medikuen txostenak intendentei, intendenteen txostenak errejidoreei edo alkateari. Itxialdiaren hasieran, hirian dauden auzotar guztien eginbeharra ezartzen da, banan-banan; «izena, adina, sexua, salbuespenik gabe» jasoko da; sekzio-ko intendentearentzat ale bat emango zaio, beste bat udaletxeko bulegorako, eta beste bat intendenteari. Hark egunero zerrenda pasa ahal izateko. Bisitetan ikusten den guztia - heriotzak, gaixotasunak, erreklamazioak, irregulartasunak - jasoko du, eta intendentei eta magistratuari jakinaraziko die. Medikuzainketen gaineko aginpidea dute; mediku arduradun bat izendatuko dute, eta beste inork ezin ditu gaixoak artatu, botikariek ezingo dute botikarik prestatu mediku horren baimenik gabe, aitorleek ezingo dituzte gaixoak bisitatu, «magistratuak jakinaren gainean egon gabe, gaixo kutsagarriak ezkutatatu eta tratatzea eragozteko». Patologikoaren erregistroak etengabea eta zentralizatua izan behar du. Bakoitzak bere gaixotasunarekin eta heriotzarekin duen harremana boterearen

instantziek, haren mende jartzen duten erregistroak eta hartzen dituzten erabakiek baldintzatzen dute.

Gune itxi hori, zatikatuta dago, zaindua, puntu guztietan, auzokideak leku finko batean giltzapetuta daude, mugimendu txikiak kontrolatuta, gertatzen diren guztiak erregistratuta, etenik gabeko idazketa-lanak zentroa eta periferia lotzen ditu, eta boterea osorik egikaritzen da, pertsona bakoitzari dagokion hierarkia ezarriko zaio. Bizirik daudenak, gaixoak eta hildakoak, guztiak dagokien lekuan eta dagokion papera betetzen. Hori guztia da diziplina dispositiboaren eraginkortasuna. Izurriteari ordenak erantzuten dio; nahaste guztiak askatzea du helburu: gorputzak nahastean direnean transmititzen den gaixotasunarena; beldurrak eta heriotzak interdiktak ezabatzen dituztenean biderkatzen den gaizkiarena. Bakoitzari agintzen dio bere lekua, bakoitzari bere gorputza, bakoitzari bere gaixotasuna eta bere heriotza, bakoitzari bere ongia, bere jabetza, nonahiko eta nolanahiko boterearen eraginez; zeina modu erregularrean eta etengabean banatzen baita gizabanakoaren azken determinaziora arte: ezauzarritzen duena, dagokiona, gertatzen zaiona. Nahastea den izurritearen aurka, diziplinak bere boterea, analisia, baliarazten du. Izurritearen inguruan jaia- ren fikzio literarioa egon da: lege esekiak, interdiktu ezabatuak, pasatzen den denboraren frenesia, gorputzak errespeturik gabe nahastuz, moztorra kentzen duten banakoak, beren estatutu-nortasuna eta horiek ezagutzeko figura alde batera uzten dituztenak, eta guztiz bestelako egia bat agertzen uzten dutenak.

Baina izurritearen diagnostiko politiko bat ere egon da, guztiz alderantzizkoa dena: ez festa kolektiboa, baizik eta partizio zorrotzak; ez lege urratuak, baizik eta erregelamendua existentziaren xehe-tasun txikienetaraino eta boterearen funtzionamendu kapilarra bermatzen duen hierarkia; ez jartzen eta kentzen diren

*azalak, baizik eta bakoitzaren «egiazko» izena, «egiazkoa» gorputza, «egiazko» bizilekua, eta «egiazko» gaixotasuna.*

*Izurriteak, aldi berean, desordenaren forma erreal eta imaginario gisa, diziplina du korrelatu mediko eta politikotzat. Diziplina-dispositiboen baitan, nahasmenean agertu eta desagertu, bizi eta hiltzen diren gizabanakoen «kutsatze», izurrite, matxinada, krimen, lausotasun eta desertzioen obsesioa irakurtzen da.*

**M. FOUCAULT**

BEGIRATU ETA ZIGORTU:

ESPETXEAREN SORRERA, 1975





**S**egurtasun nazionalaren izenean, pandemietan esku hartzeak nazioarteko ofentsiba ezkutatzeko agertoki paregabe bilakatu dira. Inteligentzia militar estatubatuarrek «segurtasun zibilean» esku hartzeko baliatu zituen 2001eko irailaren 11ko Dorre Bikien aurkako eraso, Amerithraxaren krisia eta baztanga birusa erabiltzeko aukera. Horrela, hiri-ingurunean jarduteko prozedura operatiboak egokitu zituzten. Antrax direlakoek (kanbun-koarekin egindako erasoak) eman zioten izena FBIak Amerithrax izenarekin garatu zuen operatiboari. Adierazgarria da oso, eraso horiek 2001eko irailaren 18tik urriaren 9ra bitartean gertatu izana. Komunikabide handienetara bidalitako karbunko-hautsa zuten korrespondentziak izan ziren.

Polizia-operazioa herritarren askatasuna murrizteko erabili zen. Antraxak eragindako beldurrak Lege Patriotikoa sinatzeko balio izan zion Gobernuari, askatasunak murrizteko eta erabateko zaintza egoera ezartzeko lehen urratsa. Zenbait ikertzailek adierazi zuten *Amerithrax* izeneko hautsa Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuaren programa biologikoaren barruko laborategi batean sortu zela. Superarma-mailarekin, nanoteknologiarekin sortutako antraxa; bilioi bat espora aurkitu ziren ale bakoitzeko. Hain zen hilgarria hurreman hutsarekin posta-zerbitzuko hainbat langile erail zituela.

USA Patriot Act-a lege federala da, Senatuak eta Ordezkarien Ganberak gehiengoz onartua. 2001eko urriaren 26an onartu zuten, Dorre Bikien eta *Amerithrax* erasoaren ostean. «Terrorismoa eragotzi eta oztopatzeko tresna egokiak eskainiz, Amerika batzeko eta indartzeko legea». Helburu nagusia «segurtasun agentzien gaitasuna hobetzea eta koordinatzea» izan zen, «zaintza-kompetentzia handiagoak emateko», baita «delitu berriak aldarrikatzeko eta terrorismoagatiko zigorrak gogortzeko» ere. Hainbat epaik Konstituzioaren aurkakotzat jo dute, Ameriketako Estatu Batuetako Konstituzioaren eskubideak eta bermeak

urratzeagatik. Izan ere, Lege Patriotikoa oinarritzko argudio batean oinarritu zen: «2001eko irailaren 11ko atentatuaren ondoren, Estatu Batuetako herriak bere segurtasunaren eta esku-bide konstituzionalen artean aukeratu behar zuen».


### — **NBQR mehatxuak, ofentsiba antolatzeak aukera paregabea**

Aurreko hamarkadan, osasun-arloko esku-hartzea indartu egin da, «segurtasun-eredua» planifikatzeko eta garatzeko agertoki gisa. Jatorri naturaleko edo nahita sortutako gaixotasunen agerpenen kasuan ikus daiteke hori (adibidez, Obama presidenteak 2014ko birusaren ondoriozko gaixotasunaren epidemia Estatu Batuen segurtasun nazionalerako mehatxutzat jo zuen). Ildo horretatik, ez da zentzugabea ziurtatzea agente biologikoak nahita

**Aurreko hamarkadan, osasun-arloko esku-hartzea indartu egin da, «segurtasun-eredua» planifikatzeko eta garatzeko agertoki gisa. Jatorri naturaleko edo nahita sortutako gaixotasunen agerpenen kasuan**



# NATOk 2009ko irailean egindako Konferentzian, *The Comprehensive nato CBRN Defence Concept* izenekoan, NBQR mehatxuen aurkako defentsaren norabidea aldatzea proposatu zuen, lankidetza zibiko-militarra indartzeko ikuspegian oinarrituta



erabiltzea (funtsean, agente biologiko kutsakorrek) ezinbesteko estrategia dela indar armatuen esku-hartzerako, NBQR (eraso nuklear, biologiko, kimiko eta erradiologikoak)- «mehatxu terroristak» babestutako jardueraren barruan.

Nazioarte mailan, NATOk NBQR «mehatxu terroristari» aurre egiteko lankidetza zibiko-militarra planteatzen du, eragindako ingurune epidemiko gisa izendatuta, eta hainbat hurbilketatatik egiten du. NATOk 2009ko irailean egindako Konferentzian, *The Comprehensive nato CBRN Defence Concept* izenekoan, NBQR mehatxuen aurkako defentsaren norabidea aldatzea proposatu zuen, lankidetza zibiko-militarra indartzeko ikuspegian oinarrituta. Horrela, NATOk Larrialdi Zibilen Plan-gintzako Batzordeak lankidetza horretarako gida ez-lotesleak proposatu zizkien estatu kideei, agintari zibilek eta indar armatuek elkarrekin aurrera eramandako esku-hartzeak indartzeko.

Ezarritako gidalerroek, besteak beste, ohar hauek azpimarratzen dituzte:

- ♦ Nazioek bermatu beharko dute gaitasun zibil eta militar guztiek eskuragarri egon behar dutela.
- ♦ Arriskua komunikatzeko estrategiek eta politikek nabarmendu beharko dute laguntza militarra behar dela horrelako gertakarietan.
- ♦ Nazioek ziurtatu beharko dute beren osasun-sistemek gaitasun militarren lankidetza eta integrazioa ahalbidetzen dutela.
- ♦ Nazioek agentzia zibil eta militarren arteko informazioaren integrazioa eta koordinazioa ziurtatu beharko dute.

Aldi berean, Europar Batasunak, ezarritako ekintza-planen barruan, NBQR segurtasun-sare bat sortu du Europa mailako koordinazio estrategiko eta operatiborako. Besteak beste, helburuen artean, segurtasuna arriskuan jartzen duten nahita eragindako agertokiaren aurrean beharrezkotzat ezartzen du lankidetza ekonomiko-militarra: eskualde mailako edo maila globaleko pandemietarako, «osasun-segurtasun globala» deritzona indar-

tu nahi du. Osasunaren Mundu Erakundearekin batera, behatzaile gisa, zenbait herrialdek 2001etik aurrera Segurtasun Globaleko Ekimena adostu zuten, osasun-hondamendiei aurre egiteko helburuarekin -gripe pandemiakoa ere bertan sartu zuten-.

2005ean, Munduko Osasun Erakundeak hegazti gripeagatik pandemia deklaratu zuen. Hala, ekinbidea NBQR mehatxuetatik haragoko egoeretara zabaldu zuten. Akordioari lotutako egoeretan, segurtasun globalaren arriskuen barruan sartu ziren gaixotasun kutsagarriak.

Horrela, indar armatuen jarduera protokolizatu zuten agertoki horietan, bai NATOren bidez nazioartean, bai plangintza nazionalen bidez. Hain zuzen ere, agerraldi epidemiko eta pandemikoei aurre egiteko kolaborazio zibiko-militarrak gaitasun eta baliabide militar eta zibilen batuketari egiten dio erreferentzia, aginte bateratuaren kontzeptuan integratuta.

## HAMARKADA BERRIA, LARRIALDI EKONOMIKOA ETA HORREN ONDORIOZKO «SEGURTASUN GLOBALERAKO» MANIOBRAK

NATOk ekintza bateratuaren aldarria egin zuen Ebola gaixotasunaren agerraldiaren aurrean. NATOk, ofizioz, gaitzaren agerraldiaren aurrean, ekintza kolektiboa ebatzi zuen, *Smart Defence* doktrinaren pean. Lisboako Konferentzian (2010), Aliantzako herrialdeetako estatuburu eta gobernuburuak beren ekintzarako kontzeptu estrategiko berri baten definizioa adostu zuten: *Smart Defence*.

### Smart Defence

NATOren Segurtasun eta Defentsarako 56. txostenaren (*NATOren Smart Defence-a, EBren Pooling and Sharing-aren aurrean*) bigarren kapituluaren arabera, *Smart Defence* kontzeptu estrategikoak herrialdeei dei egiten die kolaborazio estua izan dezaten euren gaitasun militarrek garatzerako orduan; «kostu-eraginkortasuna murrizteko eta bikoiztasunak ekiditeko», eta

«herritarrek defentsaren eta segurtasunaren arloan gaitasun gehiago izan ditzaten». Hain zuzen ere, estrategia al daketa horren atzean arrazoi nabarmen bat dago: NATOren garaiko presidente zen Anders Rasmussenen hitzek argi diote, «finantza krisiak berekin ekar dezake segurtasun krisia ere, azpimarra berezia izan dezake gainera Europar Batasunean». Hori dela eta, txostenaren kapitulu horrek jasotzen ditu NATOren estrategia berriaren gaineko zehaztapenak.

♦ Indar multinazionalak hedatzeko gaitasun handiagoa ahalbidetzea.

♦ Ekintza-kostuak partekatzeo mekanismo berriak sortzea.

♦ Lankidetzaren industrialak sustatzea NATOren eta Europar Batasunaren arteko defentsan eta koordinazioan.

*Smart Defence (SD)* Aliantza Atlantikoko herrialde guztietako testuinguru ekonomiko gero eta zorrotzago bati emandako erantzuna da. Aliantzako kide diren herrialdeetako defentsa-gastuei buruzko zifrak aztertuz gero, Europako herrialdeen inbertsioak pixkanaka behera egin zuen krisi ekonomikoaren urteetan. Aldi berean, AEBen ekarpenak gora egin zuen pixkanaka. Era berean, azken horren interes geostrategikoak Ekialde Urru-ean nabarmendu ziren. Horri guztiari «beste arrisku bat» gehitzen dio dokumentuak: «Europa bi nazio-taldetan banatzeko aukera dago, segurtasun kolektiboari laguntzen diotenak eta pixkanaka atzean geratuko liratekeen beste batzuk; eta horrek aliatuen arteko tirabirak ekar ditzake».

Egoera horren aurrean, Segurtasun Agiriak argitu du NATOk defentsa industriaren dekretatzailerik eta nazioen arteko bitartekari gisa jardungo duela, «defentsa industria indartsu eta lehiakor bat» lortzeko, «defentsa politika kolektibo baten bidez». Hala, gerra merkatuaren «zatiketa» saihestu nahi da: «gastuak murriztea eta koordinazioa planifikatzea». SD ekimenean planteatutako lankidetzaren hiru premisaren inguruan egituratzen da: «lehenespena, espezializazioa eta

## **Smart Defence kontzeptu estrategikoak herrialdeei dei egiten die kolaborazio estua izan dezaten euren gaitasun militarren garatzerako orduan; «kostu-eraginkortasuna murrizteko eta bikoiztasunak ekiditeko», eta «herritarrek defentsa eta segurtasunaren arloan gaitasun gehiago izan ditzaten»**

lankidetzaren».

Lankidetzaren horretarako, dokumentuaren arabera, hiru etapa jarri behar dira jomugan: «teknologia eskuratzea, gaitasunak eskuratzea eta horiei eustea».

♦ Estatu mailan informazio esanguratsua eskuratzea.

♦ Esparru komun bat izatea, Atlantikoko harandikoko defentsa-lankidetzaren bideragarria izan dadin.

♦ Herrialde parte-hartzaile guztiek onartutako kontratazioaren eta lehia- ren gardentasun-arauak zehaztea.

♦ Herrialdeetako plangintza militarra ezagutzea. Funtsezkoa da gaitasunak, programa komunak eta abar planifikatzeko eta koordinatzeko.

♦ Teknologiaren gaineko kontrol-erregulazioen eragina Atlantikoa- ren bi aldeetan.

### **LOTURA TRANSATLANTIKOA ETA GATAZKA EKIALDE URRUNEAN**

Komenigarria da *Smart Defence*-aren ekimena sortzen den agertokia berriro testuinguruan jartzea. Lankidetzaren transatlantikoari buruzko kapituluaren arabera, «munduko grabitate-zentroa, ikuspuntu ekonomiko eta estrategikotik, Europatik Ekialde Urrunera lekualdatzen ari da».

### **Pooling and Sharing**

Panorama geopolitiko globalak gaitasun militarren elkartzea eta partekatzea behartu ditu Europako herrialdeak, *Pooling and Sharing* programaren bidez (2010). «Ganteko ekimena» delakoaren arabera (Ghent Initiative, EBko defentsa-ministroek Ganten, Belgikan, 2010eko irailaren 23an egindako bilera informala), helburua da «nazioen ahalmen operatiboak zaintzea eta hobetzea, eta eraginkortasun, iraunkortasun, elkarlarragingarritasun eta gastuan eraginkortasun handiagoa lortzea»; krisi ekonomikoak eta «Europako herrialdeetako defentsa-aurrekontuen gaineko presioak» bultzatuta. Testuinguru gisa beraz, ekimenaren elementu bultzatzailea krisi ekonomikoa eta defentsa-aurrekontuen gaineko presioa

izan dira.

2014an, Ebolaren agerpenera eta pandemietan esku-hartzera itzuliz, Europako Lidergo Sareak bi gutun idatzi zituen, bata NATOk idazkari nagusiari eta bestea NBEko eta OMEko idazkari nagusiari zuzenduta. NATOren laguntza eskatu zuen NBQR protokoloa aplikatzeko. Afrikako kutsatutako lurraldean erantzun militarrek ematea zuen gogoan Europar Batasunak, baita Europako herritarrak bertatik ebakutzea ere. Izan ere, Estatu Batuak, Frantzia, Alemania eta Erresuma Batua alde bakarrez ari ziren esku hartzen. Horrela, ekintza militarra koordinatzeko eta hedatutako unitate nazionalen zeregina gutxieteko beharra azpimarratu zuen, herritarren aurkako indarkeria eta larderia erabiltzea argudiatuz.

Jarduera hori bi ardatzetan egituratu litzateke. Alde batetik, Nazioarteko Osasun Erregelamenduaren aldaketak, kutsatutako lurraldean jardun ahal izateko eta «nazioarteko trafikoarentzako trabak saihesteko». Eta, bestetik, «nazioarteko intereseko osasun publiko larrialdi-egoera» deklaratzeko eta nazioarteko erakundeetatik zuzenean esku hartu ahal izatea, oztopo diplomatikorik gabe.

#### **FOURTH GENERATION WARFARE: INTENTSITATE TXIKIKO HIRI-GERRA**

Aliantzak milurteko berriaren erronkei aurre egiteko diseinatutako estrategiak NATOren *Urban Operations in the year 2020* (2003) txostenean sartzen dira. Tratatu hori *Eserciti nelle strade* artikulua aztertzen du, *A chi sente il ticchettio* (2009) liburuan argitaratutako testua.

Dokumentuaren arabera, NATOren txosten horrek baieztatzen du «militarizazioa ez dela geldituko eta gerran gaudela», eta «bakea eta indarkeriarik eza lortzeko hezkuntza», «jendea geldiarazteko arma» baino ez dela.

#### **Pobreziaren urbanizazio gero eta handiagoa**

Dokumentuaren tesia testuingu-

ruan kokatzeko, historian lehen aldiz, munduko biztanle gehienak hirian bizi dira. Eta hiri-populazio horren zati handi bat erabateko pobrezia-baldintzatan bizi da. Larrialdi Pandemikoen Azterketa Estrategikoen Espainiako Institutuaren 203. Estrategia Koadernoaren arabera, munduko populazioa bederatzi mila milioira iritsiko da 2050ean. Hazkunde hori Asian eta Afrikan garatuko da. 2050erako aurreikusitako munduko populazioaren erdia baino gehiago bederatzi herrialde hauek bilduko da: India, Nigeria, Pakistan, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Etiopia, Tanzania, Indonesia, Egipto eta Estatu Batuak. Hazkunde hori bereziki garrantzitsua izango da Saharatik hegoaldera dagoen eremuan; izan ere, kalkuluaren arabera, 2040an, eremu horretan 15-24 urte bitarteko biztanleria AEBetako baino hiru aldiz handiagoa izango da. Txostenaren arabera, XXI. mendeko beste joera demografiko nagusia urbanizazioa handitzea izango da. «2015ean hirietan bizi zen populazioaren ehunekoa, % 54, % 66ra arte haziko da 2050ean».

Biztanleria gero eta espazio estua-  
goetan biltzen denez, esku hartzeko eredu berriak egin behar dira, «hobeto kontrolatu eta esplotatzeko». NBERen *The Challenge of Slums. Global Report on Human Settlements* (2003) txostenaren arabera, gaur egun ia mila milioi pertsona bizi dira txabola-auzoetan.

Horixe da *Fourth Generation Warfare* (4GW) teoriaren funtsa, azken hogeitau urteetan definitu dena; «teoria hori, dirudienez, intentsitate txikiko mundu-gerra bati aurre egiteko berariaz eginga dago, hiriko proletalgoaren aurka». «Pobreen aurkako gerra da».

Liburuak dioenez, Europar Batasuneko mugen blindajea malgutu egin da teknologia berriekin eta mugaz gaindiko lankidetzekin, baina herrialdeen barnean zaintza eta kontrola etengabe areagotzen ari dira. Aurreko puntuetan aztertu dugun bezala, Europar Batasuneko organoek eskumen handiagoak garatu dituzte, eta programa berriak eta kooperazio-erakunde berriak jarri

**Biztanleria gero  
eta espazio  
estuagoetan  
biltzen denez,  
esku hartzeko  
eredu berriak egin  
behar dira, «hobeto  
kontrolatzeko eta  
esplotatzeko»**

**«Teoria hori,  
dirudienez,  
intentsitate  
txikiko mundu-  
gerra bati aurre  
egiteko berariaz  
egina dago, hiriko  
proletalgoaren  
aurka». «Pobreen  
aurkako gerra da»**









## Era berean, *Urban Operations in the Year 2020* txostenaren arabera, etorkizunean urbanizazioari lotutako tentsioak sortzeko joera hazi egingo da, «tokiko agintarien esku-hartzea ekarriko duten balizko altxamenduak, desordena zibilak eta segurtasunerako mehatxuak eraginez»

dituzte mahai gainean. Laburbilduz, liburuan adierazten denez, SD koordinazio eta lankidetzak horrek, aipatu bezala, gaitasunak zentralizatu eta gastuak murrizten ditu. Era berean, zirkulazioa kontrolatzeko eta atxilotzea azkarrak egiteko teknologia berrien bidez, bildutako informazioak eskuratzeko gaitasuna ematen die agintariei. «Europolek kudeatuko du 'Europako ekipo berezi' horien prestakuntza. [...] Polizia eta zerbitzu sekretuen arteko lankidetzak zabaldu egingo da. [...] EBko estatu kideen kopurua handitzearekin eta mugako kontrolak ezabatzearekin batera, berrarmatze teknologiko handia garatu da: ingurunea arakatzeko gauez ikustea baimentzen duen teknologia, bideozaintzarako teknologia automatizatua, inguruko gorputz-urak neurtzeko gai diren irrati-frekuentziak, geldirik edo mugimenduan dauden jakiteko... Gainera, zentral operatibo kodetu berriak sortu dira. Schengengo Informazio Sistema zabaltzearekin batera, poliziek datu gehiago egiteko gaitasuna dute. Migratzaileen hatz-markak eta datu biometrikoak biltegiratzeko, berehala aktibatuko da Bisatuak Informatzeko Sistema (SIV)».

Aipatu bezala, liburuak NATOren «2020rako hiri-operazioak» txostena aztertzen du, eta indar armatuak Mendebaldeko hiriguneetan esku hartzeko prestatzen ari direla aurreikusten du. Laburbilduz, beraz, Europako lurzoruan hiri-espazioa birdefinitzen duten indar-lerroak marrazten ditu artikuluak:

♦ Hiriko ehun «tradizionalaren» jentrikazioa eta bruselazioa, haren pisu historiko eta gatazkatsua alboratzeko, eta klase ertain planetarioaren neurriak

«egokitze» edo, hobeto esanda, bere ideologia gauzatuaren neurriak «egokitze». Izan ere, gizarte-geruza jakin gisa, badiardi gero eta joera handiagoa duela inplosio eta disgregazio atzeraz biderant.

♦ Barrakoipolis eta eremu marjinalen gorakada, bazterketa-eremuen gero eta antz handiagoa dutenak: «eremu hori da salbuespen-egoera lege bihurtzen hasten denean irekitzen den espazioa».

♦ Eta, azkenik, gated community direlakoak, 70. hamarkadatik aurrera instituzionalizatu zirenak. Zerbitzua hornitu propioak dituzten eremuak, polizia pribatuak, tresna elektrikoak eta beste hainbat teknologiek babestutako: «Kale, parke, hondartzak, ibai eta bestelako baliabideetara igarotzea eragozten duten harresiz eta kontrol-sistemez inguratutako bizitokiak». Bertze zainduta eta hesiekin, hormekin edo bestelakoekin mugatuta. Bizitoki burgesa, pixkana urperatzen duen ozeanoaren erdian ixten den bunkerra, behin merkatuak zin egindako konfort eta segurtasun-eremua gizarte osora zabaldu denean.

Era berean, *Urban Operations in the Year 2020* txostenaren arabera, etorkizunean urbanizazioari lotutako tentsioak sortzeko joera hazi egingo da, «tokiko agintarien esku-hartzea ekarriko duten balizko altxamenduak, desordena zibilak eta segurtasunerako mehatxuak eraginez». Baieztapen horren aurrean, liburuak adierazten du munduko biztanleriaren urbanizazio orokortuak nahitaez baztertu egingo dituela hurrengo esku-hartze militarak. Baieztapen horretatik abiatuta, zaintza-bitartekoen erabileraren hazkundera aurreikusten du «puntu neu-

ralgikoen aurkako ekintza taktikoak zuzentzeko», «urrutiko» eraso-bitartekoen bidez, informazio-fluxuak, giza baliabideak eta laguntza logistikoak kontrolatzeko. Liburuak dienez, NATOren txostenaren E eranskinean interes estrategikoko hiriak ez dira ez Teheran, ezta Pyongyang ere; baizik eta, Rouen, Le Havre, Evreux eta Dieppe.

### «*UO 2020*» txostena

NATOren *UO 2020* txostenaren arabera, hiriguneetan ekintzak modu operatiboan garatzeko oinarria USECT akronimoan egituratzen da: *Understand* (ulertu), *Shape* (modelatu), *Engage* (tematu), *Consolidate* (sendotu) eta *Transition* (trantsizioa).

Laburbilduz, metropoliko gizarte eta kultura-sarea ezagutzeko beharra aipatu behar da, «biztanleriatik bereizzenak dira sarritan matxinatutako errealitateak, populazio horren erdian jarduten baitute». Hiri-espazioa berariazko eskakizun teknikoetan oinarrituta birmoldatuko da. «Hiriaren inguruan itxitako setioaren antzinako praktika bertan behera utziz, hiri-lurraldearen zati konkretuak isolatuko dira». «Esku-hartzeari ekintza humanitarioaren itxura emango zaio». Egin behar belikoak populazioaren gaineko eraginak kudeatzeko jarduerak guztiak aurreikusi beharko ditu: «aurkari antolatatu ez direnei laguntzea, elikadura-hornidura, babes zibilararen orientaziopean boluntarioak biltzea...»; «aurkaria desantola dadin» irabazitako eremuak mantentzea, «baita tokiko agintariekin lankidetzan aritzeko moduak ezartzea ere». *The rule of law*-a, legearen domeinua, berrezar-



tzea, tokiko autoritateak eta armadak berrezarrit.

«Laugarren belaunaldikoa» edo «intentsitate txikikoa» den gerra-metodo horrek borrokariaren eta zibilaren arteko bereizketa tradizionalaren amaiera eta «militarizazio» figura berrien agerpena nabarmentzen du, Gobernu Kanpoko Erakunde humanitarioetara ino iristen direnak. Armamentuen zeregina lurraldean kontrol-teknologia aplikatzea da, «prebentziozko kontrola» helburu hartuta. Aldi berean, hiritarrak militarrek kaleak patruilatzen ikustera ohitu daitezten : «Inor ez dadin hatz bat mugitzera arriskatu (ezta erdikoa ere), nahiz eta hori baino ausartago eta/edo ikaratuago egon».

Laburbilduz, badirudi Estatu Militarizatuaren errealtatea sendotzen ari dela munduko biztanleriaren urbanizazioarekin batera. *Urban Operations in the year 2020* txostenak tresna militarren erabilera modulatzeko du. «Arma hilgarriak edo ez-hilgarriak erabiliko dira altxamendu eta matxinadak ekiditeko, geldiarazteko eta erreprimitzeko, izan ere, jada inork ez du matxinada horiek gertatuko ez direnaren itxurakeriarik egiten». /





# BURGESIAREN KONTROLPEKO ESPAZIOAK: KARTZELAK

Testua     Alain Arruti  
Irudia     Gaizka Azketa  
              Zoe Martikorena

**[Patxi Ruiz-i]** Beti esaten diote ordainduko duela, goiza heldu eta lotan jarraitzen duten eta inoiz esnatzen ez diren preso asko dagoela. Hildako preso asko ikusi du Patxik bere espetxe urteetan, eta egiazko beldurra sentitzen du. Esaten du nahiago duela borroka egin amak bere buruaz beste egin duela pentsa dezan baino.

**H**il honetako ikuspuntua, koiunturak hala behartuta edo, kartzelen ingurukoa izango da. Patxi Ruiz aurrera eramaten ari den borrokak guztion agenda politikoan zentralitatea hartu du eta, honakoa bere egoera sozializatzeko nire aletxoak izango da. Patxiren borrokaren omenez.

Kartzela modernoaren funtzio esentzietako bat gizakiaren askatasunaren pribazioa da, delituaren izaeraren arabera denboran erregulatzen dena. Miguel Castells-i irakurri nion duela urte batzuk kartzela anti-gizartea zela, hau da, kartzelak presoari ezartzen dion isolamenduaren ondorioz, presoak bere nexo sozialak apurtzen dituela. Baina aldi berean kartzela gizartea dela esentzian, egungo bigilantziaren gizartearen barne-nukleoa baita, zeinetan gizartean ematen diren klase-harremanak modu bortitzezanean pairatzen diren.

Egun, Espainiako Estatuko 69 presondegitan 50.000 presotik gora aurkitzen dira. Azken urteetako zenbakirik baxuena izanik ere, aurreikustekoa da kopuru horrek nabarmen gora egitea COVID-19aren krisiaren osteko urteetan. Izan ere, urtetik urterako preso kopuruaren fluktuazioak erakusten digu kartzelarekin penatutako delinkuentzia tasak harreman zuzena duela lurraldeko egoera ekonomiko orokorrenekin. Ekonomikoki egoera txarrean dagoen gizartearen sektorea izaten da biziraupenerako zuzenbide burgesak ezarritako legeak haustea beste biderik izaten ez duena. Horrela, munduko kartzelak estraktu sozial txiroenak betetzen ditu gehiengoan.

Kartzelak gizartetik kanporatzen ditu kapitalarentzat inproduktiboa den espektro soziala, proletalgoaren kapa baxuenak, edo historikoki azpi-proletalgoa edo lumpen bezala ezagutu izan direnak, bere lurretan ordena soziala mantentzeko. Lévi-Straussek kartzelaren izaera antropoemikoa (*emein* aditz griegotik dator, zeinak botaka egin adierazi nahi baitu) deitu zion horri. Hau da, kartzelaren bitartez diziplina sozial kapitalista onartzen ez duen gizakia bere organismotik kanporatzen da.

Kartzelaratzea edo, kartzelaratzearekin mehatxu egitea kode penalaren mekanismo ohikoena bada ere, funtzio esentziala presoaren zigor bidezko diziplinamendua da. Bestela esanda, proletalgo inproduktiboa kastiguaren metodoaren bitartez produktibo bilakatzea, balio-sistema kapitalista bere egitea eta, finean, merkatuarentzat subjektu fidagarri bihurtzea dira bere funtzio behinenak. Bergizartearatzea deitzen diote, modu apainean, kriminologo eta jurista burgesek. Nahiz eta, itxuraz, kartzelak baduen zerikusirik antropoemiarekin, hau da, gizabanakoa gizartetik kanporatzearekin, esentzian

antropofagikoa litzateke kartzelaren funtzioa, hau da, gizatzarra absorbatzetik probetxua ateratzea, lumpenaren izaera delinkuentea anulatu eta langile otzan bihurtzea. Gorputzaren asimilazioa makinaria kapitalistan.

Zentzu horretan, bi momentu bereiziko lirateke: presoaren borondatearen ukapena eta lanaren eta eguneroko errutinaren bidezko transformazio teknikoa. Kolpea eta diziplina.

Aurreneko momentuari dagokionez, motz gelditu zen Tocqueville jurista frantsesa esan zuenean aitzinako kartzelak gorputza erasaten bazuen, kartzela modernoek ariman kolpatzen dutela. Izan ere, kartzela modernoetako presoak jasan behar izaten duen tortura fisiko zein psikologikoa bortitza da. Behatu ditudan hainbat txostenen arabera, presoek gaixotasun somatiko zein psikologiko ugari izan ohi dituzte kartzelan, hala nola, bistaren galera, buruko min konstanteak, pertzepzio bisualaren deformazioa, entzumenaren galera, estresa, etengabeko tentsioa, muskuluen atrofia, identitate krisiak, antsietatea, ametsaren alterazioa, pisu aldaketa drastikoak, depresioa, suizidiorako tententziak etab. Gaixotasun edo patologia horietako asko kartzelaren beraren egitura espazialaren ondorio badira ere, eragin handia du presoaren autonomia guztiz anulatzen duten kontrol zein errepresio mekanismoen etengabeko presentziak ere. Egunerokotasunean pairatzen den intimitate faltak, kartzeleroen mehatxuek, isolamendu ziegak, presoaren arteko liskarrek etab. presoaren egoera psikologikoa suntsitzen dute. Aipatutako guztiak marko orokor zaurgarri bat marrazten du presoaren bizitzan, eta horrela kartzela-instituzioak presoaren borondatea apaltzen du.

**Zentzu horretan, bi momentu bereiziko lirateke: presoaren borondatearen ukapena eta lanaren eta eguneroko errutinaren bitarteko transformazio teknikoa. Kolpea eta diziplina**



**Kartzelaren existentzia  
justifikatzen duen  
printzipioa klase  
printzipioa bada, hau da,  
kartzelak proletalgoaren  
sektore ez-produktiboak  
produktibo bihurtzeko  
zentroak badira,  
estatu sozialistaren  
instaurazioak kartzelaren  
esentziarekin amaitzea,  
eta horrenbestez,  
kartzela modernoaren  
abolizioa ekarri behar du  
ezinbestean**

Bigarren momentua, transformazio teknikoarena, aurreko guztiak eraikitzen duen borondate otzanari forma ematea litzateke. Melossi eta Pavarani italiarrek kriminalaren bergizarteratzearen bide luzearen amaierako produktu gisa irudikatu zuten; presoaren lasterketa moralaren azken portua, delinkuentea proletario bihurtzen den momentua. Egunerokotasunean markatzen diren denbora tarte zurrunen eta soldatapeko lanaren zein bestelako aktibitate diziplinarioen zein kartzelako mekanismo ideologikoen (hitzaldiak, terapiak,..) bitartez lortzen dena.

Horren adibide literarioenak gurean Axularrek paratu ditu, *Gero* bikainean. Han, besteak beste, dio gizatzarrei onbide emateko modu bi izan direla historian hedatuena: kanpo-gerraren batera bidaltzea soldadu, edota lanean jarriaraztea, beste gabe, errebolta-kontuetan edo pentsatzen has ez zitezen.

*«Pisistrato tirano gaixto hark ikhusi zuenean plaza guztia jende alferrez bethea, eta hetarik anhitz malizia eta pensu gaixto sor zitekeiela, dietu zituen guztiak beregana. (...) Eta igorri zituen lanera eta trabailura iduriturik ezen halatan etzutela kalterik eginen, maliziarik pentsatuko, eta ez herririk nahasiko»*

Kartzela modernoak proletalgoaren osasun fisiko zein psikologikoa suntsitzeko egindako makinaria erraldoiak dira. Proletalgoaren bizi-grina suntsitzeko zentro espezializatuak, presoaren autonomia zantzu guztiak deboilatzen dituen eta etengabeko beldur bitartezko kontrol bortitz batera azpiratzen dituen. Kartzelaren existentzia justifikatzen duen printzipioa klase printzipioa bada, hau da, kartzelak proletalgoaren sektore ez-produktiboak produktibo bihurtzeko zentroak badira, estatu sozialistaren instaurazioak kartzelaren esentziarekin amaitzea, eta horrenbestez, kartzela modernoaren abolizioa ekarri behar du ezinbestean. Amnistiaren atzean, Euskal Estatu Sozialistaren aldarrikapenaren atzean, harreman sozial komunisten genesisia ezkutatzeko da, zeinetan espetxe-instituzio modernoak lekuri ez duen. Apurtu ditzagun, bada, preso mantentzen gaituzten hesiak. /





# ARTISTA PROLETARIO GISA

Testua **Paul Beitia**  
Irudia **Aleksandr Ródcenko**

**A**pirilaren hogeita batean eta hogeita bian, greba digitala egin zuten Euskal Herriko kultur esparruko zenbait langilek eta eragilek. Hainbat izan dira bi egun horietan, eta aurretik eta ondoren, gaiari heldu diotenak –hainbat deialdia defendatzen saiatu direnak eta beste hainbat kritikatu dutenak–, eta zalantza sor dakioke bati ea haren inguruan ezer berririk esan ote daitekeen honezkero. Greba-deialdiak, ordea, kulturaren gaiari gagozkionontzat interesekoak diren hainbat elementu jarri ditu mahai gainean, eta merezi du, beraz, begiratu bat ematea.

Nik neuk ez nuen grebarik egin: emandako pistei jarraika ulertu dudan grebaren subjektuaren barruan ez naiz sartzen. Idazten dut tarteka poemaren bat edo kanta solteren bat, boladaren arabera gehiago ala gutxiago; «sortzen ditut», nahiago baduzue, baina ez naiz hargatik «sortzaile» izenarekin identifikatzen. Gizakion berezko ezaugarria da «sortzaile» izatea, imajinatibo eta eraldatzaile, eta hortaz ezaugarri unibertsal bat dena talde oso jakin bat izendatzeko erabiltzerakoan, profesionaltasuna inplikatzeko duela intuitzen dut. Profesionaltasunak ere esanahi asko izan ditzake, baina ni ez naiz haietako batean ere sartzen. Halaber, «kulturgile» izenari ere ez diot erantzuten, egia esateko: kultura ez baita «egiten», edo den-denok egiten baitugu. Egiten eta ulertzen eta sortzen duguna kulturaren baitan egiten dugu, indar produktiboen garapenak historikoki zehaztutako ulermen eta ekintza egitura horien baitan. Eta, jakina, greba egin nahi bada, bi adiera horiek derrigor behar dute produktibitate kapitalistaren baitako zentzurik, produkzioa zentzu kapitalistan gelditzea esan nahi baitu grebak. Ez naiz ni, inondik inora ere, grebara deitua izan, beraz. Hala ere, deialdiaren aurreneko puntua gogoeta

eta eztabaida soziala eragitea zenez gero, saiatuko naiz puntu batzuen inguruan hitz egiten, eztabaida sustatze aldera.


Greba-deialdiaren oinarrian euskarazko kultur ekoizpeneko prekaritate sakona dago. Artisten sektorea berez da sektore berezia, bere izaeragatik beragatik: ohikoenak aldi baterako lan-kontratuak eta estatus berezirik gabeko autonomo-izaera dira, diru-sarrera oso baxuak eta irregularrak, Gizarte Segurantzarako sarbide urria, kontraturik gabeko lanak eta beltzeko ordainketak. Kultur ekoizpenaren ezegonkortasuna eta prekarizazioa herrialde gehienetan gertatzen da, nik uste. Horri, ordea, euskarazko ekoizpenaren berezitasunak gehitu behar zaizkio: publiko-kontsumitzaile murrizta du eta baliabideak urriak, industria kultural indartsu bat osatzeko. Hortik areagotzen da euskarazko artisten pobretzea.

Pobretze hori osasun-krisiak areagotu egin duela azalduta, beste puntu batzuk proposatzen dituzte greba-deitzaileek. Produkzio kultural eta artistikoak duen balio soziala gogorarazten digute, esanez haientzat «entretanimendu hutsa baino, [euren] sormen lanek bestelako balioak» dituztela, «komunitate bateko kide» sentiarazteko balio digutela batez ere. Hortik abiatuta, egoera larriari erantzuteko premiazko neurriak eskatzen dizkiete erakunde publikoei, eta horretarako «euskal kulturaren ekosistema» osatzen duten eragileekin parez pare biltzea eskatzen diete, ekosistema horren hobebeharrezko neurriak adosteko. Deialdian «kultur ekosistema» zehazki zeri deitzen zaion argi ez badago ere, termino bera erabiltzen dutenen beste idatzi batzuei erreparauta, ikusi dezake batek artistak, antolatzaileak, kontsumitzaileak, kritikoak eta abarrak biltzen dituen taldeaz ari di-

rela, eta hortik azkar ondoriozta daiteke ekosistemak «kultur merkatu» esan nahi duela erabat. Ondorioz, motzean, deitzaileek eskatzen dutena zera da: merkatua indartzeko neurriak hartzea hain zuzen merkatuak berak sortu dituen miseriak gainditzeko. Horretarako, «kolektibo» berean sartzen dituzte antolatzailleak, erakundeak eta artistak, kontratatzaileak eta kontratatuak, irabaziak ateratzen dituztenak eta proletariatutako langileak.

Artisten lan-sektorearen jardun sindikalaren loraldi baten hasieran egon gaitzke gurean eta, alde horretatik, segur aski ez dago sobera artisten langile kondizioari erreparatzea. Artista langilea izan da «arte» gaur ezagutzen dugun bezala izan aurretik ere. Are, «artista» adierak «artisau» moduko zerbait esan nahi zuenean eta hori baino askoz lehena go ere, gizakiaren lanak, materia eraldatzeko gaitasunak, bazuen dimentsio estetiko bat. Kontua da, begi-bistakoa den bezala, arte-ekoizpena espezializatu egin zela eta artista, langilea ez ezik, soldatapeko langilea ere badela egun. Ez dezala inork pentsatu hori gure garaiko kontua denik: Marx eta Engelsek *Manifestu Komunistan* dagoeneko esana zuten burgesiak «soldatapeko langile soil» bilakatu duela poeta, eta harekin artista oro.

Horrekin justifika daiteke esparru kultural eta artistikoko langileen sindikalgintza, zeina, bide batez, aurreko mendeko hainbat esperientziatan topa baitezakegu –AEBko Alderdi Komunistaren bueltan 30eko hamarkadan sortutako The Artists' Union edo iraultza aurreko Errusian sortutako Gazteen Batasuna, interesgarri zaizkidan bi aipatzearren—. Baina zergatik zioen *Manifestuak* artista soldatapeko langile «soil» bilakatzen dela? Gailendu den dis-





## **Merkantilizazioa gaur egungo ekoizpen artistiko guztia, kontzeptualki eta praktikoki, modu guztiz hegemonikoan definitzen duen fenomeno da**

kurtsoak merkatua erregulatzearekin eta soldatapeko erregimena orokorki aplikatzearekin lotzen du produkzio artistikoa «duintzea», baina beharrezkoa da sakonago jotzea: argi adieraztea lan artistikoa soldataren legearen menara uzteak ekarri dituen eta oraindik ekar ditzakeen kalteak. Hain zuzen, artearen merkatu baten existentziak beharrezko egiten du soldataren truke garatzea lan artistikoa, baina era berean egiten du beharrezko artearen eta kulturaren merkantilizazioa eta giza dimentsio estetikoaren kosifikazioa.

Nago, oraindik ere, artearen eta kulturaren merkantilizazioa fenomeno anekdotiko gisa ulertzen dutela gehienek, *batzuen* gehiegikeria gisa. Kapitalismoa balioaren legearen erabateko nagusitasunarekin beharrean oligarkiarekin soilik lotzen dutenak bezala, artearen merkantilizazioa MTVren eta Amazonen kontua soilik da batzuentzat, eta ez, esaterako, liburu-denda txikiagoena. Hori, nire ustez, murraren parean duzunari ez-ikusiararena egitea da. Merkantilizazioa gaur egungo ekoizpen artistiko guztia, kontzeptualki eta praktikoki, modu guztiz hegemonikoan definitzen duen fenomeno da. Ez die soilik industria kultural handiei eragiten, baizik eta artea ekoizteko eta kontsumitzeko modu guztiei. Merkantilizazioaren ondorio gisa ulertu behar ditugu, esaterako, ekoizpen artistikoaren homoge-


neizazio gero eta nabarmenagoa, artistek beren lana aurrera eramateko derrigorrezkoa duten apustu enpresariala edo, jakina, artisten ezegonkortasun ekonomikoa. Zein arte mota ekoitzi dezake harekin irabaz dezakeen diruari begira egon beharra daukan artistak? Eta publikoari ere, «entretentzeaz» gain, zein modutara egin diezaioke ekarpena askoren artean beste produktu bat den artelanak? Zein modutan elika dezake horrek «komunitatea»?

Merkantilizazioa kontuan hartu gabe egungo esparru artistikoaren arazoak ebatzi nahi izatea aitzurra zorrotzuta arrokari kolpeka aritzea bezala da. Ez dut uste, hortik, goraipatzen den ekoizpen artistiko zabal, duin eta kritikorik etorriko denik, inolaz ere.

Artistek eta kulturako langileek borrokatu beharra daukate beren lan-baldintza prekarioak hobetzeko eta, alde horretatik, nik bederen gustura hartuko nuke sektore horretako borroka sindikalak areagotzea. Ondo diote greba-deitzaileek «paradigma aldatzeko ordua da, eredia aldatzeko ordua da» diotenean. Ni re ustez, hala ere, aldaketak errotikakoa behar du izan. Ez genuke ahaztu behar Adam Radomskik behin kazeta honetan zioena; alegia, «berehalako baldintzen inguruko borroka bere baitan agortzen dela eta askapenaren bidean ez duela zentzurik, ez badago kapitalismoa suntsitzeko

**Artista proletarioen  
premiak eta kezkak  
proletalgo osoarenak  
dira, eta berdin dira  
langile guztien premiak  
artistenak**

borondateari loturik». Artearen zinezko garapena ekoizpen-modu kapitalistatik askatuta lortuko da, merkantilizazioa eta soldataren erregimena sunsirituta. Zentzu horretan, sektore artistikoko lan-baldintzen hobekuntzen aldeko borrokak bere baitan eraman behar luke kapitalismoaren gairakaren ortzimuga, gizarte sozialistarena. Artista proletarioen premiak eta kezkak proletalgo osoarenak dira, eta berdin dira langile guztien premiak artistenak. Beharrezkoa izango da, beraz, artisen sektorea ere klase-batasunaren eta -independentziaren printzipioen arabera antolatzea, gaur dituen arazoak erraz ebatzi nahi baditu. /





Argitaraturik  
**2020KO EKAI NEAN**  
**EUSKAL HERRIAN**

Koordinazioa eta Erredakzioa  
**GEDAR LANGILE KAZETA**

Web  
**GEDAR.EUS**

Sare sozialak  
TWITTER **@ARTEKA\_GEDAR**  
INSTAGRAM **@ARTEKA\_GEDAR**  
FACEBOOK **@ARTEKAGEDAR**

Harremanetan jartzeko  
**HARREMANAK@GEDAR.EUS**

Harpidetza egiteko  
**GEDAR.EUS/HARPIDETZA**

Lege gordailua  
**GR 1731-2019**

Lizentzia





arteka

